



Lafitteren kazetari-lan hautatuak

PAKO SUDUPE



Eugenio Imaz: pentsalari erbesteratua

JOSE RAMON ZABALA

Historia bizia

Jean Louis Davanti elkarrizketa

LUCIEN ETXEZAHARRETA

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

132

iraila
urria
2002



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Gaiak

Lafitteren kazetari-lan hautatuak ► 11

PAKO SUDUPE

Eugenio Imaz: pentsalari erbesteratua ► 25

JOSE RAMON ZABALA

Historia bizia

Jean Louis Davanti elkarrizketa ► 43

LUCIEN ETXEZAHARRETA

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 93
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com

2002ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary



Selected journalistic works by Lafitte

The professor Pako Sudupe provides us with an analysis of the journalistic work by the writer Piarres Lafitte. The author has just published an essay on socio-political articles written by Lafitte. With this article, Sudupe attempts to analyse different keys which help to interpret the socio-political aspects of the writer's work. ► PAKO SUDUPE



Eugenio Imaz: thinker in exile

The professor Jose Ramon Zabala introduces us to the intellectual and professional career of the Basque philosopher Eugenio Imaz (1900-1951). A thinker regarding Christian humanism and philosophical personalism, a translator into Spanish of essential philosophical works—above all those of Dilthey—, a contributor to several cultural publications, and an intellectual who was strongly affected by the war, exile and subsequent obscurity. The author attempts to recover the testimony of a thinker and activist who was committed to his work and to the era in which he lived. ► JOSE RAMON ZABALA




Interview with Jean Louis Davant

The journalist Lucien Etxezaharreta conducts an extensive interview with the Basque language writer and academic Jean Louis Davant, in a new instalment of the *Living History* series. The interview extensively covers Davant's career: his childhood in the rural surroundings of Zuberoa, his experience in the war in Algeria, his political participation in the nationalist *Enbata* movement, his close relationship with the territory of Zuberoa, his literary career in different genres (pastoral, poetry, journalism, essay, etc.), his efforts as regards the Basque language, and his Christian conception of life. We are also offered his opinion on the different personalities from Basque cultural and political life with whom he maintained close contact. ► LUCIEN ETXEZHARRETA

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ► *Various Authors*



*e*skuetan duzun hau bigarren aldiko 132. zenbakia da eta 2002. urteko bosgarrena.

Zenbaki honek ez du gai nagusirik jorratzen. Horren ordez, elkarren artean lotura zuzenik ez duten bi artikuluk osatzen dute *Gaiak* saila. Piarres Lafitteren kazetari lana eta Eugenio Imaz filosofoaren ibilbidea dira, hain zuzen ere, artikuluko horiek jorratzen dituzten gaiak.

Lehenengo artikuluan, beraz, Pako Sudupek Lafitte idazle eta euskaltzainaren kazetagitza aztertzen du. Kutsu soziopolitikoak duten Lafitteren kazetari-artikuluen inguruko saiakera argitaratu du duela gutxi Sudupek, eta, ildo horri jarraituz, Lafitteren idazkien alde soziopolitiko hori interpretatzeko hainbat gako aurkezten dizkigu artikuluko honen bidez.


Bigarren artikuluan, Eugenio Imaz donostiar filosofoaren bizitza eta ibilbide intelektuala aurkezten ditu Jose Ramon Zabalak. Humanismo kristaura eta pertsonalismo filosofikora atxikitako pentsalari honek gerra zibila eta ondoko erbestea eta ahanztura pairatu zituen. Zabalak, lan honen bitartez, bere obra eta garaiarekin konprometitutako intelektual eta militante baten testigantza berreskuratu nahi du.

Historia Bizia sailean Jean Louis Davant elkarrizketatu du Lucien Etzeharreta kazetariak. Irakasle, politikari, idazle eta euskaltzain honen bizitzan eta obran sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzarora Zuberoako laborari giroan, Aljeriako gerlako esperientzia, En-

bata mugimenduaren baitan eta ondoren politikagintzan izandako parte-hartzea, hainbat generotan garatutako literaturgintza (pastorala, poesia, kazetaritza, saiakera...), euskararekiko atxikimendua, zuberera eta euskara batua-ren arteko gorabeherak, munduari eta bizitzari buruzko ikusmolde kristaua... Hots, hainbat esparru eta alorretara zabaldutako gizonaren bizitza eta obrari begirada sakona ematen zaio elkarrizketan.

Egunen gurpilean saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak egin dituzte Joseba Balerdik Kultura alorrean, Laura Mintegik Literaturan, Iñaki Martinez de Lunak Soziolin-guistikan eta Amatiñok Telepolis atalean.¶

Gaiak



PAKO SUDUPE

Lafitteren kazetari-lan hautatuak

11

¶

JOSE RAMON ZABALA

Eugenio Imaz: pentsalari erbesteratua

25

Lafitteren kazetari-lan hautatuak

b

PAKO SUDUPE

b

2002ko apirilean argitaratu du Elkarlanean argitaletxeak neuk prestaturiko Lafitteren 151 artikuluhautatuen bilduma. Hamaika artikuluko hamarkadakoak —hauetarik zortzi ez dakigu ziur bereak diren—, hogeita hamalau 30eko hamarkadakoak, hogeita hemeretzi 40ko hamarkadakoak, berrogeita zortzi 50ekoak eta hemeretzi 60koak. Lehendik Lafittek euskal idazleen lanez egindako idatziak genituen eskura Patri Urkizuri esker, Xipri Arbelbideren biografia eta Serge Monierren *Entretiens*, hogeita hamabi orduko elkarrizketen transkribapenak frantsesez. Gure antologiak Lafittek idatzitako artikuluko soziopolitikoaren hutsunea bete nahi du. Hitzaurrean batez ere informazioa ematen dut artikuluko hauen ingurumariaz, eta Lafitte eta Aitzolen arteko hurbiltasun eta urruntasunez. Artikuluko honetan zenbait gako eman nahi ditut Lafitteren lanaren alderdi soziopolitikoaren interpretatzeko.

Lafittek, nire iritzian, bi aldi nagusi ditu begiratzen diogun ikuspuntutik: bata, 1930eko hamarkadakoak, batez ere 1932tik 37rako urte bitartekoak; eta bestea, alemanen azpitik askatu ondoko urteetakoak, *Hemia* aldizkaria 1944ko urrian sortu zenetik hasirik hogeita eta gehiago urteetan egindakoak, aldizkariaren zuzendari talaiatik.

Pako Sudupe euskara irakaslea da, eta Euskal Filologian lizentziatua.

Esqualerrizaleak eta *Aintzina*

Lafitte Ipar Euskal Herriko aldizkari giristinoetan kolaboratetik zetorren, batez ere *Eskualduna*-n eta *Gure Herria*-n, baina baita *Le Courrier de Bayonne* eta *La Presse de Sud-Ouest*-en ere; haatik, ez zen libre sentitzen aldizkari horietan, giristinotasunean bat etorri arren aurrerago jo nahi zuen 1933an «Eskual-herriaren alde» programa eta 1934an *Aintzina* aldizkaria plazaratu zituenean, Aitzolen eta beste askoren iritzian garai bertsuan Hegoaldean euskal nazionalismoak karlismotik abiaturik aurrera egin nahi zuen bezala: karlismoa zaharkitua gelditzen ari, eta jelkideek beste urrats bat egin nahi aberriaren ezagutzan eta askapenerako bidean. *Aintzina*-k ere beste horrenbeste, hots, aldizkaria ateratzen zuten Lafitte eta honen gogaide Esqualerrizaleek; giristino eskubideak batere sozial kutsurik gabe aldeztari eta Frantzia zerbitzatzeari estekaturik zegoen eskuina aitzinarazi nahi zuten erregionalismo antiestatista eta guztien gaineratik pertsonaren alde egingo zuenera. Pertsonalismo horren baitan, marxismoaren kutsu guztietarik ezin urrunago, sozialtasunak ere bazuen bere lekua, langile batasunak, sindikatuak eratzeko aldarriak.

Sabino Aranaren ametsa zazpi euskal estatuen konfederazioa zen Ingalaterraren babespean; Manuel Irujok, 1940an, *Euzkadi'ko Batzar Nagusia* Londresen eratzean gauzatze bidean jarri nahi izan zuena. Aitzolena uste izatekoa da bigarren zatia dagokionez, Ingalaterratik baino Erromatik hurbilagoko Euskadi burujabearena zela, espiritu kristauz blaituriko zazpi probintzien burujabetza, eta ildo horretan kokatzekoak begitantzen zaizkit De Varela edo Patrick Pearse abertzale irlandarrak¹ goraiatzeko Aitzolek idatzitako artikuluak, hots, idealaren propaganda egin behararen baitan. EAJren praxi politiko nagusia, ordea, posibilismoaren bidetik, autonomi estatutua lortzera bideratu zen aldi desberdinetan, Espainiako II. Errepublikak iraun zuen urte bitartean gailurra jo zuela, batez ere 1933ko urtean —ohar 1933an plazaratu zuela Lafittek bere programa esqualerrizalea—. Ildo honetan, liburura bil-

du dugun «Araudia» deritzan hiru atalekiko artikulua (131. or.) adierazgarria da oso.

Artikuluaren lehen atalean, estatutu ahaleginen historia laburra egiten du. Hertsiki jarraitzen dio lehen atal honetan Aitzolek *El Día*-n argitara «De ayer a hoy»² artikuluari, esan liteke azken honen euskarazko itzulpen laburtua dela Lafitterena; bigarren atalean, estatutuak zekartzan onurak nabarmentzen ditu, batetik:

eskualdunen arteko batasuna osatzen du hiru herrialde-tan; gizon gaztek Eskual-herrian berean dukete soldadogoia; eskola eta auzitegietan eskuara haizu erdara bezain ontsa; ikaskuntza espagnolaren aztaparretarik khendua; zerga gutiago pagatu behar; erlisioneak esku gehiago izaki...

eta bestetik, jendea estatutuaren alde jartzeko zer-nolako ahaleginak egin zituzten nazionalistek ematen du aditzera, gogotsu saiatzearen poderioz eta zuhurtziaren indarrez hainbat erregezale, errepublikazale, sozialista eta karlista estatutuaren aldekoen taldera biltzea lortu zutela azpimarratuz. Ildo beretik, Jaun Apezpikuaren boz-ematea —ez du espresuki adierazten, ezin bada!, baina zeharka bere botoa aldekoa izan zitekeela iradokitzen bai—, Urkixo jaunaren eta emaztearen aldeko botoa eta esanguratsuki katalan eta galiziar etorkinek beren sorlekutik izan zituzten aholkuak *libertatearen alde* boz-emateko.

Lafittek artikuluan aipatzen dituen zerok:

Hemezortzi jaun izendatu dituzte herriek, araudi hortaz artha hartzeko. Hemezortziek deliberatu zuten jende guztiak bildu behar zituztela eta boz-eman arte nehoi etziotela ez laidorik ez eta pikorik ere eginen. *Mitin*-ak debekatu zituzten beren aldekoeri, holako bilkurek nahi-eta-ez kontrakoak sumintzen dituztelakotz: berek hautatu pape-rekin argitu nahi izan dituzte boz-emaileak eta berek berechi hizlariak baizik ez dira *radio*-z ez bertzela mintzatu. Denak izariz eta zuhurki kudeatu dituzte;³

ez ziren horrela izan *El péndulo patriótico*-n irakurri dudanez. Iturri honen arabera, erreferenduma igaro ondoren EAJ saiatu zen estatutuaren aldeko hautagai-zerrendak osatzen, lurralde bakoitzean estatutuaren alde egon zitez-

keen zeinahi alderditakoekin itunak eginda, Gipuzkoan eskuineko tradizionalistekin batez ere, eta Bizkaian Lerrouxen alderdi erradikal errepublikanoarekin, eta hor kokatzen da Hemezortzien Batzordearen ekimenarena; azkenean, erabateko porrota jaso zuena eta ez garaipena Lafittek adierazi bezala.

Baina ez dugu Lafittek zuen informazioa epaitzeko asmorik. Ohartarazi nahi dugu Lafittek arras ongi zeritzola EAJren jokabide posibilista-estatutuzaleari Aitzolek zeritzon bezala, nahiz azken helburuak bestelakoak izan, eta Lafitte antzeko mugimendua eragin nahian abiatu zela Iparraldean, eta horregatik sortu edo/eta lagundu zituela *Eskualerrizaleak* (gizonena), *Begiraleak* (emaztekiena) eta *Menditarrak*. Eskualerrizaleen programan kartsutasuna sumatzen da, erakunde eta gizarte talde guztietara iritsi nahia, eta azken helburu gisa alderdia eratu eta hauteskundeetan lehiatzeko guraria.

Zein zen Lafitteren ametsa edo zein antolamendu politikori zeritzon egokien? Paradoxa dirudien arren, Errusiako moldeari irizten zion bikainen, hobeki esan, Errusiak egiten zuela aldarrikatzen zuenari:

Eskualde baktotchari uzten diote empletuaren hautatzea herrian-herriko egiteko berezientzat; bertzalde esku uzten diote mintzaiari, eskoleri eta ohidureri buruz; baina Rusiako gobernuak ditu hautatzen eskualdeen-arte lanetan behar diren empletatuak eta harek du politika bidadzen («Eskual-Herriaren alde» programan).

Lenin eta Kristo bi eredu ezin uztartuzkoak ziren, historiaren ikuspegi materialista, pertsona gizartean eta estatuaren egituratan urteza eta jabetza pribatua ukatzea erabat gaitzesteak eta gudukatzekoak ziren, baina Errusiaren populuekiko politika hoberena 1933ko Lafitterentzat; 1964an, Suitzako egoera politikoa aurkeztuko digu jarraibidetzat.

Egunerko jardunerako zein praxi hautatu zuen? Haste-hastetik baztertu zuen Frantziatik bereiztearren borrokatzea, bi arrazoi nagusirengatik: ekonomikoa bata; kontinenteko euskaldunek gaskoi eta biamotarrekin zituzten haren ekonomikoei ezin hautsizkoak irizten zien; eta, Frantziako estatu botere tsuarekiko beldurra, bestea: nola

altxatuko ziren bi *arrondizamendu* baino ez zituztenak Frantziako 385 *arrondizamenduren* aurka. EAJk zazpi herrialdeen senidetasan arrazazkoa eta kulturala aldarrikatu a ren, Hegoaldeko lau herrialdeetan antolatu zuen alderdia, hots, Iparraldea alderdiaren egituratik at gelditu zen.

Alemanak garaitu ondoko sukar nazionalista frantse-sa poxi bat ematua izanagatik, gerlari ohiaren espirituak gora handia zuen artean Ipar Euskal Herrian. Lafitte apaiza zelarik, ez da ahantzi behar zein parte-hartze deliberrtua izan zuten Frantziako elizgizonek Lehen Mundu Gerran, aurreko urteetan III. Errepublika laikoak izugarri pairarazi bazien ere lege laikoak ezarririk —erlijiosoei irakastea debekatzea, kanporatzea, apaizei soldata kentzea—. Parisko Institutu Katolikoko jesuita irakasleei aholkuak galdegin ondotik —batez ere, Yves de la Brière jesuitari—, *Aintzina*-tik erregionalismoa sustatzeari iritzi zion egokien. *Eskualerizaleak* taldea abiatzerako Frantzia jakobi-noa eskualdekatze lanari lotuak zitzaizkion Britainia, Flandes, Alsazia, Auvernia eta Proventza eskualdeak, eta horiek izanen zituzten politikari zegokionez lagun. Gogora «Araudia»-n Galizia eta Kataluniako jatorriko langileei euren sorlekuetarik ematen zizkieten aholkuak nabarmentzen zituela. Honekin esan nahi dugu: Frantziarako egoki bazeritzon Espainiarako ere halaxe zeritzola.

Helburu apala eman dezake erregionalismoa sustatzearena; Lafittek haatik, garbi zuen ez zela lan erraza izanen: «Lehenik ez uste izan aise helduko girela gure chedetarat. Beharko da gogo, nahikunde, iraupen, diru, nekhe eta pairatze»; beren xedeak erdiesteko hedabide guztiez baliatu beharra ikusten zuen:

ikhurrin edo bandera, ezagutgarri, karta, paper (...) musika, kantu oihu... horra beharientzat; gogoen ernatzeko aldiz hitzaldi, kazeta, liburu, solasketa, teatro...; dantzek gorputz guzia inharrosiko dute eskualdungoaren alde eta (...) fono, radio, eta nik dakita (...).

Horiek guztiak prestalan gisa eta gero:

Politika dukegu gure giderrik hoberena. Orotan aitzindari paratu behar dugu emeki-emeki. Herrietan konseilu sartu beharko, bakarka edo moltzoan. (...) Halaber kon-

seilari jeneral eta deputatu plazen hartzerat gaude... ordua datekenean. Ez dugu gutietsiko laborari, langile edo sal-erosle batasunetan gure kidekoen sar-araztea («Es-kual-Herriaren alde» programan).

Berrehun eta berrogeita hamar abonamendutik gora lortu zituen *Aintzina*k, *Eskualtzaleen Biltzarra*-ren urteroko batzarretan-eta propaganda eginez harpidedunak biltzeko; bizpahirubilera ere egin zituen Lafittek eurengandik hurbileneko politikariek, baina mugimenduak ez zuen lortu errotzerik ez eta hautagaiak aurkezteko adinako indarra eskuratzetik, eta 1936ko bozetan —aldizkaria abiatu zenetik bi urtera—, besteak beste, Jean Ibarregarai eskuindar frantses nazionalista porrokatuaren alde egitea galdegin zien Lafittek eskualerrizaleei, konplexurik gabe eta Ibarregarairen aldeko kanpaina hori baliatzeko beren ideiak populuari helaraz ziezazkioten. EAJk Gipuzkoan egin izan zuena, hots, eskuin tradizionalistarekin bat egin ezkerreko alderden aurka, beste horrenbeste Lafittek Iparraldean, ez zutelako aski indar bildu hautagai independenteak aurkezteko. Azken urteetan, Serge Monier elkarrizketatzaileak Eskualerrizaleen mugimenduaren porrotaren arrazoiez galde-turik, erantzun zuen Iparraldea artean heldu gabe zegoela.

Gerrate artean

Porrot honek ez zion lagundu noski aitzinago egiten euskal eskubideen alde. Espainiako gerra zibila hasi zenean *Menditarak* gazte taldearekin —Hegoaldeko *Mendigoi-zaleak*-en antzeko taldea— Nafarroa Behereko herrixka batean zen, Eiheralarren, eta han zela Louis Intxauspe Donibane Garaziko kontseilari nagusia jin zitzaion, Michel Intxauspe bankari eta politikari famatuaren aita, ezen Mola jeneralak bazuela eskaintzaren bat egiteko jeltzaleei hauek Errepublikaren kontra Espainian altxatuen alde paratzen bazien. Onartu zuen ararteko lana Lafittek euskaldun anaien arteko gerra, nafar eta gainerako euskaldunen arteko gerra, geldiarazi nahian. Ez dakigu zuzen Molaren arartekoak zein ziren —Larronde historialariak

Rafael Aizpun aipatzen du, baina egindako ikerketaren arabera ez dakigu zuzen zein ziren Molaren mezulariak—, dakiguna da Lafitte abiatu zela Donostiara eta GBB onartzekotan egon zela Molaren proposamena BBBk onartzekotan, baina honek gaitzetsirik bere horretan gelditu zen ahalegina. Lan asko egin zuen Lafittek Hego Euskal Herriatik eta Espainiatik etorritako iheslarien haurrak artatzen.

Orduko giroa ezaguturik, eta Lafittek miresten zituen Lhande jesuita euskaltzaleak edo Parisko jesuita Yves de la Brièrek hartutako Francoren aldeko jarrera eta Espainiako apezpikuen eta Aita Sainduaren iritzia ezaguturik, ez da harrigarriegi gertatzen Lafitteren iritzi hau:

Othoitz egin dezagun, Jainkoaren alde ari direnentzat: agian erlisionea xutik ezarriko dute Espainian, azkar eta eder; agian berekilako jeneral framazonak bazterrerat emanen dituzte eta Hitler paganoaren kidekoak ere, bitoria irabazi ondoan. Bertzenaz zertarako litezke hoinbertze odol, hoinbertze hil eta hoinbertze dolu? Sukhar ustelaren orde izurritea ezar? Guti hortarik... (173. or.).

Alemanen aurka Frantzia soldadu gisa zerbitzatu ondoan, Petainen agintaritzan esan liteke itxaropen zuhurrez hartu zuela:

[Frantzia] Departamendu-ka zathikatu zuten Erreboluzio handiko lege-egilek, batere kasurik egin gabe nor norekin zuten ezartzen, ez eta nor noren ganik zuten berexen (...) «munstroa» muntatu zuten, eskualdunen eta erlisionearen etsaiek, ustez eta gu kaskoinduz hobeki galduko gintuzketela, hobeki urtuko (...) Pétain marexalak aspaldion errana du zer zaion hoberenik: naturalezak, odolak, mintzairak, ohidurek manatzen duten arabera jendeen berextea (...)

Vichyko Gobernuko hainbat ekonomialari (Lucien Romier, kasu) eta legelariengan (Barthelemy, kasu) ez zuen batere usterik, Charles Brun erregionalistarengan bai:

Bilkura hartan bada gizon bat, Charles Brun, eskualtzale egiazkoek estimatzen dutena. Hau, gu bezalatsu mintzo da. Bainan behar luke nunbaitik laguntza poxi bat; lauzkatu behar ginuke, larderia gehiago izan dezan, eta haren erraneri beha diten (198-200 or.).

Laster galdu zuen esperantza eta erresistentzia lanetan aritu zen, batez ere aliatuen aldeko iheslarien zerbitzuko Uzartizetik Arnegirako sarea azkar atxikitzen.

Herria

Erresistentzian egindako lana baliatu ahal izan zuen *Eskualduna* kolaborazioaren akusaziopean hetsi zutenean *Herria* kazeta abiarazi eta haren giderrak eskuan atxikitze-ko. Bestealdi historiko bat eta gorago adierazi bezala bestealdi garrantzitsu bat Lafitteren pentsaera eta sentiera soziopolitiko eta soziokulturala jarraitzeko.

1932tik aurrera Hegoaldekoekin, Aitzolekin-eta izandako harremanak zein egoeratan daude 1944an? Serge Moniemi egindako adierazpenetan aitortzen zuen eragin handia izan zuela bere baitan Hegoaldeko II. Errepublikagarai-ko abertzaletasun mugimendu kartsuak, haren haizera edo eraginera entseatu zela kidetsuko higikundea sortzen Iparraldean baina artean heldu gabe zegoela hango gizartea.

Liberazio ondoan hain segur Frantziako gizartean zegoen kontraesan nagusia norbanakoak kolaborazioarekin edo/eta erresistentziarekin izandako zerikusiarrena zen. Liberazioko komiteak indartsuak ziren eta komunismoaren eragin itzela nabarmena —1946ko hauteskundeetan %28,6, 169 diputatu, 800.000 kide eta CGT sindikatua eskupean—. Lafittek *Herria* plazaratu orduko egiten duen lehen aldarria frantsesen arteko batasun eta adiskidetze behararena da: traidoreak eta alemanei esker aberastutakoak zigortzeari ongi deritzo eta horri ongi bezain gaizki iriztidelitu zigortzeari, hots, Petainen aldeotasun ideologikoa besterik gabe zehatzeari —azken hau zigortzeko juje aski ba al zen Frantzia osoan!—. Alemanen aurkako erresistentziak sozialistak, komunistak, kristau-demokratik, apaizak eta mojak elkartu bazituen, zergatik ez zuten beste horrenbeste egin behar Frantziak burujabetasuna berreskuratzean, hots, batu eta liskarrak ahantzi eskuin aldeko eta ezker aldeko frantsesek Frantzia gaixoa bere apalkuntza moral eta hondamendi ekonomikotik jalgitzeko.

Nazioarteko politikari dagokionez berriz, IV. Errepublikaren garaian (1944-1958), AEBekin eta Ingalaterra rekin lerrokaturiko Europa batu ongi armatua aldeztu du SESB eta komunismoaren nahi inperialistei gogor aurre egiteko —honen alde kartsuen agertu dena Etienne Salaberri izan da—. Komunismoak, haren iritzian, kalapita eta anabasa sortu nahi zuen, ezarritako ordenari azpiak jan, Frantzia ahuldu eta bildots otzan bilakatzeko Erusiaren atzaparpean errazago makur zedin. Lehenbiziko abiaduran arazoak izan zituen *Herriak* komunistekin. Arazo eta beldur zehatz hauei erantsi behar zaizkie Pio XI. eta XII.aren itzal luzea eta oro har elizjende gehienek komunismoari zioten izua eta mesfidantza.

Frantzia eta nazioartea aipatu ditugu, eta Euskal Herria? Marc Legassek 1945ean Iparraldeko lehen autonomi estatutua idatzi zuen: lehenbiziko aldiz Iparraldeko hiru probintzientzat euskal departamendua, euskararen ofizialtasuna eta ahalmen handiko autonomi estatutua galdegin zituzten Parisen Jean Etcheberri Aintxart diputatuaren bitartez. Urte berean kantonamenduetako hauteskundeetara «Nationaliste Basque» izenarekin agertu ziren Marc Legasse Donibane Lohizunen eta Joseph Darmendrail Baiona Iparraldean, eta beste bi abertzale «indépendants» izenpean —Pierre Landaburu eta André Ospital Miarritze eta Baiona Mendebaldean, hurrenez hurren—. Emaizta kaxkarrak lortu zituzten. Lafittek gertakari horien karietarat adierazi zuen II. mundu gerrak sortutako egoeraz profitaturik errepublika federala aldarrikatu zutela, Frantziako gutxiengo nazional guztiak aintzat hartuko zituen Frantzia federala eta ez separatismoa, eta gainera, ñabardurak gorabehera, euskaldun gehien nahiak jasotzen zituztela hautagai horiek. Erregionalismoa aldeztu zuen 1933an, federalismoa 1945ean.

Jarraitu zuen euskara ikastetxeetan txertatzearen aldeko lantegian eta oro har euskaltasunaren alde, hori bai, inoiz frantsestasunari kontrajarri gabe, nahiz jakobinismoa bortitz salatu. Bozketetan hautuak egiteko orduan, giristinotasunak eta euskalduntasunak MRPko zerrendara lerrarazi dute; eta bere guztizko hautagai kuttuna Jean Errekart izan du⁴, laborari euskaldunen aldeko diputatua.

Euskal idazleekiko harremanez den bezainbatean, 30eko hamarkadan Orixe miretsi bazuen 40koan etsaitzera heldu ziren. Arrazoiak: Orixek *Grammaire Basque*-ri egin zion kritika, eta batez ere Bergsonen «Evolution Créatrice» delakoari buruzko ikuspegi kontrajarriak⁵.

Beste mokokaldi batzuk Andima Ibiñagabeitia eta Jon Miranderekin izan zituen 50eko hamarkadaren lehen urteetan. Andima Ibiñagabeitiaren burubidea zen aberri batean askotariko gizakiak eta gizataldeak izan ohi direla, eta ordu-raino euskaraz gizatalde batzuei soilik eman zitzaiela bazka, eta aurrerantzean fededunak bezala fedegabeak, jainkotiar-rrak bezala jainkogabeak elikatu behar zirela. Haren iritzian euskarari lizunkeriaren atea eta beste hainbat «keriarena» ere zabaldu beharra zegoen; Lafitteren aburuz, aldiz:

Zikinkeria dariogula izkiriatur, ba omen ginuke arrakasta biziki gehiago, eta euskarazko liburua bixkotxa bezala sal omen litake (...) Ez dugu asmatzen zer irabazi ginukeen, has baginte itsuseria izkiriaturen. Eskuararen irakur-araztea? Guk ez dugu neholaz eskuara eskualdunen ganik berexten, ez berexi nahi ere. Eskualduna nahi dugu norbait izan dadin, gorphutz eta arima, sendo eta garbi egonez edo bilhakatur, egiari eta ongiari emanez. Ez dezakegu beraz ez hala ez denik ez eta gaizkirik onhart, nahi bezain ederki eskuaraz panpinaturik ere. Eskualdunagoak bere mugak baditu;⁶

Miranderi berriz:

Adixkidea, ez dautzugu ez zuri ez nehoi gure fedea bortxaz onhart-arazi nahi (...) Bainan zu libro uzten zitugun bezala zure gisako fedegabe edo basafedekoekin, othoi utz gitzatu gu ere gutartean gizonki eta girixtinoki bizitzerat (...) Nahiz eskuarari gu bezain atxikia ziren, jakizu gu girixtinoenganik biziki urrun zauzkala zure fede eskasak. Zu bezalakoek gure garbitasun-nahia deitzen dute «gaixokeria», eta gu bezalakoek zuen lizuntasun-nahia «urdekeria». Ez gira batere beretik ari! (idem).

Ez ziren ez ildo beretik ari! Oraindik orain adierazi du Luzien Etxezaharretak Lafittez ari, hark bortizkeria, sexua, ironia eta trufa, modernitatea, Jainkoa ukatzearen ideiak, gazteen ausardia, euskal literaturatik baztertzejoera in-

dartu zuela eta aita hil beharra izan dutela Iparaldean. Lafitterentzat axolazkoena gizonki bizitzea zen, hots, girstinoki.

Garai bertsuan, 50eko hamarkada hasieran, beste eztabaida bat piztu zen euskal idazleen artean, hain zuzen euskara noraezean kultur hizkuntza bihurtu beharrarena, kulturaren edozein alorretan erabiltzeko modukoa. Auzia Krutwigek piztu zuen Villasanterekin batean, eta auzi haren muinak oraindik ere bizi-bizirik dirau: nola landu euskara, nola aberastu egungo bizitza modernoko alor guztiak jorratzeko gai izan dadin, hots, mintzabide zalu, egin eta adierazkorra. Auzi honetaz Lafittek emandako erantzuna honakoa izan zen:

Derabilagun eskuara laborariak dute asmatua behar arau, eta atxiki dute, ez sort-herriaren maitez, ez burukeriaz, bainan den bezala beren heinekoa dutelakotz. Heierimintzaten gireno, ez da dudarik heien heineko eskuara begiratu behar dugula; eta nahi baditugu ere gero-eta gehiago argitu, ez ditugula eginen hitz arrotz ukaldika, bainan heien meneratuz, eta heien menetik heiekin batean goiti hegaldatuz. Hitz berri ala hitz arrotz, bide nabar, orotarar joko dugu aldiak behartzen bagitu, bainan izariz, ez ditzaten berrikeriek edo arrozkeriek gure liburu eta predikuetarik bazter.

Orai, eskualzaleen arteko agerkari berezietan nor edo nork nahi badu erakutsi bere baitharikako eskuara jakintsu berri bat, bego haren gain. Ez badio eskuarari onik egiten, ez dut uste kalterik ere egin dezoken hanbat!⁷

Aurrekoa honekin lotuz, laborarien mintzaira da euskara eta haiei begira eta haiekin batean da aberastu behar. Eta haien kultura girstinoa da, eta euskal kulturak ere halakoa behar du izan: laborari girstinosen kultura funtsean; gainerakoa, esan liteke luxua edo dela, premiazkoa ez denean aritzea. Beharbada muturregi eraman dugu, baina funtsean horrela ulertu du Lafittek, *Herria*-ren irakurlea halakoa bide zelako. Ez dio garrantzi handirik eman, ez du sinetsi gehiegi, alor eta gizatalde guztietara hedatutako

euskal kulturaren, beste banaka batzuek ikusi eta lantzen hasi bezala 50eko hamarkadatik aurrera.

Honainokoa irakurrita, ez beza pentsa irakurleak He-goaldeko idazle guztiekin samurtu zenik. 1949an euskaltzain oso izendatu zuten Krutwigek proposaturik, eta He-goaldeko askorekin izan zituen harreman onak. Esate baterako, Aingeru Irigarairekin oso ongi heltzen zen, landu beharreko hizkera ereduan-eta oso bat zetozen. Egia da hizkuntza landu duela *Herria* kazetak eskatzen zion mailaz goiti hainbat alditan, baina egia da ere, ez dela erreferentzia bat izan euskarari lur berriak bilatu eta jorratze aldetik.

Arlo soziopolitikora etorritz berriz ere, Frantziaren koloniei doakienez, batez ere Aljeriari zegokiola, Eurafrika federalistaren alde agertu da, eta bidenabar Frantzia federalistaren alde:

Ce serait le moment de faire un nouveau statut des Provinces et d'insérer dans ce cadre le statut algérien: ce serait, dans une certaine mesure, combiner le fédéralisme et l'intégration, puisque toutes les régions de France se trouveraient fédérées sur le même pied que l'Algérie. Cette solution, respectueuse des particularismes et en même temps accueillante à l'union nécessaire entre les hommes, pourrait être un pas vers l'unification soit Européenne, soit Eurafricaine (...) En écoutant le Maréchal Juin, nous entrevoyions pour notre pays la possibilité d'une décentralisation favorable à nos tendances euskariennes, quand ce ne serait que la réforme scolaire, dans le souci de sauvegarder notre langue, de cultiver nos convictions religieuses et d'avoir un enseignement plus pratique (372-373 or.).

V. Errepublikan urrats bat aurrerago hitzetan, bere ametsa agertu du: Suitzaren antolaera eredu Euskal Herri askea, berari doazkion gaietan, eta aldi berean Europako gobernuari lotua: Euskal Herri euskaldun giristinoa Europaren baitan.

Hortxe baratu da eta urrundu 60ko hamarkadaren azken urteetan eta 70eko hamarkadan euskal politikaren urak hagitz uhertu zirenean; urrundu adinak eraginik, eta urrundu beste harako burubide hark bulkaturik: Frantzia-

ren edo Espainiaren kontra egin beharrik ez dago uraz haraindiko eta honaindiko euskaldunak batzeko.

Axolazkoenak Lafitterentzat giristinotasuna eta Jainkoarengan fedea izatea:

Badakigu denek zoin den laguntza haundia, Eskual-Herrian, apezena, zerbeit nahi delarik bururatu. Joanes XXIII-garren Aita Sainduak, bakeaz agertu duen orotako letran, galdegina zaiote fededuneri beren ahal guziz fagoratzea populu ttipien errespetua eta heien arteko bakezko lokarriak.⁸

Ez litzateke batere kaltegarri Joxe Azurmendik Orixe-
rekin egin Lafitterekin ere egitea, hots, bere lanaren alde onak eta alde txarrak xehekiro azpimarratuz liburuia osatzea.⁹

-
1. Ikus «El separatista irreductible» (435. or.) eta «Del estatutismo al separatismo» (484-490 or.) in *Aitzolen idazlan guztiak*, V, Erein, Donostia, 1987. José Martí kubatar abertzalea ez zuen hainbeste goretsi, honako hiru akats aurkitzen zizkiolako: eszeptizismoa, razionalismoa eta agian ateismoa.
 2. *Idazlan guztiak*, V, 534. or.
 3. Santiago de Pablo, Ludger Mees, José A. Rodríguez Ranz; *Crítica*, 1999, Bartzelona, 253-254 or.
 4. Irakur «Deputatu eskualdun baten ukaiteko», 364. or.
 5. Irakur «Nicolas de Ormaechea itzali zaiku», 401. or.
 6. 341. or.
 7. Irakur «Auzi bati datxikola», 330. or.
 8. Irakur «Populu ttipi baten gora beherak», 430. or. Ez nuke artikulua amaitu nahi ohartxo bat egin gabe. Liburuaren hitzaurrean Narbaitz bikario nagusia izana ez dut gehiegi famatu; berriki adierazi du Xarritonek Narbaitzen alde, 1944-1964ra bitartean inor arduratu bazen euskaraz eta euskal kulturaz Baionako elizbarrutian, hori Narbaitz bikario nagusia izan zela. Nik uste ez niola behar bezala ulertu Xarriton jaunari.

Eugenio Imaz: pentsalari erbestera

b

JOSE RAMON ZABALA

b

1 951ko urtarrilaren 28an, Mexiko estatuan, Veracruzko hotel bateko gela batean, era tragiko batez, bere buruaz beste eginez alegia, Eugenio Imaz donostiar saiakeragile eta filosofo erbesterauaren bizitza itzali egin zen. Idazlearen heriotza goiztiarrak dagoeneko garrantzi handia zuen haren lanari amaiera eman zion; izan ere, une hartarako filosofoak egina zuenak balio handia zeukan. Gibelean, Atlantikoaren bi aldeetan idatzitako liburak, itzulpenak, artikuluak, hainbat lanetako hitzaukreak eta hitzaldiak utzi zituen, hau da, lan aberatsa, non Imazen indarra eta izaera ausarta ondo erakusten zen, bi kontinenteetan eginiko lan handiaren testigantza. Zoritxarrez, lan eskerga hori ondo borobildu eta sistematizatu gabe gelditu zen, baina, hala ere, Imazen eragin kulturalak eta ideologikoak oraindik bizirik dirau gure artean, eta ez bakarrik hark prestatutako testuen bidez, finean berea intelektual konprometitu handi baten isla baita.

Imazekin parekotasunak bilatzeko beste bi filosofo handien izena ekarri behar ditugu hona: Juan David Garcia Bacca (Iruñea, 1901-Quito, 1994) eta Castor Narvarte (Irun, 1919). Hirurak euskal pentsamenduaren esponente handiak badira, artean frankismoaren aurkako jarrera etikoa eta erbesterauak bizi izanak dute hiru filosofook. De-

Jose Ramon Zabala Institutuko irakaslea eta Filosofia eta Letretan doktorea da.

na dela, biografia tragikoena, zalantzarik gabe, Eugenio Imazena da eta horretan murgilduko gara lan honetan.

Argia, Donostian

Obra intelektual horren garrantziaren parean, ordea, esan behar dugu idazlearen hasierak erabat xumeak izan zirela: Jose Basilio Eugenio Imaz Etxeberria Donostiako Parte Zaharreko kale pobreenetariko batean jaio baitzen, 1900. urteko ekainaren 14an. Garai hartako Donostia elitiko turismoaren eta luxuaren benetako ikurra zen, baina hiriko biztanle arruntaren errealitatea, aldiz, oso bestelakoa zen. *Belle Epoque* deritzen urte haietako kasinoaren xarma, aristokraziaren bizimodua, udako festa distiratsuen oihartzunak eta kanpoko bisitarien dotorezia erabat urruti zeuden Imaz familiarengandik. Eugenio Imaz izen bereko saskigile baten zortzigarren semea izan zen. Ondorioz, familiaren beharrak ikusita, aita beste lan batzuk eginen saiatzen zen, besteak beste, udal sereno edo gauzain bezala. Idazlearen ama ere, Josefa Etxeberria, jatorri umilekoa zen, Astigarragako baserri bateko alaba.

Eugenioren jaiotzeak familiak zituen arazo ekonomikoak nolabait larritu egin zituen, eta ez bakarrik zortzigarren umea zelako, baizik eta hilabete batzuk lehenago aita hil zelako. Egoera horretan, eta seme-alabak aurrera ateratzeko asmoarekin, amak hiriko merkatuan —Bretxakoa, hain zuzen— arrain saltoki bat ireki zuen. Hala ere, arazok bere hartan jarraitzen zuten, hiru semeek Filipineta eta Argentinara emigratu behar izan zuten, lur haietan lana eta bizimodu erosoagoa bilatzeko asmoz, eta, aldi berean, familiaren zama arintzeko.

Diru arazo horietatik kanpo, Eugenio Imazen haurtzaroa Euskal Herriko ohiko familia baten semearena izango zen, katolikoa eta euskalduna, nahiz eta aita liberala izan, auzoko herri bizitzan ondo errotua. Dena dela, hizkuntzari dagokionez, Imazek izan zuen euskararen ezagupena ez zen oso sakona izan behar, batez ere ahozko erabilerara mugatu baitzen, dirudienez, eta urteen poderioz nahiko

ahaztuta izan baitzuen. Hori hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar dugu, alde batetik, garai hartan gaztelaniak Gipuzkoako hiriburuan zuen prestigio handia, eta, bestetik, Imazek Euskal Herritik oso gazterik alde egin izana.

Imaz-Etxeberria familiaren egoera ekonomikoa ikusita pentsatzekoa izan zitekeen seme txikiaren etorkizuna nahiko baldintzatuta egongo zela urte haietan, eta, beraz, ez zuela izango goi mailako ikasketak egiteko aukerarik. Homen guztiaren arabera, espero izan zitekeen oinarizko ikasketak egin eta ondorengo pausoa lan bat aurkitzea izango zela. Eta hori onenean, zeren eta ikasketa gutxi horiek ere ez baitziren gutxi izango idazleak ezagutu zuen inguruan. Hala ere, nahiz eta garai hartan gizarte desberdintasunak handiak izan, Donostiara zetorren turismoaren diruak, nolabait, Eugenio gazteari zenbait ate irekiko zizkion. Donostiako Udalak baliabiderik ez zuten gazteen artean ikasketak egiteko diru laguntzak banatzen zituen, eta Imazek horrelako beka bat eskuratzea lortu zuen. Diru horrekin Madrilgo Unibertsitate Zentralean —Euskal Herriko unibertsitateak oraindik urruti zeuden— Zuzenbide ikasketak egiteko parada izan zuen. Laguntzak eskuratzeko ezinbestekoa izan zen, zalantzarik gabe, gaztearen espediente bikaina, baina baita itzal handiko bi pertsonaren laguntza zuzena ere, biak apaizak: lehen unetik Juan Zaraguetarena eta, geroago, Xavier Zubirirena. Bi gizon horiek garrantzi berezia izango zuten Imazen formakuntzan.

Bestalde, Zaraguet eta Zubirirekin izan zuen adiskidetasuna zela medio, Donostiako intelektual talde batzuk ezagutu ahal izan zituen Imaz gazteak. Halaber, haien eskutik, ondoren, 1917tik 1932ra, Madrilgo unibertsitate giroa eta Espainiako historian garrantzi handia izango zuten pertsona ezagun ugari ezagutuko zituen, besteak beste, Emilio eta Vicente Lledo, Patricio Arnaiz, Antonio Diaz Cañabate, Joaquín Garrigues, Ramon Serrano Suñer, Jose Antonio Primo de Rivera... Horrek guztiak Eugenio Imazen pentsamenduan eta garapen espiritualean aldaketa nabaria eragingo zuen. Esaterako, laster humanismo progresista baten alde azalduko zen gaztea eta, halaber, euskal nazionalismoarekiko distantzia azpimarratuko zuen, haren

ustetan hori tokiko gauzez bakarrik kezkatzen zen eta. Horren aurrean Imazek errebindikatuko zuen humanismoa unibertsaltasun gogokoa izango zen, demokratikoa, baina baita ere sustrai erlijioso handikoa.

Europako bideetan

Behin unibertsitatean, Zuzenbide ikasketez gero eta interes gutxiago erakutsiko zuen Imazek; poliki-poliki filosofia zein literatura bihurtu ziren haren nahiak betetzeko benetako tresnak. Hala, bada, Xavier Zubirirekin Lovainako Unibertsitatera joateko eskaintzak erabateko haus-tura ekarri zion. Imazek proposamena onartu zuen, eta, ondorioz, 1918ko bukaeratik 1919ko udaberrira arte Belgikako hiri hartan izan zen. Baina, depresio sakon batek jota, ikasketak hilabete batzuetarako baztertu eta etxera itzuli behar izan zuen; idazleari gogorra gertatu zitzaion itzulera. Antza, depresioak izateko joera ez zen inolaz ere berria berarengan. Zenbait testigantza arabera, Imazen izaera nahiko aldakorra zen, eta, sarritan, haren gogoia erraz igarotzen zen ezkortasunetik baikortasunera, alaitasunetik lotsara. Hori gutxi balitz bezala, garai hartan erlijio krisialdi handia izan zuen, ordura arte sinesmen dogma bezala onartutako baieztapen asko zalantzan jarri zituen-eta, eta, hala, berezko arazoa handitu egin zitzaion. Problema psikologiko horiek izaera psikastenikoaren sintomatizat jo zituzten. Sendatze prozesua oso geldoa izan zen, eta nolabait azkartzeko helburuarekin, amaren familiak Astigarragan zuen baserrira joan zen.

1922ko udan filosofoa erabat sendatutzat jo zuten, eta, hala, Madrilen utzitako ikasketetara itzuli zen berehala. Imazek hasitako karrera amaitu nahi zuen behingoz, nahiz eta Zuzenbideak interesik ez izan harentzat. Asmo hori betetzeko, hilabete batzuetarako Filosofia bigarren mailan utzi beharko zuen. Hala, 1924ko urrian Zuzenbideko lizentziatura eskuratu zuen, baina tituluak gutxirako balio izango zion, abokatutzan inoiz ez baitzen ariko. Aitzitik, une hartatik aurrera bere gustuko lan eta ikasketei

ekiteko aske sentitu zen, eta benetan gogokoa zuen pentamendu eta hausnarketa filosofikoan murgildu zen betebetan, legeak eta kodeak betiko baztertuta.

Donostiako Udalak emaniko beste diru laguntza bati esker, eta familiak ere zertxobait lagunduta, Alemaniara joan zen ia Zuzenbidea bukatu bezain pronto. Zazpi urtean, Friburgo, Munich eta Berlingo unibertsitateetan, Xavier Zubiri lagunarekin, espezialitateko ikasketak egin zituen. Han ospe handiko pentasalariak entzuteko aukera izan zuen: Husserl, Heidegger, Einstein... Halaber, ideologia eta mugimendu naziaren igoera gertutik ezagutu zuen. Horregatik, urte haietaz idazleak egin zuen azterketa bikoitza izan zen: «la realidad más tremenda y contradictoria», idazlearen hitzetan. Alemanian bizi izan zen garai haietako dramatismoaren erakusgarri modura, Xavier Zubirik Berlingo Unibertsitatean Hitlertar Gazteen eskuetan pairatu zuen jipoa aipa daiteke. Ez ziren txantxetarako egun egokiak, jakina.

Garai berean idazleak bere bizitzan ez ezik bere etorkizuneko lanean ere garrantzi handia izango zuen pertsona bat aurkitu zuen. Berlinen Hilde Jahnke gaztearen ezauguera egin zuen, eta denbora gutxiren buruan ezkondu egin ziren. Urte haietako Alemanian ezkontza hura ez zen gauza erraza, ordea: naziek mistotzat, hau da, arraza desberdinen artekotzat jotzen zituzten elkartzeak oztopatze-ko traba burokratiko handiak jartzen zituzten. Beraz, hasieran, agintariek ezezkua eman zioten ezkontza eskaerari, espainiarren eta alemaniarren arteko ezkontzak arioen arraza nahasten zuela argudiatuta. Gauzak horrela, Imazek bere arrebari Donostian ziurtagiri genealogikoa egiteko eskatu zion. Ziurtagiria eskuratu eta euskal arrazakoa zela ondo erakutsita, bikotearen harremana legeztatuta gelditu zen nazien aurrean. Aipatzekoa da Hilde, emaztea eta laguna ez ezik, oso laguntzaile baliotsua ere izango zela idazlearentzat, batez ere itzulpen lanetan, zalantza askoren argitzailea eta azken zuzentzailea.

Dena dela, bikote gaztearentzat ez zen hori izango arazo bakarra, zeren eta Europako eta Euskal Herriko giroa ez baitzen egokiena tolerantziarako bideak jorratzeko.

Hilde, alde batetik, alemaniarra zen, eta penintsulan herri horren aurkako sentimendua nahiko zabalduta zegoen. Bestetik, emaztea eta haren senideak protestanteak ziren, eta hori askoz okerragoa zen euskaldun fededunen ikuspuntutik. Arazo horiek zirela eta, ezkontzaren ondoren Eugenio Imazek familiarekin zituen harremanak dezente hoztu ziren.

Espainiako Errepublika garaiak

Horrekin batera, Alemaniako egoera politikoa gero eta gogorragoa bihurtzen ari zen, eta laster giroa jasanezina egin zen ezkonberrientzat. Azkenik, 1932an, gazteak Alemaniatik alde egin eta Madrilera itzuli ziren. Zenbait ikerlariren ustez, Eugenio Imazek familiarekin zituen harremanak jadanik gaiztotuta zeudelako erabaki zuen bikoteak Madrilera joatea; Xavier Zubiriren etxera, alegia. Halaber, Imazen biografia ikusita, ez dirudi Donostiara itzultzea erabaki egokia izan zitekeenik haren ikasketekin eta ibilbidearekin aurrera jarraitzeko, are gutxiago Madrilen izango zituen lan egiteko aukeren berri jakinda. Dena dela, puntu horretan dagoeneko susma daitekeen gauza bat argitu beharko genuke: Imazen biografian arlo ilun edo gutxi eza-gunak badira oraindik. Adibidez, urte haietan ingelesa ikasi bide zuen eta, antza denez, Britainia Handian egon behar izan zuen, baina horretaz ez dugu informaziorik; beraz, uste hutsa da. Gerorako, 30eko hamarkadan, Mexikon egon zela dioten zenbait idazle ere badira, testiguak eta guzti aipatuz, baina horretaz ez dago inongo probarik, eta autore gehienek ezeztatu egiten dute datu hori. Filosofoaren biografia, hein handi batean, uste eta susmoen gainean eraiki da, eta horrek datu askoren inguruan zalantzak izatea dakar. Hori ere Imazen izaeraren beste ezaugarri garrantzitsu batekin lotuta dago, hau da, protagonismorik nahi ez izatearekin: nahiz eta une historikoak eta garrantzitsuak bizi izan, autorea sarritan bigarren maila batean gelditu zen behin baino gehiagotan, nolabait, itzalean eta ekintza praktikoetan mugitzen zen intelektual bezala.

Behin Espainiako hiriburuan, Imaz buru-belarri murgildu zen bertako jarduera literarioetan eta argitaletxeen munduan. Hala, 1933an, Jose Bergaminek zuzentzen zuen *Cruz y Raya* aldizkarian idazkari lanetan jardun zuen, baita Ediciones del Arbol-Cruz y Raya argitaletxearen publikazioen arduradun lanetan ere. Aurrera jarraitu baino lehen *Cruz y Raya* aldizkariaren garrantzia azpimarratu beharko genuke. Aldizkaria hiru urtetan argitaratu zen. Ideologia katolikoa izan arren, oso irekia zen, eta alderdikierietatik urrundua. Garai haietako argitalpen garrantzitsuenetariko bat izan zela esatea ez da gehiegikeria eta zenbait kritikarik *Esprit* frantziar aldizkariaren parean jarri dute, batez ere katolizismo progresista baten sorreran.

Urte berean senar-emazteen lehenengo semea jaio zen, Carlos. Halaber, *Revista de Occidente* pentsamendu eta kultura aldizkarian itzulpen lanak argitaratzen hasi zen. Itzulpengintzan Alemanian hasi zen Imaz, 1930ean. Lan horren emaitza 1932an argitaratutako lau itzulpen izan ziren: Goetheren *Pensamientos*, Hofmannen *Descartes*, T. Litten *La ética moderna* eta Tönniesen *Vida y Doctrina de T. Hobbes*. Horrelako lanak egiteko idazlea oso pertsona egokia zen, zailtzarik gabe: gaztelaniaz aparte, beste hiru hizkuntza ondo zekizkien, eta euskara ere bazekien zertxobait. Formakuntza horrek lan aukera handiak ematen zizkion, batez ere errepublika garaian, ezen urte haietan estatua berritze-ko eta mundura irekitzeko prozesu arina bultzatu baitzuten, eta jardun horretan ezinbestekoa baitzen munduko ezagupenak eta aurrerapenak gaztelaniara egokitzea. Horrek itzulpengintzara bultzatu zuen; esaterako, Poblet argitaletxearen eskutik Jungen lanak itzuli eta argitaratu zituen, *La psique y sus problemas actuales* izenburupean¹. Itzulpena —hasieran diru beharrak eragindako jarduera— berehala jakintza berrien iturburu onena bihurtu zen Imazentzat, bere obraren arlo nagusietariko bat. Itzulpen lan horiek ez ziren hizkuntz translazio hutsak, benetako moldaketak baidizk, eta horretan garbi ikusten da idazlearentzat dirua lortzeko bide bat baino gehiago izan zirela.

1934an *Diablo Mundo* aldizkarian hasi zen kolaboratzen. Argitalpen berri horretan lehenetik *Cruz y Raya* aldiz-

karian ezagututako sinadura ugari agertuko ziren. Zoritxarez, proiektuak gutxi iraun zuen, bederatziz zenbaki besterik ez baitziren agertu. Orrialde haietan, une hartako autoritarismo berria kritikatzeari gain, zenbait politikariren aurkako salaketak —Calvo Sotelo eta Gil Roblesen aurka-koak, esaterako—, eta askatasunaren zein balio errepublikanoen aldeko aldarrikapenak ere ohikoak izan ziren. Jarrera ausart eta ireki hori zela eta, ixteko presio handiak jasan zituen eta, ondorioz, hain itxaropentsua zen asmoa laster desagertu zen. Jarduera horietaz gain, Imaz beste mota askotako ekintzetan parte hartu zuen intelektuala dugu: hitzaldietan, filosofiari buruzko ikastaroetan, era guztietako solasaldietan. Laster, filosofoa oso ezaguna egin zen giro intelektualetan eta, beste zenbait intelektualetan batera, garai hartako benetako erreferente kulturala bihurtu zen.

Urte horietan Imazen pentsamenduak heldutasun handia duela oso garbi ikusten da. Horrela laburtu ditu horren oinarri nagusiak, humanismoaren inguruan alegia, Iñaki Aduriz irakasleak:

Dudarik gabe, hiru osagarrien inguruan antolatu zen: izpiritualtasuna eta Kristautasunarekin, batetik; humanismo iraultzailea eta gizakiaren duintasunarekin lotuta dagoena, bestetik; azkenik, zientzismoa, alegia, studia humanitatis delako tradizio horren barruan dagoen zientziarekin erlazionaturik dagoena.²

Idea hauek idazlearen lan gehienetan eta bizitza ekintzetan azalduko dira. Bere ideologiaren gunean gizakia dago eta horren alde dena jarriko du jokoan. Humanismoa bai, baina, jakina, zentzu pro g resista batean, beste oreka eta gizateria eskuratzeko bidean. Eta bide horretan zientzia ezinbesteko tresna bezala; azken honen ondorioz Imazek zientziaz interes berezia erakutsiko du beti, besteak beste, psikologiak, soziologiak eta ekonomiaz. Dena, utopia baten alde:

Cabría definir el humanismo de Ímaz como el compromiso del hombre con su sociedad y con su tiempo histórico, a partir de los valores del liberalismo y de la demo-

cracia, en busca de una meta final emparentada con el mundo de los valores morales o absolutos. (...) El futuro como utopía humanista.³

Edo Imazen beraren hitzetan esana, 1946an argitaratutako Miguel Unamunori buruzko artikulu batean:

O nos salvamos o nos hundimos todos. Ésta es la eternidad del momento. Abandonamos la vertiente de la individualidad para, en la topografía precisa del tiempo, proseguir la escalada por la otra vertiente, que también nos lleva hacia el pico del hombre, de blanquísimas y encendidas nieves eternas.⁴

Baina gerra sortu zuten

Tamalez, panorama hori gerra zibilaren hasierak puskatu egingo zuen erabat. Errepublikaren aurkako kolpe militararekin Espainian sortzen ari zen giro kultural aberatsa bertan behera geldituko zen eta, jakina, horrek guztiak Imazen pentsamendua, lana eta bizitza sakonki markatuko zuen. Alderdikerietatik at, Imazek hasiera-hasieratik errepublikaren aldeko jarrera hartu zuen, haren defentsa argi eta garbi bere gain hartuz eta jendaurrean horrela azalduz, batez ere ohikoak egin ziren manifestu kolektiboen bidez. Era horretan, «Altxamendu militar kriminalaren aurkako intelektual espainolak» eta «Madrilgo bombardaketen aurkako espainiar katolikoek protesta»⁵ gutun kolektiboak eta Alianza de Intelectuales Antifascistas fundazioaren manifestua sinatu zituen, besteak beste. Ibilbide berari jarraituz, 1936ko irailean, Genevan Nazioen Elkarteak antolatu zuen Intelektualen Nazioarteko Biltzarrera joan zen, Jose Bergamin eta Ricardo Muñozekin batera. 1937aren hasieran Estatu Batuetara joan zen batzorde bateko kidea ere izan zen, Estatu Batuek zuten neutraltasuna desblokeatzen saiatzeko; halaber, urte bereko ekainean, Madrilen, Bartzelonan eta Valentzian egin zen Idazle Antifaxisten Nazioarteko Biltzarrean parte hartu zuen.

Legaltasun errepublikanoaren aldeko jarrera hartze hori ez zen gauza erraza izan idazlearentzat. Imaz, nahiz

eta bera katolikoa izan, neurri handi batean kolpisten aldekoa zen Eliza Katolikoaren hierarkiak hartutako jarrenen aurka jarri zen, alde batetik. Bestetik, demokraziaren aldeko apustu hori zela medio, bere betiko lagun eta aholkulariengandik urrundu egin zen; izan ere, Xavier Zubiri, Parisen, isiltasunean, gatazkatik zeharo kanpo mantendu zen, eta Juan Zaragueta, berriz, frankistekin eta altxatutako militarrekin konprometitu zen. Urte luzeetako adiskidantza erabat puskatu egin zen gerrarekin.

1937ko udan, Imaz familia, pasaporte diplomatikoaren bidez, Parisera joan zen. Han bikotearen bigarren semea jaio zen, Victor. Parisera heldu bezain laster, Eugenio Imaz Espainiako Enbaxadan hasi zen lanean, errepublikaren ordezkari modura eta kultura eta propaganda arloko ardurak jasotzen. Erbesteratuek antolatutako ekimenetan ere buru-belarri inplikatu zen; adibidez, martxoaren 13an antolatu zen Junta de Cultura Española elkartean errepublikazaleak ebakutzeko antolatutako SERE izeneko zerbitzuan; hor, Imazek idazkari kargua izan zuen. Zerbitzu horren helburu nagusia intelektualei laguntzea zen; besteak beste, Espainiatik irteten laguntzea. Junta hartan Imaz bizitzan garrantzi berezia izan zuten beste bi intelektual zeuden: Juan Larrea bilbotarra eta, berriro ere, Jose Bergamin. Bestalde, Imaz Espainiako ordezkari batzuekin Estatu Batuetara joan zen, gerraren inguruan beste ikuspuntu bat zabaltzeko asmoarekin.

Urte horietako jarrera zalantza izpirik gabekoa izan zen. Imazek ondo asko ikusi zuen Espainiako gerra mundu-gerraren lehenengo atala zela eta jokoan zeuden interesak. Ideologiak haratago filosofoak interes ekonomiko eta politikoen enfrontamendua, norgehiagokaren jokoak hasiera-hasieratik susmatu zuen. Ikus dezagun hau *Euzko Deya*-n argitaratutako 1938ko testu batean:

Cela veut dire que l'Espagne de Franco fonctionne comme un marché colonial allemand. Qu'à cause de sa richesse en ces trésors du sol qui manquent dans le monde entier et grâce à la économie spartiate de l'Allemagne, c'est-à-dire, une économie de guerre, de préparation éventuelle à la guerre, d'autarcie, l'Allemagne emporte de sa colonie es-

pagnole, qu'elle possède d'une façon précaire tant que Franco n'est pas triomphant, le plus qu'elle peut en matières premières.⁶

Behin betiko erbestea

Errepublikaren porrota gero eta nabarmenagoa zela ikusi zenean, Junta Mexikora eramateko erabakia hartu zuten Espainiako erbesteko erakundeek. Lekualdaketa 1939ko maiatzean izan zen, eta Imaztarrak hilabete pare bat geroago joan ziren. Ameriketara ere Eugenio Imazek erakunde horietan jarraitu zuen lanean, batez ere 1940. urtean argitaratu zen *España Peregrina* izeneko aldizkarian⁷. Atzerrian zeuden intelektual espainiarren artean zubi lana egitea izan zen hedabide berri haren helburu nagusia, eta jardun horretan izen handiko hainbat pertsona aritu ziren, besteak beste, Jose Bergamin, Juan Larrea, Leon Felipe, Jose Camer, Giner de los Rios, Joaquin Xirau, Jose Gallegos Rocafull, Corpus Barga, Tomas Navarro Tomas... Bergaminekin batera, beste proiektu batean abiatu zen Imaz: Séneca argitaletxearen proiektuan. Izan ere, aipatutako talde horren barruko giroa ez zen oso ona, eta ezadostasunak laster hasi ziren areagotzen, batez ere Jose Bergaminekin. Idazle horiek komunistekiko ekintza bideak planteatzen zituen, eta gainontzekoek ez zuten horrelakorik onartzen. Ezadostasunak areagotu egin ziren Bergaminek hartutako zenbait ekimen zirela medio; itxuraz, horretarako, Juntaren diruak erabili zituen. Azkenik, taldea puskatu egin zen, eta, hala, Bergaminen eta Imazen arteko hamar urteko elkarlanak bukaera ospindua izan zuen. Haustura gertatu zenean, Larrea eta Leon Feliperen planteamenduen alde jarri zen Imaz, eta, hala, Bergaminengandik behin betiko urrundu zen.

España Peregrina aldizkaria bertan behera utzi eta beste proiektu handinahi bat sortu zuten elkarrekin gelditu ziren intelektualen artean: *Cuadernos Americanos* aldizkaria. Argitalpen berri horrek Atlantikoaren bi aldeetako hispaniar kultura bildu nahi zuen. Orduan ere Eugenio

Imaz aldizkariko Zuzendaritza Biltzarreko kidea izango zen. Ameriketako beste aldizkari askotan ere idatzi zuen: *Las Españas*, *El Hijo Pródigo*, *Letras de México*, Mexikoko *Litoral*, *La Nación*, Venezuelako *Cultura Universitaria*... Halaber, FCE Fondo de Cultura Económica argitaletxean hasi zen lanean, hainbat libururen hitzaurreak eta itzulpenak prestatuz eta, oro har, FCE barruan horrelako lanen ardur hartuz. Fondo de Cultura Económica 1934an sortu zen, Daniel Cosío Villegaren ekimenez. Beste argitaletxeetan ateratzeko zailtasunak zituzten gizarte zientzietako liburuak eta liburu teknikoak argitaratzea izan zen hasiera-hasieratik haren helburua. Lan asmo horietan buru-belari sartu zen idazlea: berrogei liburu itzuli zituen, besteak beste Dilthey filosofoaren idazlan guztiak. Bestetik, hasiera batean lan apalagoak ziren hitzaurreak eta glosak oinarritzko material bezala erabiliz, beste liburu batzuk idatzi zituen. Batzuk aipatzeagatik, hona hemen zenbait izen: Max Weber, Erich Auerbach, Leopold von Ranke, Edward Kirkland... Hala, 1945ean *Asedio a Dilthey: un ensayo de interpretación* argitaratu zuen, eta urtebete geroago, *El pensamiento de Dilthey. Evolución y sistema*. 1946an bertan *Topía y Utopía* liburua agertu zen, hori ere aurretik argitaratutako beste artikulu eta saio batzuen bilduma.

Imazek, beste aldetik, ez zuen baztertu irakaskuntza, eta zenbait ikastetxe eta unibertsitatetan horretan jardun zuen. Hasteko, Academia Hispano-Mexicana zentroan lan egin zuen. Ikastetxe hori gazte erbesteratuen formakuntzarako antolatu zuten, eta Mexikoko garantzisuenetariko bat izatera heldu zen. Imazen lan unibertsitario nagusia gero Colegio de México izango zen Casa de España-n borobildu zen. Jarduera pedagogikoaren barruan, Historia eta Antropologia ikasgaiak irakasten gailendu zen Imaz. Ondoren, Mexikoko Unibertsitate Autonomoaren Filosofia eta Letretako Fakultatean aritu zen; Filosofia katedran, hain zuzen. Lan hori ez zen bigarren mailakoa Imazentzat, eta hori oso garbi ikusi zen 1945 eta 1946. urteetan; izan ere, urte haietan, Fondo de Cultura Económica etxeko lana utzi ondoren, Venezuelan Caracasko Unibertsitate Zentraleko sortzeko lanetan lagundu zuen, berriro ere Filosofia eta Letretako Fa-

kultatean, oraingoan Psikologia irakasle modura. Bi urteko esperientzia horretan David Garcia Bacca nafar filosofoarekin abiatu zen. Dena dela, Venezuelara joateko erabaki hartan, antza denez, FCE barruan izandako arazo eta eztabaida batzuek ere eragin handia izan zuten, batez ere proiektuaren burua zen Daniel Cosiorekin izan zituen tirabirek.

Venezuelako bi urte haiek aberatsak izan ziren, eta Imaz pozik zegoen herri hartan egiten ari zen lanarekin, baina, zoritxarrez, egoera politikoa okertu egin zen berehala, eta Imazek berriro ere Mexikora itzuli behar izan zuen. Horretarako, arazo burokratiko dezente izan zituen, egoera politikoa aldatuta baitzegoen, baina lagun batzuen bitartez, bereziki Alfonso Reyesen laguntzarekin, lortu zuen itzultzeko baimena. Bisa eskuratu eta berriro Mexikon zela, FCE argitaletxeko lanari berrekin zion. Baina proiektu kultural horretan gogotsu aritu arren, poliki-poliki uzkurdua indartzen ari zitzaion nortasunean. Bigarren Mundu Gerraren amaierak ez zuen ekarri erbestertuek espero zuten frankismoaren behin betiko gainbehera. Aitzitik, militarrek ezarritako erregimen diktatoriala gero eta erosoago mugitzen zen nazioarteko panoraman, komunismoaren aurka zuen jarrerari esker. Aldi berean, Francok gupidarik gabe zapaltzen zuen erregimenaren aurkako barruko disidentzia guztia. Espainia demokratiko batera itzultzeko itxaropena itzaltzen ari zen, eta gero eta garbiago ikusten zen egoera ilun hura asko luzatuko zela.

Bestetik, Imazen arlo pertsonalean ere gauzak ez zeuden oso ondo, eta hor ere gerra erabakia zerikusirik handia izan zuen. Indar aliatuek negoziatutako Alemaniaren zatiketaren ondorioz, Hilderen familiak zituen ondareak sobietarrek okupatutako Berlingo gunean gelditu ziren eta, beraz, Imaz familiak haiek berreskuratzeko zuen esperantza betiko galdu zuen. Ondare haiekin batera, beste bizimodu baten itxaropena ere desagertu zen, eta, hala, egoera ekonomiko latza areagotu. Egoera eta garai haietako ezkertasuna oso garbi azalduko zen filosofoaren idazlanetan.

1950. urtea zen. Imaz oso nekatuta sentitzen zen, erbesteratua erbestean. Gerra aurreko bizimodua eta herria berreskuratzeko aukera guztiak galtzen ari ziren. Halaber,

Puerto Ricoko Unibertsitatera joateko gestio guztiek porrot egin zuten. Ondorioz, idazleak berriro ere beste krisialdi psikologiko larri bat izan zuen, eta 1951ko utarrilaren 28an bere burua hil zuen. Gertakizun horretaz oso datu gutxi daude, eta familiak berak bertsio desberdinak ematen ditu. Suizidioa beti tabu bat izan da, eta, jakina, are gehiago orain dela urte batzuk. Erbesteak idazlea garaitu zuen. Urte hartan, omenaldi gisa, Imazen lagunek haren lanak bildu eta *Luz en la caverna* liburua kaleratu zuten. Liburua omenaldi bat izatea nahi zuten, baina baita donostiarra familiari laguntzeko modu bat ere, zeren eta Eugenioren heriotzarekin emaztea eta hiru semeak —zaharrenak hemezortzi urte zituen— oso egoera txarrean gelditu baitziren. Kalteak, dena dela, ez ziren ekonomikoak bakarrik; horrela azaldu zuen orain gutxi Carlos Imazek, filosofoaren bilobak:

Seme batentzat oso gogorra da. Lehen, hitzaldian, mahai-kideetako batek oso esaldi polita esan du: maitasunez hil zela gure aitona. Beharbada egia izango da, baina jar zaitetz semeen lekuan, eta badago galdera saihestezin bat: ez al gintuen bizitzan aurrera jarraitzeko beste maite? Gure maitasuna ez al zuen aski? Mina izugarria izan zen.⁸

Balorazio bat

Eugenio Imaz behin desagertuta, gerra ondoren gaztelaniaz idatzi zuen saiakeragile nagusietariko bat desagertu zen, Fondo de Cultura Económica argitaletzeko itzultzaile garrantzitsua, Alfredo Krauzeren hitzetan⁹, eta, aldi berean, atzerrian pentsamenduaren inguruan egin zitekeen lan garrantzitsuenetariko bat burutzeko aukera ere galdu zen. Bere heldutasunean hil zitzaigula esan daiteke, bere pentsamendu filosofikoa haren osotasunean egituratu gabe, nahiz eta Imazek idatzitako lan guztien azterketatik pentsamendu horren aberastasuna eta sakontasuna modu errazean islatzea izan.

Humanismo kristauaren eta pertsonalismo filosofikoaren gertuko intelektuala; pentsamendu alemaneko eta in-


geleseko hainbat testu funtsezkoen itzultzailea, eta batez ere Wilhelm Diltheyren obrarena; zenbait kultur argitalpeneko kolaboratzaile garrantzitsua, bai gerra aurretik bai erbestean, Imaz erakargarritasun bereziko pertsona dugu, kontrastez beteriko eta zailtasun handiko urte haietan. Imazen obra bere garai eta patuarekin konprometitutako pentsalari eta militante baten testigantza modura geratu zaigu.

Zoritzarrez, euskal erbesteratu gehienek pairatu duten ahanztura ere jasan zuen pentsalari donostiarrak. Idazlearen heriotzaren ondoren, urte gutxiren buruan, isiltasunaldi luze bat etorri zen, baina ahanzturaaldi hori nolabait eten egin da Jose Angel Ascunce, Jose Luis Abellan eta Iñaki Aduriz irakasleei esker. Imaz berreskuratzeko asmoarekin, idazlearen lan guztiak berrargitaratuko dira hiru tomatan¹⁰, eta, hala, ikerketa lanak hasiko dira, besteak beste, Imazen obra eta pentsamendua ezagutzera emateko. Saiakeragile donostiarraren biografia ezagutzeko ezinbestekoak dira bi kritikariren lanak aztertzea. Jose Angel Ascunceren *Topías y utopías de Eugenio Ímaz*¹¹, eta Iñaki Adurizen *Eugenio Imaz: una filosofía de la vida*¹² tesia, bestetik. Artikulu labur honetan jasotako oinarritzko datuok, hein handi batean, bi iturri horietatik datoz.

Beraz, Eugenio Imazen lanak eta ondarea berreskuratzeko egin diren lanak eta ikerketak handiak izan dira oso. Ondorioz, horri guztiari esker, gaur egun Imazen pentsamendua berreskuratu baino gehiago ikertu eta aztertu egiten dugu. Izan ere, jarduera horiek guztiek hain intelektual handia izan zen eta hainbeste eman zezakeen idazlea ez digute berrituzuliko. Baina haren oroimena, testigantza eta ausardia behintzat ez daitezela gal. Gutxiago ez baitu merezi.^o

1. Madril-Buenos Aires, 1935.
2. *Eugenio Imaz: bizi konpromisoa*, Saturraran argitaletxea, Donostia, 2000, 96. or.
3. Ascunce, Jose Angel: «Humanismo y ciencia en el pensamiento de Eugenio Ímaz», Ascunce, J.A. eta Zabala, J.R.: *Eugenio Ímaz. Asedio a un filósofo* liburuan, Saturraran argitaletxea, Donostia, 2002, 285. or.
4. «Miguel de Unamuno», *Topía y utopía* liburuan jasota, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1988, 139. or.
5. «Los intelectuales españoles contra el criminal levantamiento militar» eta «Protesta de los católicos españoles contra el bombardeo de Madrid».
6. 101. zk., Paris, 1938ko martxoaren 27an. Faksimile-edizioa, I. tomoa, Ediciones Vascas, Donostia, 1979, 426. or.
7. Argitalpen faksimilea, Alejandro Finisterre editorea, Mexiko, 1977ko abuztuan.
8. Eskisabel, Idurre: «Carlos Imaz. Eugenio Imazen biloba eta Mexikoko PDRko buruzagia», *Eugenio Imaz. Asedio a un filósofo* liburuan, op. cit., 73. or.
9. «El Fondo y Don Daniel», *Libro conmemorativo del Primer Medio Siglo del Fondo de Cultura Económica (1934-1984)*, FCE, Mexiko, 1984, 18. or.
10. *La fe por la palabra*, *Topía y utopía* eta *Luz en la caverna* (J.A. Ascunce biltzailea, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1989, 1988 eta 1988 hurrenez hurren). Testu hauek beste tomo batekin osatu ziren, *En busca de nuestro tiempo* (I. Aduriz biltzailea, J.A. Ascunce editorea, La Cultura del Exilio Vasco bilduma, Eusko Jaur-larritza, Donostia, 1992).
11. Anthropos, Bartzelona, 1991.
12. Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1995.

Historia bizia



LUCIEN ETXEZAHARRETA
Jean Louis Davanti elkarrizketa

43

Jean Louis Davanti elkarrizketa

b

LUCIEN ETXEHARRETA

b

*J*ean Louis Davant-Iratçabal, Zuberoa Pettarreko Ürrüstoi-Lambilen sortu zen (erdaraz *Arast-Lane - bieu*) 1935. urteko uztailaren Sean, Zabalain etxean, laborari-artzain familia batean. Aita bertakoa, ama (Iratçabal) Basabürüko Altzai herrikoa.

Ikasketak Ürrüstoiko eskolan, lehen mailan egin zituen, gero Maulen eta Uztaritzen. Laborantza ingeniarietza ikasi zuen Frantzia behereko Angers hirian. Aljeriako gerla garaian han egon zen soldadu Saharako bazterretan 27 hilabetez (1958.eko irailetik 1960.eko abendura arte). Geroztik agronomia irakasle egon zen 35 urtez Hazparneko Laborantza Eskola giristinoan, lanetik erretiratu arte 1995.eko irailean.

1961.ean ezkondu zen Jana Idiart Amendüzeko amikuztarrarekin. Bi alaba ditu, Maddi eta Xantiana.

1957.etik agertu zen idazle militante, Gazte, Herria, Enbata, Euskaldunak, Egia, Branka, Zehatz, Zabal, Jakin, Heriz-Herri eta beste aldizkari batzuetan. Artikulu asko idatzi zituen nekazaritza, ekonomia, soziakunde, politika, historia, kultura gaiez.

Enbata mugimendu politiko abertzalearen sortzaileetarik da eta parte hartu zuen 1963.eko apirilaren 15eko lehen Ipar Euskal Herriko Aberri Egunean Itsasun, alderdiaren izenean ekonomiaz hitz eginez eta lehen zuzendaritzako partaide bezala. Beranduago EHAS, Euskal Herriko Alderdi Sozialistaren sortzaileetarik izan zen.

W Lucien Etxezaharreta kazetaria da.

Politikaren bideak utzirik, literaturaren munduan sartu zen 1980.ean, bereziki poesian, olerkian. Mendeko azken hamarkadan pastoralari eman zen gehienbat eta bost ditu idatziak. Literatura lehiaketetan hainbat sari jaso zituen ere.

Kazetaritza munduan darrai, euskal prentsan zutabeak eta iritzi artikuluak emanez, baita ere Zuberoako berriak Herria astekarian jarritz. Euskaldunon Egunkaria-n, Argia-n eta Enbata-n iritzi artikuluak jartzen ditu erregularki.

Zuberoako euskalkiaren izenean, Euskaltzain Oso izen-datua zuten 1975.ean. Sartzeko mintzaldia egin zuen 1976.eko abuztuan Mauleko udaletxean, Abadia eta Xaho zuberotar euskaltzaleez.

Solasaldi hauek eramanak izan dira partez Beloken, frailetxean, bilkura baten ostean, eta bestalde Aizagerrian, bere etxean, Ürrüstoi-Lamabilen, Zuberoan, 2002ko maiatz-ekainean.

Sortu zinen zuberotar baserri munduan Larrabilen eta zure lehendabiziko seaska izan zen laborantza mundua.

Laborari etxe batean sortu nintzen eta herritar gehienak laborariak ziren, beraz laborari mundukoa naiz. Behi eta idiekin lan egiten zen, mekanika oso guti zen. Kabalek erabiltzen zituztenak, motorrik ez, salbu gari joiteetan: hala-ko traktore bat, bapozkoa, ura eta egurra sar eta bota ke!

LEHENGO ZUBEROA

Mundu hori gaur mitikoa da: jendeen elkartasuna, galdu den solastatzea, zuk ongi ezagutu dukezu.

Oinez ibiltzen zen jendea, salbu Maulera joateko. Jendea pasatzen zen bere behi eta idiekin, orga edo gurdien aitzinean edo beste edozein tresnarekin. Norbaitekin topo egiten zelarik, geldi eta hitz egin. Horrela zen. Gero, asko elkar laguntzen zuten, denak eskuz egin behar baitziren eta hor ere mintzatzeko aldia bazen. Orain, traktore edo autoarekin ezin da hitz egin. Orduan asko hitz egiten, kantatzen ere, asko txistuz ere egiten zen. Azken pastorelean ikusi da kantu bat txistuz bukatzen zutela. Orduan, hazienden ondotik, kantuz edo txistuz ibiltzen ginen. Hori zen: eleak eta kantuak toki handia zuten gure bizitzan.

Elkartasun hori egiazkoa zen auzoen artean, elkar laguntze hori?

Bai, bai. Gero baziren kexaldiak eta horrela, auzoen artean, baina elkar laguntzea bazen. Gero ez auzo guziekin berdin, batzuekin guti eta besteekin asko. Dolu edo eztei edo horrelakoak zirelarik, lehenbiziko auzoak zuen beraz toki handia laguntzeko. Edozein izanik! Hura ez zen hautatzen: horrela zen eta bakoitzak berea betetzen zuen.

Euskararen mundua zen ere. Elebidunak zineten, menturaz biarnesa hitz eginez?

Ez, gu batere ez. Osoki euskaldunak ginen. Ni oroz gainerik euskalduna naiz: sei urteetan ez nekien euskaraz besterik eskolan sartu nintzelarik. Aitamekin eta haurriderekin, behin ere ez dugu frantsesez egin etxean. Herrian ere,

oso guti. Frantsesez egiten genuen eskolan, eta kito! Elizan, meza latinez zen, predikuak eta kantu gehienak euskaraz.

u
«Sei urteetan ez
nekien euskaraz
besterik eskolan
sartu nintzelarik»

Zubereraz naski, baina ez genuen ez «Zuberor» ez «zuberotarrik» aipatzen: hori Etxahun Iru r i rekin hasi da, Euskal Herria zen Zuberor eta Euskaldunak ginen zuberotarrak edo alderantziz. Hala ere inguruko euskalkien aprendizgoa egin nuen biziki goizik. Eskolara joaten ginen Larrabletik Ürrüstoir, bide luzea zen eta Ürrüstoin bazkaltzen genuen eguerdi guzietz Abadia etxean. Han ziren etxetiarrak Xala familiakoak eta haiek

amikuztarrak ziren, eta beraz Amikuzeko euskara puska bat egun guzietz entzuten genuen. Bestalde, auzo bateko familia Garazitik jina zen, aita Ezterenzubikoa, ama Duzunaritzekoa, eta hamabi haur bazituzten. Zaharrenak gure adinekoak ziren eta haiekin ibiltzen ginen eskolan, katiximan eta elizan, eta gainera, eguerdi guzietz, haiek ere gurekin jaten zuten Xala familian, Abadia etxean. Beraz, Garaziko euskara ere haurretik entzun dugu egun guzietz. Gainera kusiak bagenituen Uztaritzen, izeba Hazpamen. Hau amaren ahizpa zen, zubereraz egiten zuen, Altzaikoa zen. Uztaritzeko kusiek egiten zuten hango euskar, hura entzuten genuen ere udako oporretan. Beraz, erraten ahal da Obelix bere salda magikora bezala, euskararen barnera erori nintzela jaiotzean, erdiz erdi. Beraz, hori da zinez ene aberria, euskara, zuberera lehenbizi, baina inguruko euskalkiak ere bai.

Nolako familia zen zurea?

Bigarrena nintzen, anaia zaharrena etxean laborari plantatu zen eta han dago bere familiarekin; ondotik arreba bat, Muskildira ezkondua laborari etxe batera. Laugarrena, anaia, zortzi urtez ni baino gazteagoa, ene ber ikasketak egin zituen, emaztea Galiziakoa duena eta han daude orain.

Familia, orduan, erre f e rentzia nagusia zen, elkarre n a rteko atxikimendu eta biziarekin.

Orduan familia zinez indartsu zen, bereziki laborari munduan. Ez zen dibortzio edo holako gauzarik. Gainera,

hiru edo lau belaunaldi ber etxean bizi ziren. Gure etxean, hiru Aitatxi ez dut biziki ezagutu, hiru urte et'erdi nituen hil zelarik. Aitzineko mendean sortuz zen, 1856an, beraz Pétain marexalaren ber urtean. Napoleon III.aren denboran. Amatxi ongi ezagutu dut, hamazazpi urteak beteak nituen zendu zelarik, eta hura 1863an sortua zen. Zaharren euskara entzun dut, XIX. mendekoa, eta hura euskara zela!

Historiaz zaletasuna agertzen duzu zure norabideetan. Gogo hori agertzen zen zure etxean, menturaz 14ko Gerlaren oroitzapenekin: ezagutu dituzkezu hango soldadu ohiak baita beste Gerlaren garaia ere.

14ko Gerla biziki aipu zen. Urrun iduri zitzaigun baina hogeitau urte aitzinetik pasatua zen doi-doia! Gero, gerla denboraz oroitzapen batzuk baditut eta bereziki bururatzerara, makien oroitzapenak.

Zure denboretako erlijioaren bortizkeria gaurregun asko aipu da, heriotzaren beldurrean hazten zirela haurrak eta abar. Zure haur denbora horrek markatu du?

Ez dut erlijio bortitza ezagutu. Guk erretore xahar bat genuen. Gauza batzuk entzun ditut nik baino hamar bat urte gehiago dituzten batzuegandik. Apez horrek bere karrera guzia, errateko maneran, Ürrüstoin egin zuen, eta bi Gerla handien artean frango, ez dut erranen bortitza, baina tinkoa zen. Igande arratsalde herriko gazteak begiztatzuten zituen ez zitezten plazatik bazter eta horrelako gauzak. Erronda batzuk egiteko baztertzen ziren, iduriz hori ere ez zitzaion ongi. Gure denboran ezitzen hasia zen. Gauza harrigarri bat erran zigun behin katiximan: gose zelarik, ebastea ez zela bekatu! Bistan da, guretzat, ebastea gauza itsusia zen. Hori egon zait oroitzapen bezala. Gero, erregetiarra zen baina ez zen jansenista. Erregetiarra eta ingelesak hastio zituen, ez dut erranen alemanen aldekoa zela, baina Pétainzalea bederen, bai.

Eskolara joan zinen sei urtetan, gerla denboran. Jakitatearen gogo hori bazenukeela orduan pentsatzen ahal da zure bidea ikusirik, ikasle xintxoak zinela!

Biziki laster irakurtzen ikasi nuen zeren eta jakin nahi nuen liburuetan zer zen! Handien liburuak miatzen nituen eta bereziki han Historia irakurtzen nuen. Biziki maite nuen.

Mitikile Ürrüstoitik hurbil dela eta Matalazen historiaz mintzo zen?

Ez naiz oroitzen noiz aipatu zuten Matalaz, baina Et-xahun Iruriren *Matalaz* pastoralara izan zen. Eskiulan eman zuten Etxahunen lehenetarik zela hori aipatu zen bistan da. Gero, abertzaletasuna gehienik aipatzen zuena Marc Legasse zen, zeren eta bere *Horrago* etxera heltzen zitzaigun artetarik. Jon Miranderen trakt bat ere, 51ko uztailaren 14 arratsaldean, auto beltz batek, orduko Citroën beltz haietarik batek bota zuen burrustan gure etxe ondoan pasatzean eta irakurtu genuen. Agertu da geroztik Miranderen idazlan hautatueta. 16 urteak banituen orduan, paper horretan Errepublikaz, Frantziatz, trufatzen zen, erraten zuen «euskaldunak euskaldun ginela eta kito!».

Eskolak nola eraman zenituen gero?

Lehen maila Ürrüstoin, gero Bigarren Maila Maulen eta hor pasa nuen lehen «Baxoa». Bigarren parte, filosofia, Uztaritzen egin nuen eta hango izeba eta kusien etxera erretiratzen nintzen arratsetan. Gero, zerbait egin nahi nuen laborantzari buruz eta hautua nuen Purpan, Tolosa aldean, eta Angersen artean, eta hau hautatu nuen. Orduan omen handiagoa zuen, nahiz biak jesuiten esku ziren.

Denbora horietan sendi zitekeen jadanik laborantza kanbiatzen ari zela, etxeak husten. Halako kanbiamendu handietara zihoala Euskal Herria sumatzen zenuen?

Lehenbiziko kanbiamenak usnatzen ziren. Lehen etxe bakoitzean mutil bat baitzen, etxe onetan biga, haiek desagertu ziren. Hiritara joan ziren, Bordele, Parisera, edo Maulen espartinan hasi. Beraz, laborari etxeak mutilik gabe gelditzen hasi ziren. Keinu batzuk baziren laborantza aldatuko zela.

Laborari ttipi asko espartinan hasi ziren gerla ondo horretan. Baserria atxikiz, baina lantegian ere ibiliz. Bere-ziki gazte batzuk, mutil joateko orde.

Maule Zuberoako hiri nagusi zenaz gero herri txiki bateko laborari semearentzat nola ikusia zen?

Orduan bazuen fama, orain baino gehiago zen. Orain hiru mila et'erdi biztanle dira. Ordu hartan bost milako bat jende bazuen. Guretzat hiri bat zen. Ez da dudarik. Bi zinema baziren, gainera jendea han frantsesez mintzo zen eta hango mutil «tzarrek» erran dezaket, ikusten gintuzte-larik gure bonetekin eta Maulen sartzen, «paysans» erraten ziguten! Euskaldunak ginen eta «paysan» hori halako mes-pretxu batekin.

Erdaldun mundu bat nagusitua zitekeen beraz Euskal Herriko hiri nagusi askotan bezala seguraski, baina ba al zen halako antagonismorik euskaldun eta erdaldunen artean?

Bai, zeren mauletarek euskara galdu zuten. Ene adineko industrialen semeek eta gurekin ibiltzen zirenek kolegioan, baina haiek sehiak bazituzten, euskaldunak, manatuak zirenak euskaraz egitera haurrei eta euskara en-telegatzen edo ulertzen dute ene adinekoek. Gero, Maulen bazen kolonia handi bat He-goaldetik jina, Aragoitik eta euskara galdua zuen Nafarroa garaitik, Erronkaritik. Aragoitarren giroa zen hor nagusi. Mauletaretarik herena handik etorria da edo handik etorrien ondokoa. Haiek frantsesa ikasi zuten, ez euskara. Haiek ziren frantzimantenak eta frantseszaleenak eta «paysan» erraten zigutenak.

u
«Maulen
‘paysans’
erraten ziguten
halako
mespretxu
batekin»
u

ESKOLA BIDEAK

Zure ikasketen bidean Angersera joatea izan zitekeen haustura bat. Euskal Herritik urruti, ez baitzinen maiz itzultzen.

Hala da. Eguberri eta Pazkoko oporretan etortzen nintzen eta udan. Baina udaren parte handi bat pasatzen genuen *stage* edo ikastaldi batzuen egiten baserrietan edo laborantzako erakunde batzuetan, eta gero txosten handi bat egin behar genuen horretaz. Udaren erdia kanpoan eta beste erdia txosten horren idazten! Beraz, hiru urte bete-beteak, lau balio zituztenak!

U rrunduz geroztik, beti hori gertatzen dela eta, sortemari buruz beste begirada bat eman zenion, ala bazenuen jadanik ikuspegi bat Euskal herriari buruz, erratend bezala «politizatua» al zinen, Aljeriako gerla hasia ere zela?

Gerla 1954an hasia zen, ni Angerseko eskolan sartu nintzen urtean. Politizatua? Erran dizudan bezala Legassen *Hordago* hori urtean bizpahiru aldiz heldu zitzaigun, Miranderen trakta aipatu dizut, gero Maulen bazegoen Ixuregi, euskaldun bat, euskaltzalea eta abertzalea! Hark PNVko kazetak eta ukaiten zituen, hura zen *Euzko Deya* orduan, agerkari bat, hura pasatzen zidan. Beraz, zerbaiten hastapena banuen. Gero, Angersen politizatu nintzen Aljeriako gerlari begira. Egia erran, oso ikuspegi kontra-jariak nituen: batzuetan, pentsatzen nuen bai Aljeria Frantziako zati bezala atxiki behar zela, aitzinamendua eta Frantziak ziola ekartzen. Eta, Euskal Herrira etortzen nintzelarik, Ixuregik eta ene anaia gehienak, aita ere berdin erraten zidan, «baina hura kolonia bat da, euskaldunak bezala dira eta libro utzi behar dute!». Horrela, bilintzi-balantza ibiltzen nintzen bi ikuspegien artean.

Abertzale eta euskaltzale bezala, ez da dudarik haustura zerbait jasan zenuela. Aljeriara joan zinen ikasketak burutu orduko!

Lehenbizi, Angersen bazen liburutegi handi bat, Jesuiten eskolan, eta hor hauteman nuen Philippe Veyrin-en *Les Basques* hori eta biziki liburu ederra iduritu zitzaidan. Oraino ere Iparraldearen ezagutzeko, liburu hoberenetarik da. Hor Iparraldeko Historia ezagutu nuen edo ezagutzen hasi eta hori enetzat gauza handia izan zen, ene bihurgu-nean asko lagundu ninduen.

Gero, Aljeriara joan nintzen. Lehendabizi ikastaldi bat egin nuen Garroan, Lekornen, Angerseko eskola utzi eta. Ontsalaz aitzinetik egin behar nuen *stage* hori, urte batez. Hartarik libratu ninduten baina, ene baitatik, ondotik egin nuen ikastaldi hori. Aljeriara joan nintzen 1958.eko udan, eta 60ko udazkenean itzuli nintzen etxera.

ALJERIAKO GERLA

Sahara alde horretan egon zinen, deabrua ikusirik seguraski, hemengo batentzat hango beroa dorpe izan baitzitekeen besteak beste: nola iragan zen?

Lehenik «klaseak» egin nituen Aljer hiriararen ondoan. Beni Messous-en. Batzuek klase horiek Frantzian egiten zizuzten, hamalau hilabeteko bat eta beste hainbeste Aljeriaran gero. Ni zuzenean hara bidali ninduten. Port Vendrestik ontziz joan nintzen. Joate hura ez zen gogorra izan. Beni Messousko kanpo zelai famatuan lau hilabete klase izan ziren. Hor euskaldun andana bat baginen eta elkar ikusten genuen bereziki igandetan; mezara joaten ginen eta gero a rratsaldean ere biltzen, batzuk musean aritzen ziren eta hola. Gero, bakarra, igorri ninduten Sahara eskualde hartara eta han kasik bi urte pasatu nituen. *Train* delako arman nintzen, beraz, hori bederen ekarri dut handik!, gidatzeko baimena, kamioi gidatzen ere ikasi nuen, baina geroztik ez dut inoiz baliatu. Saharan *jeep* delakoekin ibili ginen pistetan. Lehenbizi egon nintzen sei hilabete Uarglan. Hassi Messaudetik 80 bat kilometrotan da. Gero, handik 150 km iparraldera, Tuggurtera, eta han egon naiz abantxu urte et'erdi. Hori Aures mendietarik 250 km-tan dago. Tunisiako mugatik ere ez da urrun.

Hor gerlarekin topatu zinen?

Gerla, biziki guti ikusi dut. Han, toki lasaia zen. Etsai nagusia beroa zen: 56 graduraino ikusi dut itzalean! Baina toki baketsua zen eta horrek esplikazioak baditu: aitzineko urtean *felaga* deitzen genituen haiek entseatu ziren hor plantatzera eta Bigeard famatu hark egun zenbaitez eskualde guzia «garbitu» zuen, zeren eta ez zuten ezer egite-rik desertuan. Desertuko harea elurra bezala da: hatzak

ikusten dituzu, airekoek, hegazkinek dena ikusten dute eta oasi edo ur iturriak kontrolatzen dituenak denak kontrolatzen ditu. Bistan da, Frantziako armada indartsu zen han eta besteetan. Mendia nekez kontrolatzen bazuen, desertua arras ongi. Gainera, erraten zen, eta badu kanore, mendietako felagak hara pausatzeraz etortzen zirela atsedendietara. Han ez zen ezer gertatu ni egon nintzen denbora guzian. Beraz, arrazoiak bazituzten. Ene lagun bat, Jean Hiriart, Kabiliako mendi gorenen artean egona da eta haiek ere ez zituzten erasotzen berak ondoan ezkutatzeko baitziren. Errana da ohoinak ez duela oilorik ebasten lehen auzoan, urrunago joaten dela! Beraz, felaga haiek ere beren abantailak bazituzten Tuggurt eta Uarglan zegoen bake horretan.

Etxera itzultzeko «permisioneak» ere baziren...

u
«Aljeriako egoera berehala ikusia zen, hura ez zela Frantzia, eta Frantziarentzat hura galdua zela»

Bat ukan nuen, hogeita hiru egunekoa, 60ko Pazko irian, apirilean. Ene ateraldi bakarra izan zen. Denbora hori iragan nuen jendeen ikusten, askazi eta adiskide eta lagunekin.

Pentsatzekoa da horrelako egonaldi bat gogoeta garaia izan zitekeela. Idazten, gutunak egiten, irratia entzuten, nola iragan zenuen denboraldi hori?

u
Asko irakurtzen nuen, guti idazten, arras guti. Behin idatzi nuen *Gazte* hilabetekarian, euskaraz bistan da, hango egoeraz eta berehala ukan nuen ahapaldi bat izeba bategandik eskubidea ba ote nuen soldadu nintzela eta idazteko! Orduan gelditu nintzen: hura ohartu bada beste batzuk ere ohartu daitezke. Zeren gainera «Sécurité Militaire» delakoan ginen talde ttiki bat, «détaché» erraten zen bezala, *train* armak prestatzen zituen auto gidariak eta idazkariak horrelako zerbitzuei eta bereziki SM delakoari. Gu hiruzpalau ginen Uargla eta Tuggurteko SM delakoan. Han ez genuen arriskurik hartu behar, bistan da.

Pentsatzen ahal da zure dudak, han, Frantzia egon behar zenez Aljerian, galdu zenituela. Ohartu zinen beste herri bat zela eta beren eskubideak zituztela edo berdin mintzatu hango abertzaleekin?

Ez, hango abertzaleekin mintzatzea... Badakizu haiek nola mintzarazten zituzten! Onez onean mintzatzea ez zen posible. Gero, Tuggurten zinemara joaten ginen igande arrats guziez. Han gazteak bazeuden, baina oso gazteak, hamasei-hamazazpi urteko mutikoak, eta haiekin mintzaten ginen baina ez genuen politikarik aipatzen. Baina hango egoera berehala ikusia zen, hura ez zela Frantzia, eta Frantziarentzat alde hura galdua zela. Hori begien bistakoa zen.

Bakarra zinen horren pentsatzeko zure taldean, batzuek alderantziz pentsatzen zuketean?

Ene taldean hori pentsatzen zutenak baziren, bereziki bi komunista baziren enekin Sécurité Militaire hartan eta nik erran nien sustut, orenen gainetik ez errateko komunistak zirela. Autoa horiek gidatzen zuten eta nik idazkaritzan lan egiten nuen. Bata hargina zen eta ez zuen idazkaritzako gogorik. Erran nien ez erratea zer pentsatzen zuten.

BORTIZKERIAREN ZORIGAITZA

Toki baketsuan izan arren, hala ere bazenuen beste alde batzuetako basakerien berri ala gertakarien bertsio ofizialarekin zineten?

Gauzak filtratuak ziren. Baina nik, idazkari bezala, paper batzuk pasatzen ikusten nituen. Bereziki, gure auzoan ziren Aures mendietan, izugarrizko eskandalua gertatu zen soldadu zen errient batek Frantziako kazeta batean agertu baitzituen han gertatzen ziren itsuskeriak. Orduan, alimalako dossier bat bazen Sécurité Militaire hark egina eta horretan hark erraten zituen gauza guzieren aurka argumetuak baziren! Ez zen erraten gezurrak zirela, baina zer erantzun behar zitzairen. Lerroen artean edozeinek asmatzen ahal zuen egiak erran zituela. Gero, ene lanean hurbi-

lagotik ikusi ditudan gauza batzuk ez ditut aise aipatzen ahal, hitza eman bainuen eta sinatu ere nuela. Gertuko it-suskeriarik ez dut ikusi, jakin, bai. Bereziki, gure buruzagi izan ofizier bat joan zen DOP delako zerbitzura. DOP hori zen presonerak galdezkatzen zituen zerbitzu berezia, eta ene buruzagi batek halako txosten bat egin zuen nola bi preso torturapean hil zitzaizkion gure ofizier ohi hari. Ez Tuggurten baina handik 50 km-tan, Tunisiako mugan gal-dua zen oasi batean. Hori ez da hark edo honek errana, txosten ofizial batean idatzia da, ene buruzagi batek bere eta ene buruzagi ohi batez.

Erraten da Aljeriatik etxera itzuli ziren soldadu ohiek ez zutela fitsik erran nahi, arrazoi frangoengatik, baina berrogei urte ren buruan laxatzen dira egia asko. Nola ikusten duzu hori guzia gaur?

Ez da harritzekoa zeren anitzek zinez gaizki pasatu bai-tute hango denbora. Gauza itsusiak ikusi, entzun eta hobeki pasatu dugunek ere zer sentimendu ukaiten ahal dugu? Denbora galdu dugula eta agertzen gara gerla beren faltaz galdu duten soldadu batzuk bezala! Aldiz, hamarretarik ba-tek du egiazki gerla egin. Orain erraten da amerikar arma-dan hamar soldaduetarik batek tiroa botatzen duela eta beste bederatziak haren laguntzaile daudela. Aljerian ere hori izan zen. Beraz hobekienik pasatu dugunek ere kasik bi urte et'erdi galdu ditugu han, gure gazte denborakoak, inutil eta gerla bat galdu bagenu bezala, nahiz militarki ez dugun galdu ez eta egin ere! Aljeriarrek, ez militarki baina politikoki irabazi dute. Orain, adibidez, Israelek Palestina aske utzi behar baldin badu, agian utzi beharko du, ez da erraten ahalko militarki irabazi dutela palestinarrek, baina politikoki, esperantza dut. Aljeriarrek ere hori egin zuten. Gu, kontraeskualde ginen han, ez ginen libratzaile, ni nintzen han alemanak Maulen okupazioan ziren bezala.

Hori sentitzen zenuen?

Bistan da baietz. Denbora galdu eta gure kontzient-ziaren kontra, ni hasteko han nintzen ene kontzientziaren kontra. Pixka bat preso bezala, Frantziako armadaren erdi preso sentitu dut ene burua.

Samindua zara gaur horri pentsatzean?

Biziki samin naiz, eta ez naiz bakarra. Baina ez diot armadari harria botatzen. Politikariei, bai. Politikariek gaituzte hara bidali eta haiek dute armada manatu lan zikinaren egitera. Gero, armadaren parte batek gogotik egin duela, beste gauza bat da. Manuak ere hala zituzten, gostaia gosta, irabazi behar zuten!

Ikusiz Aljeria zer bilakatu den egungo saraskiekin, saminago zinateke.

Baina uste dut gerla hori izan zela oraingoaren iturria zeren luzeegi eta bortitzegia izan baitzen eta plegu tzarrak hartu zituzten gure kontrakoek ere. Hoberenak hil ziren eta gero sartu ziren Marokon eta Tunisian zirenak, beraz gerlarik egin ez zutenak, eta haiek boterea atxiki dute, ez dakit zenbat urtez, Aljeria diktadura militar bat izan da, eta oraino ere iduriz, militarrek izugarritzko indarra dute. Sakelak betetzen dituzte, alimaleko ustelkeria antolatzen dute eta tortura ere atxiki dituzte, tortura ez da behin ere desagertu Aljerian. Beraz, bortizkiegi egiten den askapen batek, nik uste, fruitu har joak ekartzen ditu. Bortizkeria gehiegizko batek jendarte bortitz bat sortzen du eta hori da Aljeriako egoeraz gaur egiten dudana irakurketa. Baina hor huts handiena Frantziarena da, eta bereziki Frantziako Gobernuarena zeren eta armada gobernuaren tresna bat baizik ez da.

Aljeriatik itzultzea, zuretzat izan zen euskal abertzaletasunaren gurutzatze momentu handi bat. Enbata mugimendu politikoa orduan hasi zen, 1960ko udazkene-tik goiti, eta pentsatzekoa da pertsona berritu bat bezala itzuli zinela Aljeriatik.

Bistan da, Frantziarentzat ez nuen gehiago ez amodio ez atxikimendurik. Frantziarengandik dibortziatua nintzen. Gero, ez nintzen askapen bortitz bati buruz joateko prest, zeren ikusi nuen han armekin oldartzen zaionaren

u
«Frantziarentzat
ez nuen gehiago
ez amodio ez
atxikimendurik»

u

aurka zein bortizki joaten ahal den Marianne eztia. Zein heinetaraino joaten ahal den.

Orduan, ETA ren hastapenak ikusi dituzularik, preske denbora horietan, gogoeta hori egin zenuen?

Beldura ematen zidan bai horrek, ikusiz gainera Espainian zer sistema zen orduan. Baina Frantzia ere ez zen eztia izanen, segur izan! Eta GALen aferan ikusi da funtsean, Espainiak egin du baina Frantziak utzi du edo lagundu du, fit-sik erran gabe.

POLITIKARIEN ERRUA

Berriz ere hor, politikarien erabakiak gero besteez pekatzen...

Errudun handiak ez dira ez armada, nahiz Espainian baduten botere handia, edo Guardia Zibila, baina politikariak. Politikariek dute manatzen eta ez bada hala, erran dezatela! Erran dezatela, baina bistan da GALen atzetik zirela ministro batzuk eta frogarik ez dago, ez baita bilatu nahi, baina ministro lehena! Frantzian ere ados zeudela bai Mitterrand, Errepublikako lehendakaria eta haren gobernua, eta nehorik ez du protestarik egin politikarien artean, ez eskuinean, ez ezkerrean. Horrek adostasun handi bat erakusten du niretzat.

Horretan baikara, eta bortizkeria asko dator gure solasaldira, Alemaniaren okupaziotik Aljeriara, Palestina aipatu duzu ere, egungo bortizkeria politikoak gogoeta garrantzizko baten beharra ekartzen du, iduriz aski egi-ten ez dena, bortizkeriaren hedapen hori mundu osoan ikusten baita edonon, Euskal Herria bame...

Bai, zein den gerlaren egiteko bide hoberena? Zeren eta, ez da dudarik, zapatzen gaituztenek gerla egiten digute edo gerlaren egiteko prest daude. Orduan, guk nola erantzuten dugu? Eta hor ez da sentimenduz ari behar, ikusi behar da nola dugun gehienik egiten ahal gure alderdiaren alde eta kalte gehienik aurkariari, askatasun gehiagoren lortzeko. Uste dut euskaldunek bereziki, sentimendu gehie-

gi sartzen dugula borroka armatuaren alde, bai eta ere aurka. Hor estrategía batetik ikusi behar da afera eta borroka armatuak nori zerbitzu egiten dion gaur, hori ikusi behar da argi eta garbi. Eta nik erantzuna badut, baina beste batzuk izan daitezke ez ados eta pentsa dezakete hori ez balitz gure egoera oraindik txarragoa litzatekeela. Hor ezin da ehunetik ehun ezer frogatu, bistan da, eta bakoitzak bere iritziak eta bideak hartzen ditu. Baina uste dut gure etsaien buruzagi handiak ez dituela gehiegi kezkatzen gure bortizkeriak eta gisa batez laguntzen dituela. Gero, beti lagunduko dituen ote, ezin dut jakin geroan zer iraganen den.

Pentsatzen delarik 60ko hamarkadaren hastapen horiei eta zu Aljeriatik itzuli zinen denbora horiei, aski harrizkeoa da naski aski gogoetatua izan zela hemengo euskaltzaletasuna baita abertzaletasuna ere, belaunaldi gazte baten artean. Gaur ikusten direlarik orduan aipatzen ziren Europa, euskal departamendua, arras sinesgarri bilakatuak, zer sentitzen duzu berrogei urteren buruan? Gauza batzuk argiki ikusi zirela ez?

Europarena xuxen ikusi genuen, bai. Askok uste zuten amets bat zela eta ez zela gertatuko. Gertatzen da, ez guk nahiko genukeen bezala, baina Europa indartzen ari da, ez da dudarik. Horren lekuko handiena da euro delakoa, gure dirua orain, gure diru bakarra. Horrek zerbait erran nahi du: hor ez dira ez sentimenduak ez ametsak edo ez dakit zer. Hori da egia konkretua.

ABERTZALETASUNA IPARRALDEAN

Euskal departamenduari dagokionez, irrino bat zenuke ikusiz hemengo hautetsi asko horretaz hurbiltzen ari, garai batean osoki ideia abertzale horren aurka zirenak...

Ez da dudarik, hogeita hamar urte galdu ditugu eta ez dakit ukanen dugunez. Baina esperantza dut egun batez gehiago ere eman beharko digutela. Guri gostako zaigu, haiei ere bai eta ez dut ulertzen zergatik ez diguten ematen hain guti den departamendu bat.

60ko hamarkada horretan, Enbataren lehen ekipa horietan zinetenek nola gogoeta zenituzten gauza horiek oro? Zeren eta ebidenteak iduri baitute gaur euskararen ofizialtasun behar hori, departamendua eta Europa bezala.

Gauza ederrak dira eta ni pozik nago azkenean betetzen has daitezen, baina hor denbora asko pasatu da eta hori dut deitoratzen dudana. Gereziak udaberria pasatu ondoan, uda pasatu ondoan ere. Udazkeneko gereziak zer dira?

Nola gogoeta zen hau guzia eta nondik etorri ziren ideia berri horiek? Zeren eta ikusten da Martxelin Arbelbide, Jakes Abeberri bat, Telesforo Monzon, Mixel Laberie, Larzabal apaiza, zure talde horretan. Elkarlana izan zen?

Ni Aljeriara joan aitzin, bi mugimendu baziren aurreabertzaleak: batetik Eskualdun Gazteria, girstinoa, euskaraz ari zena, eta bestetik ikasleen elkarte Embata, m batekin, frantsesez ari zena. Aljeriatik itzultzean Embatako al-dizkariaren lehendabiziko zenbakiak ikusi nituen, denak frantsesez: halako bitxi bat egin zidan, gero, ideiak ados. Orduan hasten zen Europaren ideia eta hori kristau demo-

kratetarik hartu genuen, zeren eta gure aitzinetik ere baziren, abertzaleak eta euskaltzaleak, guti eta ez organizatuak, guti, baina baziren: Lafitte, Xarriton eta beste zenbait. Europaren ideia horiengandik hartu genuen. Gero, euskal departamenduarena. Angersen banuen lagun on bat, euskaldun guti ginen baina bat bazen, ni hirugarren urtean sartu nintzelarik, Joanes Goienetxe lehen urtean sartu zen. Euskal Herriko gauzez mintzatzen ginen, Zazpiak Bat eta hola... Nekez aurki zitekeela erabiltzen genuen gure artean eta behin erran zidan «beharbada euskal departamendu bat», eta horrek tilit egin zidan. Gero, Enbatan, hasi ginelarik 62ko urte ondarean Itsasuko Aberri Egunaren prestatzen eta han zer eskatuko genuen,

u
«1962ko Aberri
Eguna prestatzen
proposatu nuen
Euskal Herri
departamenduaren
ideia»

u

o rduan biltzar batean proposatu nuen Euskal Herri departamenduaren ideia. Anartean mintzatua nintzen ene anaia gehienarekin: erran zidan «Europa anitz eder da, baina arteko zerbait behar liteke, hurbilagoa», hurbilagoa denboran eta araz espazioan ere. Orduan Joanes Goienetxerekin izan nuen tilt hura berpiztu zitzaidan eta jin zitzaidan Enbatari proposatzeko ideia hori, «Euskal Herri departamendua». Hola sartu zen Itsasuko Aberri Eguneko Ageri politikoan.

Lehen abertzale talde horretan bazen nazioaren ideia nagusia, euskaldunek historian zehar batasun edo nahikeria bat izan genuela elkarrekin gure espazioaren kudeatzeko, nazio ideia eta bereziki hor Hego Euskal Herriarekin junta egin zen, Telesforo Monzon eta Piarres Larzabal izan ziren horren egile?

Bai, ez da dudarik horiek biek asko ekarri zigutela. Enbatarekin batean sortzen hasi zen ETA, gainera, harremanetan zeuden ETaren sortzaile batzuk, Txillardegi, Madañaga, eta Enbatarenak.

ETAREN ERAGINAK

Ez dirudi hartu eman erraza zitekeenik, jakinez orduko hizkuntzan borroka armatua, iraultza ideia argiak zirelakoan.

Oraino erreformistak ziren, ez ziren marxista-leninistak, sozialistak bai. Txillardegi ez da behin ere marxista-leninista izan. Haren sozialismo mota sozialismo ireki bat zen eta erraten zuen protestanteak bezala zela, testuen irakurketa libroaren aldekoa. Ez zuen sozialismo dogmatiko bat, eta gainera ez zen bortizkeria hainbat hasia ere. Adostasun nahiko erretxa izan zen, teoriar bederen, bi alderdiek halako testu bat sinatu zuten elkarrekin: elkar laguntzea, elkarrekin aritzea, baina ETakoek ez zuten Iparraldean sudurrik sartu behar ez eta guk Hegoaldean ere. Gurea erretxa zen, haiena ez hainbeste eta ez zuten hitza bete, bistan da sudurra sartu zutela Iparraldean gero eta gehiago onerako eta txarrerako. Bistan da, nik txarra ikusten dut gehienik

zeren Enbata behartu baitzuten gauzak zohitu baino lehen. Baina beharbada denbora irabazi dugu. Zer denbora irabazi dugun? Berrogei urteren buruan, orain, ikusten dugu abertzale mugimendua Enbataren programarekin! Hainbeste kritikatu ondoan. Bistan da abertzale anitz sortu dela artean eta gauzak barnago ikusten direla eta oraingo mugimendua euskaldunago dela gurea baino, gurean frantzimantek baitzuten manatzen, nahiz euskaldunak baginen ez hain ttonttoak ere. Ikusten delarik Arbelbide, Etxamendi, Goienetxe, Hegiaphal eta beste zenbait ginen euskaldunak ez arras gibelatu haietarik! Baina hola da, beti frantzimantak nagusi izan ditugu, Enbatan ere, eta oraingo euskaldun mugimendua euskaldunago da. Hori bederen badu.

Itzuli-mitzuli anitz egin ondoan, azkenean, egitarau zabal batera itzultzen gara. Denbora asko galdu dugu, nik uste ETak anitz galarazi digun, guhaurrek ere kalapitan asko galdu dugu. Gero, aurrean dugun etsaia arrunt autista da edo ez dakit zer, ala oso astoa ala oso argia, ez dakit zein hautatu behar den: hogeita hamar urte galarazi dizkigu. Hori bereziki euskararen kaltetan izan da. Bagenekien denbora gure aurka zihoala eta gauzak fite egin behar zirela. Euskararen alde egiten ahalko zuten biziki lehenago: de Gaulle 1958an itzuli zelarik, gauza batzuen aipatzen hasi ziren, euskararen eskolan sartzea eta hola, orain dira egiten!

Biziki bortizki etorri ziren kritikak Enbatako lehen ideia horien kontra, 68ko maiatzaren inguruan lehen abertzale talde hortaz erran zen ez zuela ideologia argirik, burgesiarekin uztartua zela, klase noziorik ez zela. Garai hori gaizki bizi izan dukezu, zuhaur ere sartu zinen ezker abertzaleko lehen taldeetan, EHAS, Euskal Herriko Alderdi Sozialistan. Nola sentitu zenuen denbora hori?

Denbora hori horrela izatea, ez da harritzekoa, baina gehiegi iraun du horrek: Freudek aipatzen du aitaren hiltzea, baina aitaren hiltzeak hogeitaz urtez iraun du! Hori luzeegi da. Uste dut fase hori lasterrago gainditu behar zela eta horretan denbora asko galdu dugula. Bizpahiru urtez egitekoea zen.

Euskaldunok gaitasun eskas bat ote dugu ala jarriak al gara ezinbestezko egoera dorpe batean. Madarikatze bat zela erraten zuten denboran, Monzonek «Mari Gaizto» aipatzen zuen gure barneko zailtasun horientzat, besteak baino ahal gutiagokoak gara batasunaren egiteko orduan?

Ez, hori normala da, herrialde guzietan ikusten da, baina egoera da biziki gogorra. Orduan, denbora batez aitzina ez baginen joaten, bestearen, lagunaren falta zen, gu abilagoak ginen... Hori da gure kritikalariei prestatzen dugun sentimendua: haiek abilago ziren eta haiek fiteago eginen zuten, baina haiek ere ez dute egin zeren nekezegi baitzen! Palestinan ere etsenplu handia da: ikusten dugu zein nekez antolatzen diren beren artean eta Irlandan ere beren nekeziak badituzte abertzaleek. Hori normala da: euskaldunak ez gara ez besteak baino abilago ez astoago, besteak bezalakoak gara.

Egungo egunean premia edo urgentzia zerbait badaiteke nagusiki zure ustez, politika mailan batasunaren egitea?

Uste dut hala ere puntu batzuetan batasun gehiago behar litzatekeela. Hori pixka bat agertzen hasi zen Lizarra-Garazitik landa, su etenari esker. Oraingo egoerak izugarritan zatitzen gaitu: bi estrategia kontrajarriak badira, alde batetik PNV-EAJrena, bestetik ETarena. ETak hasteko ez du nahi hirugarren indarrik hor. ETak eta Batasunak. Bi postura direla eta hirugarrenik ez daitekeela izan, baina zer da dogma hori? Eta badago hirugarren indar bat bien artean eta agian horrek ekarriko du nolabaiteko batasun gutien bat. Ikusi dugu Frantziako Erresistentzian ere nola zatituak ziren! Azkenean egin zuten halako batasun bat Jean Moulin-i esker, de Gaulleren itzulian. Guk ez dugu de Gaullerik eta beharbada orain ezin da eta ez da behar. Baina zerbait kolektiboa behar litzateke.

u
«Euskal Herriak
batasunik ezin
du izan
federazio edo
konfederazio
gisan baizik»

u

Gaur, batzuek federalismoa aterabidetzat berriro jaritzen dute: aspaldiko ideia bat da, Enbataren hasieran aurreratatu zenutena.

Enetzat, demokraziarik ez dago federalismoa gabe, hurbiltasuna behar baitu demokraziak. Beste bi abantaila baditu federalismoak: populu eta eskualde ezberdinak elkarrekin egotea, bakoitzak bere nortasuna zaintzea, eta harekin bere interesak defendatzea.

Euskal Herriaren egiturak ere federalismora behartzen gaitu, zazpi lurralde historikoz egina baita: batasunik ezin du izan federazio edo konfederazio gisan baizik. Europaren mailan, berdin, eta hor bere lekua behar du Euskal Herriak, populu eta nazio bat baikara. Europaren hastapenak ziren duela berrogei bat urte. Horretan esperantza handia genuen Enbatakoek, eta ideal hori zinez indartsu atxiki dugu ene adinekoek, arrazoi ezberdinek sustaturik. Mugak ezabatu behar zituen Europak, estatuak ahuldu, eskualdeak indartu... Gure amets guziak ez ditu ase oraindik, baina gutarteko muga bederen apaldurik uzten du. Orain gure buruan dago mugarik handiena, eta oroz gainetik hori dugu ezabatu behar.

ZUBEROA MITO BEZALA

Hemen gara Aizagerrian, Zubero ferdea ikusten da. Ez al zara batzuetan aspertzen ikustearekin Zuberoa nola-ko mitoa bilakatua den Euskal Herrian, maiz ere kontsideratua delarik, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian, «euskaldunen pausa leku lasai» edo euskal batasuna egin nahi dutenentzat inbertsio toki, anaia edo ahizpa txikiari bezala? Zuberoaren irudi indartsu hori nola sentitzen duzu?

Lehenik, Zuberoa ez dugu ezagutzen zuberotarek ere! Kamioi batzuk ibiltzen baitira tresna ttiki saltzen «ouilleur auvergnat» edo holakoetan, ni ere puskila batzuk erosi nahiz ene aldiaren beha, iragan egunean entzuten nuen adineko gizon bat, ni baino hamar bat urte gehiagokoa: saltzaileak, gizon gazte batek, galdatu zion «la Soule, qu'est-ce que c'est?», «Zer da Zuberoa?». Gizonak ihardetsi zion, mauletarra izan behar zen, «Mauleko kantonamen-

dua» zela Zuberoa. Ikuspegi hori bada Maulen, «la Soule et la Haute Soule», «Zuberoa eta Basabürüa», iduri eta Basabürüa Zuberoaren apendizet bat dela. Ez, gutienez Zuberoak baditu bi kantonamendu, Maule eta Atharratzekoa eta hortan gelditzen dira gehienak, zerbait dakitenak. Ez da Zuberoa guzia: ttikiak gara baina handixagoak, zazpi herri badi-ra zuberotarrak Donapaleuko kantonamenduan, eta hau ez da beraz «Amikuzeko kantonamendua» baina Donapaleuko. Bestalde, beste muturrean bada Eskiula, «Biarnon dela», zer erran nahi da? Jendea euskalduna da bai hizkuntzaz eta bai sentimenduz, jendeek dituzte eskubideak, lurak ez du eskubiderik! Gibraltar ez da Espainia, hango jendeak britaniarrek direnez gero ez da Espainia, eta Eskiula neretzat zuberotarra da. Hor da Zuberoa bere 43 herriekin.

Badu ere mito bilakatzerainoko nortasun bat, nolako barneko nortasuna sentitzen diozu, mendi eta behe-reko parteen uztartzea ez baita ageriko gauza?

Zuberak badu nortasun bat eta geografiak ere matzen du hori, halako aska bat da, ibar bat da eta horrek berak batasuna ematen dio. Bestalde, hizkuntza, historia, ez da dudarik, ekonomia ere, bere industriarekin. Berezia izan da, gauzak aldatzen ari dira, industria hori buruz piko joan da, espartingintza hori eta bigarren edo hiruugarren saileko enpleguak ari dira garatzen, Baxenabarre hurbilean bezala, diferentziak gero eta ttipiakoak dira.

Gaurko ekonomian, mundializatzeak agindurik, gure arteko ezberdintasun horiek arras ttipiak izanez, hala ere ekonomia berezi bat daiteke Zuberoan?

Egun, ez. Laborantza bada eta lantegi ttipi parasta bat, baina Baxenabarren ere gauza berdina ikusten dira, gero eta hurbilago dira bi Probintziak, mito guzien gainetik. Erraten da «Biarnorekin lotura bereziak», baina Zuberoaren hamarretarik zortziak Donapaleurekin ditu harremanik handienak, ez Biarnorekin.

Mitoak aipatzen ditugu, gure auzoan dugu Mitikileko Bernat Goienetxe Matalaz aipatua, hori Euskal Herrian zerbait da. Liberta te a ren aldeko mito batek eragin handia du, egiazki sentitua da hemen ala kanpotik arrapiztu zera da?

Hor dago *Matalaz* pastoralara, Etxahun Iurikoaren lehendabiziko pastoraletarik bat. Zuberoan ere badago sentimendu hori, ez da dudarik.

Mito horrelakoak inportantzia handiarekin direla Euskal Herrian balirudike. Gertakari historiko horrek Zuberoa gainditu baitzuen erraz.

Bai, eta bizkitartean Lapurdin holako zerbait izan zen berber urteetan, Azkaingo Xurioren historia, eta hura izan zen «Lapurdiko Matalaz». Matalaz izen hori, z batekin idazten dena hartu zuen behin «matalaz bat bezala jo baitzuten». Biziki gizon argia omen zen, ikasle egona Bordelen eta biziki indartsua. Behin ikasle lagun batzuek elkarturik jo zuten... Beharbada, Matalazen mitoa handitu da hil zutelako, Xurio ez zuten hil. Xuriok ere borroka egin zuen Lapurdiko Lege zaharraren alde, paralelismo handia da bien artean. Zerk mito bilakarazten du gizon bat? Beharbada martir izateak. Jesu Kristo ere ohean hil bazen, ez zuen balio bera ukanen heriotzak.

Gauza batzuk erraten ziren hemen hurbilean, bagenekien Mitikile Goihetxia, lehen Goienetxia deitzen zena, Matalazen etxea zela eta hor apez bat izan zela altxatu zena. Erraten zen «Louis XIV.aren aurka», hori ez da arras egia, erregeak ez zuen sudurrik sartu non ez zen gero amnistiaren emateko. Dena dela, gauza batzuk zaharrek erraten zituzten gazteagoei, eta bereziki erran zidan, hor apez xahar bat bazen gure askazi urruna Mendibile Elizagarako semea, erretore egona zen Garazin Zaron eta gero Domintxinen; erretiratu zen eta erosi zuen Goihetxia. Gauza batzuk kontatzen zizkidan horrek duela berrogeita hamar bat urte. Beraz, Matalazen oroitzapena ez zen arras hila. Gero, mitifikatua zen, pasto-

u
«Matalaz
zuberotarra zen
eta Euskal Herria
Zuberoa zen
zuberotarrentzat!»

u
Gauza batzuk erraten ziren hemen hurbilean, bagenekien Mitikile Goihetxia, lehen Goienetxia deitzen zena, Matalazen etxea zela eta hor apez bat izan zela altxatu zena. Erraten zen «Louis XIV.aren aurka», hori ez da arras egia, erregeak ez zuen sudurrik sartu non ez zen gero amnistiaren emateko. Dena dela, gauza batzuk zaharrek erraten zituzten gazteagoei, eta bereziki erran zidan, hor apez xahar bat bazen gure askazi urruna Mendibile Elizagarako semea, erretore egona zen Garazin Zaron eta gero Domintxinen; erretiratu zen eta erosi zuen Goihetxia. Gauza batzuk kontatzen zizkidan horrek duela berrogeita hamar bat urte. Beraz, Matalazen oroitzapena ez zen arras hila. Gero, mitifikatua zen, pasto-

ralean ere. Orain ari dira haren egiazko historiaren ezagutzen, emeki-emeki: abertzale bezala ikusi genuen, beste batzuek errepublikatiar bezala, ez zen bat ez bestea, zuberotar bat zen eta zuberota mentzat Euskal Herria Zuberoa zen! «Üskaldünak» ziren eta frantsesez Mauleko euskaltzale batek izkiriatu zuen sasi gerla horren historia, *Révolte des Basques sous la conduite de Matalaz*. «Les Basques» zuberotarrak ziren. Orduan, hemengo lege bereziak zaintzen zituen, ez dut uste Euskal Herri osoaren ikuspeirik bazuela, haren ingurukoek bederen ez zuketen.

ZUBEROAREN NORTASUNA

Aipatzen genuen Zuberoaren nortasuna. Beste euskaldun askok zuberotarrak diote «burua arin dutela eta zangoak arinago», nonbait beraz herri dantzari bat dela, «bameko berotasun» bat duela ere. Nortasunaren definitio zailean gabiltza...

Ez dut uste zuberotarren izaera bestetarik hain ezberdina denik, ez dut halako diferentziarik ikusten. Euskaldun batzuk ikusten ditut eta gero, bai, bada kanpora ematen den itxura. Kanporatze itxura ematen dugu, kanpokoek ikusi nahi dutena, poxi bat kostaldeko euskaldunek turistei agertzen duten itxura hori, beti dantzan eta kantuz! Beste euskaldunak zarete zepo horretara erortzen: horrela ikusi nahi gaituzue? Bon, irudi hori salduko dizuegu! Saltzen dizuegu Maskaradetan, pastoraletara ederki etortzen zarete, dirua ematen duzue, segi hola!

Ez duzu hala ere ukatuko Zuberoa kantagintzarentzat altxor bat dela! Nola esplika hain herri gutxik horrelako kultura handi eta aberatsaren sortzea? Hori da beste herrialdeetakoek maiz azpimarratzen dutena. Egiazki metro karratu bakoitz sorkuntza handiagoa dela Zuberoan?

Egia da, bai, altxor gehiago gelditu dela hirietariko urrunago garelako ere. Nafarroa garaiarekin, hemen dira mendi gorenak, salbu Nafarroa garaian baino bizi gehiago gelditu dela hemen hazkuntzari esker. Han miresten genituen, ez du aspaldi, hango baso eta oihanak, baina baso eta oihanak jende guti aski du. Beraz jendea haizatzen du

ere gisa batez. Hemen aldiz hazkuntza atxiki da, eremu gehiago eman zaio eta horrek bizi bat atxiki du.

Beriz itzultzeko Zuberoako «indarrera»: herri tiki-tikiak dira, horrek ez du berenaz indar handirik ematen, baina elkarren bekaitz dira eta besteak bezainbat izan nahi. Beraz, batek pastoral bat muntatzen duelarik bada «guk ere eginen dugu» edo «haiek baino hobeki eginen dugu» eta, bistan da, «gurea da munduko ederrena!». Ederrena da beti azken pastorala eta gisa batez erran nahi du maila ez dela behehituz joaten. Hola da. Izugarritzko lehiaketa bada Zuberoako herrien artean. Horrek ere sustatzen du sorkuntza.

Euskara galdu duten zuberotar, nortasun zuberotar batekin dira oraindik?

Bai, baina badira ikuspegi ezberdinak horien artean. Batzuek dolu dute euskara ez ikasirik edo ikasi nahi lukete, beste batzuk aldiz arras ongi konformatzen dira ez jakitearekin eta beren zuberotaritasuna ezartzen dute «chauvinismoan». Zuberotar chauvinistenak eta separatistenak dira, beste euskaldunetarik bereizteko frantzimantak. Horiek

diote «Ce n'est pas le même basque», ez dela ber euskara, diferentziak handitzen dituzte eta haiek «zuberotar» dira euskaldun izan aitzin, ez dira euskaldun gainera, baina oroz gainetik zuberotar dira! Horiek dituzte errepikatzen esaldi batzuk nola «Manexetik ez da ez jente hunik ez haize hunik». Holako esaldiak badakizkitez: horiek dira gehienik zokoratzaileak euskararen eta euskaldungoaren aldetik.

u
«Zuberoako
lurraldeaz
inorantzia handia
dago, baita
zuberotarren
artearen ere»

u

ZUBEROA EZEZAGUNA

Euskaldunok guti ezagutzen dugula Zuberoa azpimarratzen duzu beraz.

Zuberoako lurraldeaz inorantzia handia dago, baita zuberotarren artean ere. Beti aipatzen da alde batetik bortua eta bestetik erreka «Ürhüpera» deitzen dugun ibar zola hori. Arrotzentzat bederen erreka zola hori da «Pettarra», zelaia da, itsusia da, baina Zuberoaren parte interesgamenak be-

harbada ez dira ezagutzen eta parte euskaldunenak, beraz, ibarraren bi bazterretarik diren mendixkak: Ürrüstoin hasirik eta Maidalena hegirainoko parte hori, hemen ekialdetik, eta mendebaldetik, Oihergin hasirik eta Ainharben gaindi San Antoni kaskoraino joaten dena. Parte horiek ez ditu ezagutzen jendeak, arrotzek ez dituzte ezagutzen, ez dira hona etortzen eta gisa batez hobe, horrela lasai eta trankil bizi gara turistarik gabe gure artean. Hor etxebizitzak sakabanatuak dira, herrixka oso ttikiak barreiatuak zoko-mokoe-tan. Hor da gehienik bizi Zuberoan euskara, parte horietan.

Hego Euskal Herri a rekin asko gurutzatu zara: zuberotartasuna erraz onartu dutela erran daiteke eta mire s men zerbait beti ere agertu dutela ez?

Hori da «parabisu galdua», Zubero polita eta bukoli-koa eta ideala, behin izan ez den bat uste dut ikusten du-tela, eta hori da Zuberoaren mitifikatzea. Gero, beti diot teilatuak bezala bi malda dituela, bat eguzki aldekoa eta bestea itzal herria. Eguzki aldea bakarrik ikusten dute beste euskaldunek, ez dute besterik ikusi nahi, beraz hori era-kusten die Zuberoak eta saltzen, jadanik aipatu bezala, «ekhi begia», mazela polit hori.

Eta nola da «itzal begi» hori?

Herri hori da beste eskualdea, iluna eta gogorra. Et-xahun Barkoxe, Matalaz, Berte rætxen Khantorea eta Jon Mirande: horiek pertsonifikatzen dute. Eskualde ilun eta bortitz hori ere badago Zuberoan.

Ohargarri da ere Zuberoan heritarren erdia baino gehiago kanpoan bizi dela, batez ere Parisen. Han beren «klan» itxura argi dute, Parisko zuberota rren kultura bat badaiteke ere, Mirande nolazpait ekarri zukeena. Iduri du hartu-eman berezia dela herrian egon direnen eta Pa-risera joan direnen artean.

Bai, paristarrak familia guzietan badira, ez da dudarik. Hori munduko lehen Gerla Handiaz geroztik gertatu zen. Gero, berriz, Bigarren Gerlaren ondotik. Orain gazte guti da Parisera joaten, non ez den ikastera edo hola. Baina ait-zinetik izan da emigrazio izugarria Argentina eta ingurue-

tara, Uruguayra. Beste eskualdeetarik ere, baina Zuberoatik bereziki, duela mende bat edo gehiago ere. Burrustan joan da hemendik hara jendea. Orain, berriz lokarriak ari dira berpizten.

PASTORALAK

Pastoralak idatzi dituzu andana bat, ukan ote duzu tentazioa, erran duzun bezala, «Zuberoa berezi baten saltzeko» kanpoko euskaldunei, ala azken batean zuzendu nahi zenuen Zuberoako irudia? Mitoekin, egiaren eta asmatuaren artean bada joko minbera!

Ez ditut horretarako idazten pastoralak. Idazten dut maite dudan pertsona batez edo maite dudan multzo batez. Horien ezagutarazteko.

Zure burua ongi sentitzen duzu mundu horretan? Zeren eta batzuek argiki baitiote pastorala «arkaismo» bat dela, Zuberoako nortasun bat azaltzen badu ere: uste duzu forma hori «gaurkoa» dela hala ere?

Gauza batzuk erraten ahal dira eta besteak ez. Nik uste pastorala, oroz gainera, epopeia eta tragedia dela. Epopeiarako ongi da, «Chanson de Geste» bezala, Erolanen Khantorea bezalako zerbaiten egiteko ongi da. Beste batzuentzat hobe da teatro klasiko bat, eman dezagun teatro arrunta, prosaikoa, hobe baita gauza «prosaikoen» erakusteko. Eta gero, bien artean badago hor Berzaitzek asmatzen hasi duen «antzerki berri» bat, kantuarekin, beste zerbait da. Hiru forma horiek badira gaur Zuberoan. Egia erran «antzerki prosaikoa» Isabela Barretzek hasi du sortzen aurretik. Muskildiko neska gazte horrek bere lehenbiziko obra taularatu du, *Herria ohoretan*, eta arrakasta handia izan du. Hor da bestalde Maskarada. Gero, galdu direnak, berpiztu daitezkeenak, xaribari, asto lasterrak eta horiek.

Batzuentzat, pixka bat erridikuluak bezala dira pastoralak, halako «integrisimo» izpiritu zerbaitekin baitezpada zaindu nahi direnak, berritzaileen aurkako gudu bat etengabe eramaten dutenak.

Formak ez dira asko aldatzen. Gero, pastoral bakoitza berezia da zeren historia berezia kontatzen baitu. Hori da behin ere ahantzi behar ez dena: pastoralak historia bat kontatzen du. Hara, eta historia horretan ez bada sartzen, publikoa, bistan da, hiruzpalau orduz aspertuko da. Batzuk aspertzen dira ez baitira historian sartzen. Gauzen aldatzeko, errejent bakoitzak pixka bat berritzen ditu, aldaketa ttikiak badira beti, taulen gainean kurritzeko, adibidez, itzuli guzia egin ordez zeharka jalgitzea eta holakoak asmatzen dituzte.

Luzarako eta Zuberoari arras egokitua iduritzen zaizu pastorala?

Iraupenak berak hori frogatzen du, uste dut. Hori da frogarik hoberena, irauten duela eta arrakasta baduela. Zergatik gehiegi aldatu behar litzateke? Gero ikusiko da arrakastarik ez baldin badu gehiago edo. Mementoko ez da gehiegi aldatu beharrik ikusten.

Ez zara ote pixka bat beldur, hizkuntza desagutzen doalarik, forma baizik ez dela zutik egoki?

Nik horren beldurra dut: hizkuntzaren galtzearena. Pastoralak iraunen du ikusliarrak badireno eta, gauza itsusi bat erranen dut!, dirua ekartzen dueno.

Elementu hori badela onartu behar, beraz?

Bistan da! Asko gostatzen da gaur pastoral baten muntatzea, eta beraz diru ederra sarrarazi behar da eta ez da gauza segurua, zeren kanpoan egiten baita eta eguraldia ez bada ona, adio jendea eta adio dirua! Orduan, pentsatzen da beti aski sarrarazteari.

IDAZLE LANAK

Horrek ekartzen gaitu zure idazlanetara. Betiko galdea da nola norbait idazle bilakatzen den. Zu ezagutzearekin badirudi lan dorpeen hasi zinela, ekonomiaz ala politikaz idazten, artikulu polemikoak lerrokatuz *Herrian*, *Enbata*-n. Sendi da «azkenean» zuretzat atsegina gozen poesia eta literatura mundura jauzi egin zenuela.

Hala da bai: hogeï bat urtez idazle «militantea» izan naiz eta gero politikaz aspertu. Beti ere zango bat barnean atxikitzen dut, idazkietan bederen, baina herritar eta hiritar «arrunt» bezala. Azkenean sartu naiz literaturan eta hori biziki maite dut. Joera hori nuen, Bigarren Mailako ikasketetan «literarioa» nintzen. Karrera tekniko bat hartu nuen, ogia irabazteagatik eta hogeï urte politikan pasatu ondoren literaturan sartu naiz, baina ez da ustekabeen izan: hori bainuen maite.

Hala ere *Makila Gorria* bezalako poesi bilduman ikusten da «Jean Louis militantea» argiki!

Bai, militantea agertzen da, baina olerki batzuk ere badaude. Hor izan zen ene pasaiaren hastapena, «Itsaso Gorrian» pasatzea hor, makila gorria eskuan! Beraz, politikatik, eta hori ukatu gabe, beste zerbaitetara, beste zerbaiten bila.

Badiñdi Euskal Herrian literaturak eragin guti duela, literatura idatziari lotu gara baina «ez balitz gurea» bezala. Entzuten da euskaldunok zaletasun arras guti dugula irakurtzeko, idazten bada ere.

Hori ere erran zahar bat da: euskaldunek asko idazten dugula eta guti irakurtzen! Baina badira irakurtzen dutenak ere. Uste dut euskaldunak, literaturan, edozein populu bezain gustura gaudela, baina euskara nola baztertua zen ikusten dugu, eta hemen bereziki frantsesaren inperialismo izugarria. Horretarik pixka bat jalgi gara hala ere eta idazle asko bagara, Iparraldean ere gaur. Nik berrogeï bat izen, liburuak idatzi zituztenak aurkitu nituen. Gero kazetariak hartuz, hiru rogeï bat kontatu zituen Xarritonek. Idazleak bagara, irakurleak baditugunez ote, agian bai. Pastoralean bederen entzuleak badituzu, ikus-entzuleak eta antzerkian o rokorki. Libreta izanez gero, badituzu irakurleak ere. Beste liburuentzat ez dakit. Ez da uste izan behar besteak errazki ari direnik: Frantzian ere oso guti dira beren lumatik bizi diren idazleak eta bereziki literaturaz idazten dutenak. Frantses poeta bat zoriontsu omen da bostehun liburu saltzen dituenen! Pentsa, hiru rogeï milioi biztanle dituen erresuma batean. Ez gara bakarrak nekez ari garenak.

Literatura aipatzen delarik, bereziki herri eta kultura ukatu baten kasuan, eginbide edo funts batzuk ikusten ahal zaizkio idazleari, hizkuntzaren lantzea eta beste. Nolako funtsa edo eginbidea ikusten diozu idazleari?

Ondorioak horiek izan daitezke, baina lehenbizi idatzi behar da idazteko tirria dugulako. Nik «bizioa» beti izan dut idazteko. Publikatzea edo ez, beste gauza bat da. Ez dakit zein frantses idazlek erraten zuen «idaztea idazlearentzat terapia bat dela». Holako zerbait bada, orain tripan edo nonbait barnean ukan behar da, bestela ez bagaitu guhaur berotzen idazteak, nola interesatuko ditugu besteak? Lehenbizi, hori, idazteko pasio hori ukan, eta gero ondorioak ateratzen dira eta atera daitezela hizkuntzaren hobetzea eta. Iturria lehenik behar da eta gero ura eramaten da behar den lekutara edo saiatzen bederen. Lehenik, iturri izan, tirria edo irrikarekin.

EUSKARAREN GEROA

Euskaltzain zara, halako begiratoki batean ikusteko nolako indarrak ematen diren euskarari buruz. Inpresioa ote duzu ikaragarriko lana eraman dela azken berrogeita hamar urteetan euskararen alde, populu ttiki bat garelarik?

Izugarrizko lana da eta balio du zeren izpiritua pizten eta zorrozten du. Ez gara bakarrik. Israel, egun hauetan ikusten badugu ere zer egiten duen, bestalde miresten dugu, nola bere hizkuntza berpiztu duen! Ez dut uste bakarra den: nazio ttipi guziek dute eginbide izugarri hori. Katalanak ere hortxetan ditugu eta pixka bat ber egoeran, ez uste izan aise ari direnik haiek ere. Lan handia egin dute.

Nolako esperantza duzu euskararen baitan geroari buruz? Aipatzen da Internetekin euskalduntzea munduan lagunduko dela...

u
«Nik miresten
dut Ebro
bazterrerraino,
mendebaldeko
Euskadin
euskara
ikasten dutela»
u

Dena posible dela! Euskararen galtzea baina ere euskara ren salbatzea eta suspertzea ere bai. Gauza bat miresten dut hala ere: Hego Euskal Herriko autonomiaren aurka izugarizko gauzak erraten dira, iparraldekoek bederen ez gure gaizkirik erran behar, zeren guk ez dugu haiek duten erdia ren erdia ere! Nik miresten dut Ebro bazterraino, mendebaldeko Euskadi horretan euskara ikasten dutela. Nafarroan ere batzuek, baina Gobernuaren kontra: ez da han ematen Araban ikusten den ber euskalduntze hori. Pribatuki egiten da, baina Iruñeatik at Gobernuak tratatzen du. Hala ere mirakulu batzuk gertatzen dira: «Nafarroa Oinez» iragan da udazkenean Lodosan, Ebro bazterrean. Hango auzapezak eta zinegotziak UPNkoak dira! Harrigarri bada ere, haiek euskara laguntzen! Lodosan suhiltzaileen etxean handi handia idatzita dago «Suhiltzaileak»! Ezin sinetsizko gauzak gertatzen dira, bai kontra, hori badakigu maleruski, baina alde ere.

Azken urte hauetan, lehenago ere, han edo hemen deklaratu da «politikatik aparte egon behar daitekeela euskara», hori dela euskararen salbabide bakarra. Baina aitortu behar da mugimendu abertzaleak duela bizi arazi euskara. Posible al da euskara politikatik baztertzea?

Nik, idealean, nahi nuke euskara denena izan dadin, hala behar luke. Adibidez, Max Brisson bat (Biarritzeko zinegotzia, Akitaniako eta Departamenduko Kontseilaria, RPRtik hurbilekoa) entzuten dudalarik «gurea egin dugula euskara», iduriz eta besteei kendu dugula!, ez, guk lurretik bildu dugu euskara! Memento batez, euskaltzale guziak ginen abertzale, zaharrak bai baziren, baina gure belaunaldietan, denak ginen abertzale, eta abertzaleak baizik ez ginen arduratzen euskaraz. Gero, jin dira belaunaldi berriak, ez dakit denak abertzale diren, haurrak ezartzen dituzte ikastolan, hobe. Gauza zabaldu da eta gehiago zabaltzen balitz, hobe. Brisson ere euskaltzale bilakatzen dela, ederki, baina erran nezake Damaskoko bidean erori dela, ez aski erori oraino!, zeren gauza batzuk erran ditu, nola «ez dela euskara sobera fagoratu behar». Gure jendarteko elementuetan ez badugu gora ezartzen, ez da aterako! Bestal-

de, guk, amaren eta aitaren hizkuntza dugu euskara, hura ez badugu besteak baino gorago ezartzen ez dakit nora ari garen. Ama bat dugu, ez besteak baino ederra-go, baina gurea da eta bakarra, eta puntu! Ez dugu amaren hautatzerik. Badugu eta atxik dezagun!

ZUBERERA ETA BATUA

Ürrüstoitik, Zuberoako hizkuntzaren bihotzean, ez ginateke egon euskara batua aipatu gabe. Berrogei urte hauetan urratsak egin dira, baina beti entzuten da batzuen beldurra «euskalkiak galduko dira batu horrekin» edo «ezin dela konprenitu»... Azken denboretan iduri du bizitasun berria duela eztabaidak, Ipar eta Hegoaldearen arteko kataska ere nahasten zaiola. Hitz batzailerik in ikusten dukezu arazoa?

Ez, ez, debate hori beranduegi heldu da, euskaltzaleen artean gauditua da. Euskaltzaleak ez zirenekin bagenuen debatea duela hogeita zenbait urte. Zuberera gibel ari da, baina frantsesak du hiltzen, ez batuak! Hori da egia. Zuberearak bere lekua badu, Zuberoako Irratian bistan da, ikastolan hori dute ikasten, kontrarioa erran bada ere «espainola ikasten zutela Zuberoako ikastoletan!», gezurra da, nik badakit alaba bat han baitut irakasle. Nik batzuetan zubereraz idazten dut, pastoralak hala egiten ditut, gero, Euskal Herri guziko euskaldunentzat idazten dudalarik, batuan idazten dut eta Iparraldera mugatzen delarik ene mezu apala, nafar-lapurteraz idazten dut. Hiruak erabiltzen ditut, norentzat idazten dudana. Hori sinple da. Gero ikastolako haurrak Bigarren Mailara joaten direlarik, han batuan ikasten dute. Beraz, biak badakizkitez, zuberera eta batua. Non da gaizkia? Gero, zein heineraino Iparraldeko euskarak sartu behar duen batuan: Mitxelena ikaslea naiz eta honentzat batuak hamarretatik zortzi bederen izan behar zuen gipuzkera eta lapurteraren arteko ezkontza bat, gero elementu batzuk bizkaieratik eta zubereratik. Praktikan hori da Euskaltzaindiak moldatzen duen batua. Gero batu bezala saltzen den

u
«Zuberera
gibel ari da,
baina
frantsesak du
hiltzen, ez
batuak!»
u

hori ez da beti Euskaltzaindian nahi genukeena. Batzuek gipuzkera pixka bat zabaltzen dute, plus H, batuaren izenean: hori «gipuzkera osatua» da, eskubidea badago, baina ez da eran behar hori dela batua.

Prensa eta komunikabideen erantzukizun handia bada ere, euskara «berehalako» bat sartzen ari dela, arrisku handiak badira?

Beti prentsan hizkuntza hertsia erabiltzen da. Aski da ikustea Frantziako telebistan ere, izugarri hizkuntza sinplea erabiltzen dute, baina beharrik kazeten ondoan badi-rela liburuak, olerkia, antzerkia, kantuak eta hori guziaz. Ez da gelditu behar telebistan, nahiz Euskal Telebistan euskara ona erabiltzen duten. Hor beti hizkuntza sinplea behar da. Euskal kazetetan ere nahiko hizkuntza sinplea erabiltzen dute eta hala behar da, berehala ulertzeko gisan. Astekarietan eta ñabardura gehiago hartzen du euskarak.

Kontseiluen ematea onartzen baldin baduzu, idazleek balukete eginbide bat euskararen ongi lantzeko eta kritikak badira batzuek ez dutela indar handirik egiten forma landuen erabiltzeko. Berehalako ulemenaren bialteza arrisku bat da literaturan ziuraski?

Idaztean uste dut biziki landu behar dela. Ahal bezala ari naiz eta ari gara: hitzak atera behar dituzu hainbat laster, agudo, fite, entzulea ez da beha egonen, idaztean aldiz behar den denbora hartzen duzu, zuzentzen duzu. Ahal bezain ongi idatzi behar da.

Gaur egun tresnak badira idazle batentzat ongi idazteko, hiztegitintzan, literatura zabala irakurgarria bada, denborak aldatu dira: lehen baino errazago da?

Hiztegiak badira burrustan! Elhuyarrenak, 3000 eta beste batzuk, Euskaltzaindiko Hiztegi batua ere atera da, bat laburra, zenbait mila hitzekin eta orain horren doblatzen ari gara. Gero, beste idazleak irakurri behar dira, zaharrak, baina oraingoak ere. Uste dut euskara moldatu nahi duenak, euskara natural bat nahi duenak *Herria* astekaria irakurri behar duela. Hegoaldean irakurtzen dute, euskalt-

zainek ere estimu handia diote, euskara natural bat irakurtzen da, ez batua, baina batutik ez hain urrun ere. Dirassar batek Hazparneko euskara erabiltzen du argi eta garbi, ura iturritik bezala heldu zaio: euskaraz ongi dakien edozeinek irakur dezake haren euskara eta horrek ere zerbait ekar diezaioke edozein idazleri.

Orain, euskaldunak, ez gara soilik elebidunak, baina hizkuntz askodunak, hiru badakizkigu gehienek. Horrek ez al du azken batean euskara kanbiatuko zeren eta itzulpenaren arazoa heldu baita: kanpokoa euskaratzen da, euskarazkoa erdarara itzultzen. Kultur aniztasun batean murgiltzen ari gara, gure kultura ez ote du nahasiko, konplexuago bilakatuko?

Beharbada bai, baina aberasten ere ahal du. Gero, beti idazleak bere nortasuna eta estiloa atxiki behar du, euskaraz ere eta ez beste hizkuntza baten kalkoa. Ongi itzultzea biziki neke da ber denboran euskal plegua atxikiz. Lan nekeza. Gure erakuntzan bederen behar dugu gure estiloa bilatu, horrek lana eskatzen du. Ez pentsa zaharrek iturritik bezala idazten zutela! Adibidez, Etxahun Barkoxekoaren idazki batzuk gelditu dira familian eta izugarritan zuzentzen zituen bere idazkiak. Bertsolari bezala pasatzen da, ez da frogarik batere mihiz ari zenik: idazlea bai bazen eta biziki zorrotza eta biziki lantzen zituen bere idazkiak, behin ere ez baitzuen silaba bat ez gehiegi ez eskas, bere fraseak erortzen ziren zorrotz. Lanarekin, ordukotz!

MILITANTISMOAZ

Jean Louis Davant, zutaz pentsatzen delarik militante hitza dator: euskararen militante, militante abertzale, giristino militantea. Abertzaletasunak zure bizia kanbiatu duela, beste askori bezala, erran daiteke?

Hala da, bai, ate batzuk hetsi eta beste batzuk ideki zizkidan.

«Militantismoa» egungo egunean, doi bat gaitzetsia da, omen eta izpiritua hertsitzen duela, lazakeria balio

daitekeela, baina gure herrian, beren gogoari jarraikiak aski ikusten dira oraindik jo eta ke.

Hala da, izpiritua gisa batez hertsitzen eta hertsatzen duela, zeren, nahi ala ez, gure kasuan, militantea soldadu bat bezala da. Horrek nahi eta ez alde batetik indarra ematen dizu, bestetik mugatzen zaitu, diziplina bat behar duzu onartu edo besteek emana edo zeronek zure buruari emana, eta badakizu zuk ere gauza gogorra dela estatu gabeko nazio batean delarik. Nortasunarentzat bide bat aurkitu behar da: estatuaren tokia bete lezakeen zerbait bilatzen dugu. Hori, oso nekea da.

Kristau bezala klasatzen zara ere: militantismoa hor gauza berdina da?

Kristau ez ziren batzuekin ere militatu dut. Helburuetan ez zen diferentziarik. Gero, maneretan beharbada. Kristauak zer diferentzia ukan lezake? Beharbada ez hain denborari begira izatea, denbora luzearen zentzua. Nik behintzat hori badut: gauzak ez direla sobera presaka egin behar. Baina hori bakoitzaren jiteak ere egiten du, ez bakarrik fedea izateak edo ez. Kristau batek normalki denbora luzearen zentzua badu bere kulturaren, iduri zait.

u
«Nik gauza bat
deitoratzen dut:
protestantismoa
galdu dela»

u

KRISTAU EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriko kristautasuna nola ikusten duzu? Lehen begirada batean herri kristaua gara, kristautasunaren balioak nonbait ageri daitezkeela gure herriko elkartasun balioetan erraten da. Zure ustez kristautasunaren efektua da ala gure sozietatearen lehengo moldatzeko bideen jarraipena?

Eliza katolikoak zinez markatu du Euskal Herria. Guk badugu, gure haurrek gure balioak dituzte fedea ez badute atxiki ere eta, nahi eta ez, eragin horrek irauten du, jendeak elizan ibiltzea utzi ondoan ere. Ez dakit noiz arte iraunen duen, baina eragin hori badago gaurko Euskal Herrian. Nik

gauza bat deitoratzen dut: protestantismoa galdu dela. Biak lehian izan balira, emankorrago izanen zen gure gizartea. Hori literaturan frogatu da. Etxepare hasi zen, baina hura boz bakarti bezala agertu zen. Gero, protestanteak hasi ziren, Testamentu Berria euskaratu zuten eta orduan katolikoak sartu ziren lehian, Axular eta besteak. Biak bazireno zinez emankor izan zen euskal literatura. Protestantismoa galdu ondoan ahuldu zen euskal literatura. Erlijio mailan ere on izanen zen bien arteko lehia. Katolikoek ere on handia eginen zigula, zeren katolikoak sobera ohituak gara hierarkia bati jarraituz: elizara joan eta ez da bururik hausten, apezak dena egiten du, aldiz protestanteek Biblia irakurtzen dute, gu katolikoak alferrak gara, Biblia ez dugu irakurtzen! Indar handia izan da alde batetik apezak asko zirelarik, baina ez dakigu ia apezik gabe funtzionatzen. Apezik ez den lekuan, fededun baldin bagara, gai behar genuke izan gure artean biltzeko eta otoitzak egiteko, Bibliaren irakurtzeko eta, holako gauzak ez dira gertatzen Euskal Herrian, Iparraldean bederen. Hori zinez deitoratzen dut, katolikoek alferkeria hori apezek luzaz hazi dutena, eta orain hor gaude kasik apezik gabe eta ez gara horretarako gehiago mugitzen. Ofizioetara ere ez gara joaten fededunak: Ûrrüstoiko elizan, batean bospasei, gehiago garelarik dozena bat... Gero, arratsalde honetan bazen ehorzketa bat eta elizan ez zen aski lekurik! Fededun baldin bagara logikoak izan behar dugu gure fedearekin eta ez ditugu utzi behar gure herrietako elizak hiltzera. Fededunek etorri behar lukete, gure ofizioak alaiagoak lirake.

**Fededunak preseski Euskal Herrian azken urte haue-
tan aski isilak dira salbu elizako buruzagiak. Zuk zure
fedea ez duzu sekula ezkutatu, euskal militante girstino
bezala beti agertu zara: nolako erranahia ikus zenioke
gaur fedeari Euskal Herrian?**

Lehenik pertsona bezala, eni, fedea indar handia ematen dit bizitzan, nekezien jasateko eta esperantza handi bat. Pena nuke fedea gal baneza, galtzen ahal dut, ni bezain gai direnak edozertarako badira fedea galdu dutenak. Adiskide batzuek diote «fedea galdu dutela alferkeriaz, laza-

keriaz», elizara ez ziren hainbat joaten eta azkenean fedea galdu. Hori damu da. Norbaitek ez badu fedea, ez da hortaz jujamendurik egin behar, baina baduenak atxiki behar luke, pertsona bezala indar ematen baitio. Gero, orokorki, fededunek baditugu gauza batzuk errateko Euskal Herriaren alde eta ez dira aski erraten orokorki, Iparraldean bederen Eliza isilik dago euskal arazoaz eta bakea predikatzen da han munduko beste puntarako, baina hemengo gertakariak ez dira aipatzen. Eliza mutu dago, elizan ez soilik hierarkia, baina kristau bezala. Gero, mugimenduetan, laikoki gauza batzuk erraten ditugu, beharrik, baina kristautasunaren boza ez da entzuten, bereziki Iparraldean, Euskal Herriak bizi duen egoera latzaz. Ez dakit eliza ofizialarentzat Euskal Herririk baden ere, hori ez da klar hemen bederen.

Erraten da Euskal Herriak sortu duen erlijioa Loiolako Inakirekin edo jansenismoaren bidez izan dela eliza militante bortitza, errespeturik gabekoa, gogorra eta egun arte horrek eraginak izan dituela bere Jainko bortitz maitasunik gabekoarekin. Eliza mota horrek oraindik markatzen gaitu hemen?

Beharbada bai, baina nik ez dut sentitu eliza hori. Mauleko Kolegioan apezak genituen irakasle, ez ziren jansenistak, estoizianoak ziren. Estoizismoak, hori ez da aski erraten, giristinotasunaren hastapenetan eragin handia izan du. Giristinoen moralak, parte handi bat, estoizianoa da. Hori da bertutea, bertute azkarra, birilitate handia, hori zuten apezek Maulen. Bere burua behar zen ez zapatu, baina azkartu eta gauzei buru eman kikildu gabe. Ez zen erlijio ilun bat, optimistak ziren, baina nortasun gogor batekin.

Ikusiz Belokeko frailetxean egin indarrak testu itzultzen eta ere mugaz bi aldeetako batzordeek Liturgiaren batasuna egin zutena aspaldi, zer gelditzen da?

Salmoak eta abar, baina hor ere pixka bat Renan bategen erraten zuena, «le parfum d'un vase vide», hustu den ontzi baten lurrina. Zeren eta Beloke ez da lehengo Beloke, euskaldunak ez dira buru, hor ere frantzimantek dute gaintasuna hartu. Orduan, zer du Belokek errateko euskal-

dunei? Ez dakit: galdatu behar litzateke horko euskaldunei. Iparraldeko Elizak euskal kulturaren eragin bat nahi luke atxiki, baina beste nortasun bat erakutsi behar du, bestela, akabo euskal kulturaren eragin baten izateari. Agur erran behar diogu, ez badu euskal nortasun gehiago agertzen, euskarari leku gehiago eman ez elizan, murrizteko orde, eta euskal arazoan ere zerbaiten errateko. Hierarkiak ez badu egiten, guk, kristauek, egin beharko dugu, baina kristau bezala ere, ez soilik mugimendu laikoetan.

FAMILIAREN INDARRA

Familia bat hazi duzu ere, bi alaba, batasunean egonda: familia sentitzen ote duzu oraindik euskal gizartearen oinami, ikusten delarik gero eta gutiago direla, haur biziki gutirekin gainera, eta kezkatzen zaitu horrek guziak?

Familiak indar asko galdu du eta bizi pribatuak ere, bizi publikoak toki gero eta handiagoa hartu du: gure dirutik kasik erdia kudeatzen dute botere publikoek, gobernuek, eskualdeak, departamenduek, herriek eta segurantzak sozialek. Gero sartzen dira gure etxeetan, irrati, telebistei esker, haurrak bi urteetan haurtzaindegian, hiruetan ama eskolan. Beraz familiaren indarra biziki murriztu da. Baina familia indartsu gelditzen da maitasun leku bezala, bereziki haurrentzat. Haurrak biziki maitatuak dira orain, guti baitira ere eta biziki atxikiak egoten dira etxeari, aitamei, hori sendi da azkar. Bihotzaren tokia, bederen.

u
«Kristauek esperantza emaile izan behar genuke oroz gainera»

u

Maitasuna diozula: Euskal Herrian ez al du honek toki txikiegia?

Maitasuna, gizon emazteen artekoa, haurrekilakoa, hori zabala da, beharrik, haurrak maite dira Euskal Herrian, gutxiegia dira ene gustuko eta gazteek haur zenbait egin behar lukete.

Ez al zaitu kezkatzen Europan haur gutxienik sortzen den tokia Euskal Herria izatea, gerora buruz arrisku handia da ez?

Zinez kezkatzen nau horrek: erran nahi du esperantzarik ez dugula! Hori gauza zinez beltza da, zeren mundua zerk aurrera eramaten du? Esperantzak. Hor bilatu behar litzateke nondik heldu den esperantza eza. Hor ere erlijioak, fedeak, baluke anitz errateko eta nik uste, fedea bide handiena den, eta fededunena, ez morala aipatzea baina esperantzaren ematea. Kristauek esperantza emaile izan behar genuke oroz gaineratik. Gure lehenbiziko eginbidea da eta ez «hau edo hori egizue», lehen baino gutxiago erraten bada ere hori. Fedea ez da moral bat, morala izan daiteke federik gabe, baina fedeak esperantza eman behar du gehienik.

ESPERANTZA

Esperantza, erran nahi duzu geroan sinestea?

Bai, gero bat izanen dela, oraina bezain ona, eta behar bada hobe, eta mundu hau ez dela horrela galduko, ez terrorismoarengatik ez Aznarrengatik ez taliban edo Bushengatik, eta ez kutsadura edo Txernobilengatik. Aterabideak aurkituko ditugula zinez nahi baldin badugu. Gure haurrak eta arahaurrak edo bilobak bizitzen ahalko direla. Egia da hometarako mugitu beharko dela, bestela mundu txarra utziko diegu, baina ez dugu ez zuzenik ez eskubiderik mundu txar baten uzteko.

Zorionam esperantza ere?

Zoriona da konta den gauza bakarra. Gero, zoriona lagundu behar da, ez da bakarrik etortzen, zorigaitza bai, bera etor daiteke merezi gabe edo horrela, baina zoriona lagundu behar da eta merezi du indar egitea.

Hezkuntza eragile daitekeela, horrek baititu balioak ekartzen, eta ez al da balioen arazoa gehienbat gure bazterretan?

Denetan. Hor ere prediku guti egin behar da eta et-senplu ona eman. Haurrak ez dira zozoak, ikusten dute handiagoez zer egiten duten. Gauza bat egiten badugu eta haiei eskatzen beste baten egitea, hobea, horrek ez du si-negarritasunik. Nahi badugu, bestalde, gure haurrek euskaraz egin dezaten, guk ere euskaraz egin behar dugu. Sail guzietan, etsenplua da hobekien gauzatzen dena.

HEZKUNTZA

E remu publikoa aipatzen zenuen: hezkuntza horretan kokatzen da eta eskolak, lagunek, telebistak hezkuntzaren parte handia egiten dute, etxekoek gero eta gutxiago. Kezkagarri daitekeela hori.

Bai, eta irakaskuntzan gauza bat deitoratzen dut, gizon gutxiegi sartzen dela. Zeren gizonezko eta emakumezkoek egiten dugu mundua eta eskolan ere bietarik behar da. Emazteek badute beren gisako larderia, baina gizonek beste manara batera dugu eta gazteek biak ikusi behar dituzte. Gaurko gizarteak pixka bat aita kanporatzen du. Aitaren figura desagertzen da eskolatik, lehen mailan, bigarrenean ere, hori kezkagarri da. Lehen, aitak toki gehiegi zuen, teoriarik bederen botere osoa bazuen. Orain beste muturrera joan gara gauza askotan, eskolako diziplinaren aldetik ere ikusi dut eta ez da gauza ona. Frantziako irakaskuntzan, bestalde, anbizioa sobera bada, gauza gehiegi irakatsi nahi da, ez dut erraten gai gehiegi dela, baina bakoitzean maila goregi ezartzen dela, sobera galkatu nahi dira ikasleak. Ikusi dut ene bigarren alabak natur zientzietan zuen maila, gehiegizkoa, eta, bururatzean, dena ahan-tzi du. Ez ote da hobe gauzak sinplekiago irakastea, ideia nagusi batzuk gogoan atxiki ditzaten. Irakasle nintzelarik bederen horrela egiten nuen.

Krisia aipatzen da edonon, mundua ere norabiderik gabe dela, norabide eskas hori ez al zaizu mende berr-i honentzat kezkagarriena, euskaldunentzat ere?

Sistemak funtzionatzen du: dirudunek dirua irabazten dute gero eta gehiago, hori ikusten da dirua Burtsan aldat-

zen dela edozein momentuz, asko irabazten duenak ezartzen du gehiago irabaz dezakeen leku batean. Sistema hori kurritzen ahal deno kurrituko da, buru direnen interesak ongi betetzen direlako. Horrekin nora goaz? Gaurko gizartean ikusten dudana da oraingo interesari baizik ez zaiola

so egiten, nehoi ez zaio harria botatzen ahal bere interesa bilatzen duelako, baina harria botatzen ahal zaio ez badu sudur punta baino urrutiago ikusten! Gure gizarte guziak epe laburreko interesari begiratzen dio, ez ertainekoari, are gutiago luzekoari, hori behar litzatekeelarik.

u

«Eraikuntza
nazionala behar
da, baina denbora
hartuz, bestela ez

da eginen» MUNDUTAR

u

Mundializatzeko mugimendu horretan Euskal Herria murgildua da baina horren aurka beste indar bat handitzen ari da, halako dialektika baten poderioz, eta preseski Euskal Herrian indar asko, mugimendu abertzalea barne, mundializatzearen aurkako borrokan sartuak dira.

Gero, zeri deitzen diogun «mundializazioa» eta «anti-mundializazioa». Mundutar bilakatzea, eni gauza ona zait. Nola egiten den, hori da. Alternatibak behar dira proposatu, bai horretan arrazoi dute eta nahiko ados nago José Bové batekin eta Albert Jacquard irakaslearekin. Badira jende batzuk urrun ikusten dutenak eta horrelakoak behar ditugu, eta nola Euskal Herriaz ere ari ari garen, orokorki, sudur puntari begiratzen diogu, epe laburreko interesari. Horrek astakeriak eginarazten dizkigu maila guzietan. Berziki borroka armatuan, astakeriak egiten dira uste baita eraikuntza nazionala egunetik biharamunera egiten ahal dela: ez, hori ez da posible. Eraikuntza hori behar da, baina denbora hartuz, bestela ez da eginen. Pentsaketak ongi egin behar dira eta urraska joan. Ez mirakuluz bezala, «le Grand Soir», Arrats Handia amestuz. Hori ez dugu ikusiko ez sozial mailan, ez nazional mailan. Sozialismoak porrot egin du, beste zerbait asmatu behar da, ez dena mirakuluz jinen. Halaber Euskal Herriaren batasuna edo askatasuna

ez dira arrats batez edo egun batez, halako erreferendum batean eginen. Erreferenduma etorriko da funtsezko gauzak egin ondoan. Eraikuntza nazionala ez da teilatutik hasi behar, oinarrietarik hasi behar da. Hor ez dut bide bakarrarentzat aterabiderik ikusten, hurbilketa behar da eta hor hiru zati ikusten ditugu: mendebaldeko Euskadi, Nafarroa garaia eta Iparraldea. Hiruen artean hurbilketaren bidea baizik ez dut ikusten eta guk, Iparraldean gaudenez, lan egin behar dugu mendebaldeko eta hegoaldekoekin, hots Nafarroa garaiarekin. Elkarri buruz joan behar dugu sail eta maila guzietan.

Globalizatze sistema horrekin batean, mundua merkatu handi bilakatzen ari delarik entzuten dira boz handi batzuk altxatzen zuhurtzia berri batekin, nola Chiapasko buruzagien ahoan, lurraren eta naturaren errespetuaren aldarrikatzaile. Hor bila daiteke orduan zuhurtzia beharrezko hori?

Emeki, urraska, ahal bezain agudo, etapak errespetatuz eta beti pentsatuz geroari. Profetikoak izan behar dugu batzuek eta bereziki fededunek, ausartagoak, ez gure propagandaren sartzeko baina zerbitzu egiteko, gure kulturaren dugunaz gero denbora luzearen zentzu hori. Besteentzat pizgarri izan behar genuke, esperantza pizle, baina bide berrien urratzaile ere besteekin batera. Umilak izan behar genuke: beharbada guk ez dugu asmatuko denentzat on den gauza. Zoritxarrez horrelakoak gehiegi badira Euskal Herrian, denentzat pentsatzen dutenak, ezin da pentsatu besteentzat, besteekin pentsatu behar da! Gogoetak piztu beraz.

PERTSONA LEHEN

Pertsonari lehentasuna ematen diozu.

Hori da, ez da dudarik, ez da beste biderik, bestela astakeriarik baizik ez da egiten. Ikusi dugu komunismoak nola porrot egin duen: ez dute gaiztakeriaz egin, borondate onez beteak ziren, xede onak zituzten, baina denentzat pentsatu dute. Ez dute jendea bere urratsean utzi: guti bat-

zuek denentzat eta teoriar hori zen hoberena, bai, baina jendeek ez badute nahi, zer eginen da? Ideiarik hoberenak deus ez du balio jendeek ez badute onartzen. Bai, pertsona ezarri behar da denen erditan.

Euskaldunek ere apaltasun zerbaitekin gure tokia hartu behar dugula?

Hori da, eta zer diote beste euskaldunek eta Euskal Herrian bizi direnek? Elkarrekin mintzatuz aurkitu behar dira bideak, ahalaz konbentzitu, bistan da, puntu batzuetan bederen jendea konbentzitu behar dela, ez gure egia inposatu. Eta nola inposa genezake? Horretarako izugarrizko bortizkeria behar da. Nik ikusi dut nola libratu den Aljeria eta fruituen altxatzen ari dira oraindik ere! Minoria batek bortxaz egiten duelarik gauza, leher egiten du goiz edo berant. Komunismoak ere Errusian halako gauza handiak egin zituen eta azkenean leher egin du, minoria batek inposatua baitzuen gehiengoari.

Azken batean aipatu dizkiguzun Mauleko apaiz estoiziano horien hitzak lirateke baliagarri, errespetua eta tolerantzia?

Bazuten, bai, zartako batzuk emanarren, pedagogia e rrazago zuten. Oreka gehixago beharko zitekeen, baina gizon baikorrek ziren eta handitzen ginen arau, errespetua zuten gureganako. Gizon horiek gero kristau demokrata agertu dira. Eliza berri bat jalgi da, Kontzilioaren Eliza, eta nik izan dudana erakaspenerlijioaz, Kontzilioaren aurretik zen. Han gertatu beharrak ziren gauzak han ikasi ditut, bereziki Elizalde apaiz batengandik. Bortitzagoak ere bazire n, baina irekidura bazuten. Bazen ere Lacoste bat makietan ofizier izana, Xirunberro buruzagi izango zena, Elizalde gero buruzagi egon zena Uztaritzeko San Frantses eskolan, Miguras bat poesia maitarazi zidana, eta Piarres Xarriton eta ber izeneko kusi handia, buruzagia. Gizon irekiak zire n.

Ez al da arazoa ere mundu honetan gauza gehiegiri dugula buru egiteko?

Mundua bat egiten ari da. Orduan hiru mila milioi ginen eta orain sei gara. Horrek ere izugarrizko arazoak sort-

zen ditu, pobreak haur egiten ari burrustan eta guk haurrik ez egiten. Hor ere oreka gehiago beharko da bilatu. Gauza horiek lagundu daitezke. Jendeak hobeki bizi arau haur gutiagorekin gelditzen dira eta ez da dudarik gure erresuma aberatsek besteak lagundu behar dituztela gehiago. Laguntzen murrizten ari dira, erranez gehiago ematen ari direla.

Eta hau dena gerla bide...

Jende sobera delarik eta miserian, zer dute galtzeko? Eskola gutirekin, gaizki informatuak, orduan ez da harrizko batzuetan zartatzen baldin badira gauzak. Su pizleak badira: lehen komunistak ziren, orain islamistak edo hinduistak edo ez dakit zer, bai, baina sua ez da lotzen su pizleak izanik ere, egurra ez bada idor. Baina jendea haserre delarik orduan sua pizten da.

GEROAZ GOGOETATU

Azken batean aipatzen duzun geroaren bide horren i rikitzekeo alderdietarik gain, pertsonen artean, formula berri batzuk edo erakunde berrituekin, zerbait asmatu behar litzatekeela?

Uste dut alderdietarik kanpo, pertsona, talde batzuek, biltzen hasi behar genukeela han, hor, eta beharbada kolokio batzuk edo antolatu epeka, geroari buruz gauzak asmatzeko, zer oztopo baztertu behar liratekeen, zer bide ireki geroari buruz, munduan, mundutarrak garenaz gero, m u ndua gero eta gehiago bat bilakatuko baita. Hori ez da Burtsakoen eskuetan utzi behar soil-soilik. Europan gaude nahi ala ez, euro batekin, hauteskundeak ere baditugu, buruzagi batzuk hautatzen eta Euskal Herrian ere. Hor, nazio eraikuntza, bai, baina nola. Alderdiek beti epe laburrera egiten dituzte gauzak: datozen hauteskundeak nola irabazi, hori dute helburua eta horrela da, sistema hori ez dugu ezabatuko. Bestalde behar dira halako Klub batzuk edo, pentsaketak egingo dituztenak eta politikariei ere eginaraziko. Politikariak ez dira baztertu behar gogoeta horietarik, baina ez dute haiek hor agindu behar ene ustez, bestela haiek beti gauza bideratuko dute hauteskundearen irabaztea-

ri... Hor behar lirateke edozein ideologiatako biztanleak, kristau, ez kristau, marxista, ez marxista, ezkerreko, eskui-neko, erdiko edo horietarik guzietarik kanpo, ofizio ezberdinetakoak eta zerbait esateko duten guziak. Talde ttikika, beharbada, pentsaketak egiten hasi, hara ideia bat.

PERTSONA BATZUEZ

Norbaiten ideia eta gogoak aipatzean azpimarratu diguzu hezkuntzaren garrantzia, irakasle batzuen, gogorarazten ahal dizkigu batzuk.

Aipatu ditut batzuk: Mauleko Saint François Institutuan irakasle izan nituenak eta apaiz andana bat aipatuko dut, zeren eskola katolikoan egona naiz 12 urteetarik 60 urteetaraino! Lehenik ikasle bezala irakasle izan arte, denbora guztia, salbu Aljeriako garaia.

Lafitte, Salaberri

Orduan, bi «Baxo» baitziren, bigarrena Uztaritzen prestatu nuen. Hor bi izen handi, bistan da: Piarres Lafitte eta Etienne Salaberri. Biengandik zer hartu nuen? «Euskal Herria Europan», hori zen beren ideia nagusia. Bi ardatz horiek atxiki ditut eta bestalde hazi, Xarritonek ere idea horiek bazituen, Euskal Herriko kristau-demokrata euskaltzaleen ideak ziren horiek. Euskal Herriarentzat ez nuen baitezpada bultzatzaile beharrik, baina Europaren ideia horietarik ukan nuen eta azkartu.

Jesuitak

Gero, Angersen egin nituen eskolak, goi mailakoak, agronomiako eskolan. Buruzagiak jesuitak ziren. Han ikusi ditut eta estimatu ez batere beren fama gaiztoaren arabera, baina arras beste eskualde batetik. Fama txarra dute orokorki Frantzian eta Ipar Euskal Herrian. Fama hori ez da zuzena. Frantzian, orokorki, dator Blaise Pascal-ek haien aurka idatzi zituen *Lettres Provinciales* aipatuetarik, eta horiek xurgatu ditugu, bistan da, Bigarren Mailako eskoletan. Ipar Euskal Herria jansenista zen, berriki arte, jesuitak ez baitira behin ere plantatu ahal izan Euskal Herrian. XVII.

mendean jarri ziren Baionatik hurbil, Aturriz bestaldean, Santespiko parrokian ez zena Baionakoa orduan, eta halako matxinada bat egin zuen jendeak haiek haizatzuz. Alta bada, baziren jesuita handiak euskaldunen artean, Iparraldekoen artean, Gazteluzahar apaiz olerkaria, XVII. mendean, Aita Lhande XX.ean eta abar. Dena dela, biziki argi, klar eta leial ezagutu ditut, beren famaren kontra, eta libertatea errespetatzen zutenak. Bakoitzaren nortasuna eta libertatea zinez errespetatzen zuten. Argi izatea aitortzen zaie baina zuzen eta leialak ezagutu ditut.

Larzabal

Euskal Herrian, bistan da, Piarres Larzabal ezagutu dut. Hogeita bost urteetan ezagutza egin nuen eta ordukotz zohitua nintzen, ene ideologiaren jabe eta ideien aldetik ez dut erraten ahal asko ikasi dudala. Baina gauza bat miresten nuen, haren dinamismoa: nola zemahitara plantatzen zen edonoiz eta, bistan da, haren bihotz ona eta zabaltasuna, nola bere etxea idekitzen zuen nornahiri.

Monzon

Telesforo de Monzon, nolaz ez aipa? Artista handia, poeta zen, antzerkilaria, antzerki «errejenta» erran dezaket, baina idazlea baino gehiago artista zen egiazki. Bestalde, politikari handia zen, beti ikuspegi gora eta zabala zuela, eta fermu. Erran nezake gure de Gaulle zela. Zoritxarrez ez zuen aliatu handirik. Ez zituen berekin Sobiet Batasuna eta Britainia Handia bere inperioarekin ez eta Ipar Ameriketako Estatu Batuak! Makiak bagenituen baina aliaturik ez. Zoritxarrez, oraindik «askapen handiaren» zain gaude. Denen biltzaile zen gisa batez, nahiz memento batean PNVkoek begietan zuten, baina pentsatzen dut, gero, orain, gazteagoek estimatuko zutela, PNVkoek ere. Uste dut halako batasun batera laguntzen saiatuko zela, eta beharbada orain den hausketa hori, euskal mugimenduaren bi hegalek arteko leize hori, hein batean bederen beteko zuela, saiatuko bederen.

Labegerie

Biltzaile izaten ahalko zen ere Mixel Labegerie, Kanboko auzapez deputatu senadorea, euskaltzaletasuna, abertzaleatasuna, mugaren bi aldeak bildu baitzituen zerbaitetan...

Labegerie euskaltzalea zen eta beti hala egon da. Abertzalea zen eta sentimenduz hala egon dela uste dut. Baina bere ideia ez du gauzatu ahal izan, goizegi zen Iparraldean eta uste dut, berrogei urtez goiti bazuen, eta gu ginen gazteekin sobera aitzinatu zela, guk baino zentzu gehiago beharko zukeen, eta ez zuen ukan. Sobera gibelera gero egin behar ukan zuen. Orduko giroa ikusi behar da, oso txarra zen abertzale ideiantzat eta orduan ez zen aski zuhurra izan, hori botatzen ahal zaio. Atzera egiteko, hori ere diplomaziarik gabe egin zuen gurekiko. Ederki egiten ahal zena, nekez egin zitekeen, dibortzioak ez dira maiz ongi pasatzen.

Guy Héraud

Estrasburgoko Unibertsitatean irakaslea izan da, «etnien Europa ren» teorizatzaile eta aliatu bat abertzaleentzat.

Beti lagun ona eta handia izan da guretzat, gizon argia eta zuzena. Horrek argitu gaitu: bagenituen horrela ideia batzuk, bastan, edo zirriborroan, bereziki federalismoa edo Europari buruz, eta hark idea horiek zehaztu, argitu, zorroztu ditu liburu batzuetan. Bere liburuak punta-punta-koak izan ziren eta gizon hori beti gure aldean egon da, gure auzietan ere. Pauen ere irakasle egon zen.

Jana Idiart

Zure emaztea, Jana Idiart, aspaldiko laguna duzu eta zure bizitzan garrantzi handikoa da.

Ez da dudarik. Duela 44 urte haren maitatzen hasi nintzen, andregai nuen Aljeriara joan nintzelarik. Han hogeita zazpi hilabete egon nintzen eta beha egon zitzaidan eta ondoko udan ezkondu ginen, duela berrogeita bat urte. Ene biziko laguna da eta ene alaben ama, hori ez da ahazten, eta biloben edo arrahauren amama... Neke da publikoan emazteaz mintzatzea! Biziki lagundu nau beti, memento txarretan eta onetan ere. Ez nuen idatzi dudan

guzia idatziko ez bazen atzetik izan, bereziki intendentzia-

ren segurtatzeko eta gero adore emateko ere bai.º

JEAN LOUIS DAVANTEN ARGITALPENAK

• OLERKI LIBURUAK

Makila gorria, 1980, Elkar.

Denboraren aroak, 1982, Bilbo Aurrezki Kutxa (Azkue Saria 1981).

Nahi gabe, 1985, Iruñeko Aurrezki Kutxa (Xalbador Saria).

Itsasoak Iraultzan, 1986, Maiatz.

Ihesi, 1990, Maiatz.

• PASTORALAK

Abadia Ürrüstoi, 1990, Zuberoako ikastolek antzetzua.

Eüskaldunak iraultzan, 1993, Gotaine-Irabarneko herritarrek.

Aguirre Presidenta, 1995, Arrokiagako herritarrek.

Xiberoko Makia, 2001, Sohütan emana.

Nafarroako Blanca, ematekoa.

• SAIOAK

Aberi eta klase burruka euskal mugimenduan, 1977, Elkar.

Belapeyere-ren «Catechima laburra», edizio kritikoa, 1983, Euskaltzaindia, Euskararen Lekukoak 7.

Zuberoako idazle zenduak (XX. mendekoak), 2002, Elkarlanean.

• ELEBERRIAK

Iparraren bila, 1986, Elkar.

• LIBURUXKA BATZUK, EUSKALTZAINDIAREN ARDURAPEAN (SEPARATA)

Udan irakurriak, 1981.

Sonetoaz bi argibide, 1990.

Ipar aldeko poeta zenbait, 1989 (Eusko Ikaskuntzarekin).

• ITZULPENAK

Flammarion etxean haurrentzat «Albums du Père Castor» sailean, lau liburuxka: *Adixkide onak*; *Ahuntza eta pittikak*; *Gatu ttipi galdua*; *Hiru xerri ttipi*.

• HITZALDIAK

Asko eman ditu, euskaraz eta frantsesez. Gogoratze-koa da Enbata mugimendu politiko abertzalearen sortegu-

nean Itsasun eman zuena 1963.eko apirilaren 15ean, Euskal Herriko ekonomiaz.

Euskaltzaindiaren magalean emanak ditu gehienbat euskaltzain izendatuz geroztik:

Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia, Abadia eta Xahoz, 1976.

Aita Lhande-ren biziaz eta obraz, 1977 eta 1984.

Jean Hiriart-Urruty Euskaltzaindiaren sartzerakoan, Euskaltzain berriari erantzuna, 1977.

Halaber Piarres Xarritoni, 1986.

Egiategiz geroztiko euskal idazleak, 1981.


Zuberoa eta euskara batua, «Euskara euskalkiak» sailean, 1985, Eibar.

Antonio Abadiaren biziaz eta lanez, Euskal Jaien mendue-
ren batzuetan: Bera (1980), Markina (1983), Durango
(1986), Iurreta (1991).

«Bai Euskarari» kanpainaren idekitzeko mintzaldia Bilboko
San Mames futbol zelaian, 1978.

Elizondon Baztandarren Biltzarraren karietara, 1978.

Egunen
gurpilean



kultura • 93

Gurekin edo gu gabe • Euskal Herritik Flandesera
• Eta Erromatik Euskal Herrira

JOSEBA BALERDI



literatura • 98

Literaturgintzaren arazorik larriena • Irakurzaletasuna arazo
• Arazoaren ondorioak • Arazoaren ondoriorik larriena
• Literatura erotikoaren gorakada
• Literatur aldizkariaren funtzioa

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 104

Hizkuntz normalkuntzarako estrategiak
• Hizkuntzaren Gurpila
• Lekuan lekuko estrategia egokiaren atzetik
• Etorkin berriak eta hizkuntz estrategia
• Belaunaldi euskaldun *abandonatuarentzako* estrategiak
• Euskalgintzaren beharrezko jarduna


IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



telepolis • 110

Azkenean, beti, edukien faltan eta itxaropenetan
• Informazio Gizartea Europan: 2002-2005
• Informazio Gizartearen «Ziutate Berria»
• Zazpigarren Artea gero eta indartsuago
• Euskal ikus-entzunezkoen Liburu Zuria

AMATIÑO



Gurekin edo gu gabe

Zaila izango zaio kulturaren munduari ere, datozen asteotan, datorren urte osoan, Ibarretxe lehendakariak mahai gainean jarritako proposamenaz ez aritzea. Dagoeneko irakurri ditut euskal kulturari «*pope*» maila (zentzurik onenean, noski; *lider* baino gehiago gustatzen zaidalako) duten hainbaten hausnarketak, baita dozena erdi batek elkarrekin idatzitakoa ere, eta behin baino gehiagotan jorratuko den bidea izango da hori, zalantzarik gabe, itxura batean ondo jorratuta utzita ere, izango baita gauetik goizera dena lokazteko ahalmenik izango duenik ere.

Zalantzarik gabe izango da beraz hizpide Ibarretxerena, baina ez da izango noski bere proposamenen kulturari aparteko tarte berezirik eskaini ziolako. Harri eta zur geratu nintzen —egia da-ta— Euskal Herriak historian zehar beste izen batzuk ere izan dituela esan zuenean (Vasconia, Reino de Navarra, País Vasco-Navarro), baina oraindik harrituago, Espainiak Eusko Jaurlaritzari ematen ez dizkion konpetentziak bere gain hartzeko prest dagoela esan eta berehala, Ertzaintza 200 kidedan zabalduko duela esan eta segidan, euskal zinematografiak aritu zenean. Alegia, euskal zinematografia suspertzeko ere hainbat programa martxan jarriko dituela bere gobernuak, programa horiek jartzea espainiar Estatuko legediaren arabera Espainiako Gobernuari badagokio ere. Joño!, esan nuen nere baitan. Kultura kontuak Ertzaintzaren atzetik Ibarretxeren diskurtsoan! Baina diskurtsoak linealki, gertatzen diren une berean entzuteak horixe du, eta benetako mamira heldu gabe geunden oraindik.

Inork ez dio ukatuko berritasunik Ibarretxeren diskurtsoari —gustukoa izatea edo ez beste kontu bat da—, baina inork ez dio ukatuko, ezta ere, kultura kontuak ahaztuta utzi zituela nabarmen. Diskurtsoaren zati garrantzitsuena gaztelaniaz egiteaz gain, euskararen inguru-

ko aipamen zehatzagoak bota nituen faltan nik. Herri honek nortasun propioa duela behin eta berriro errepikatu zuen; normalizaziorako bidean abiatu nahi bada, argi izan behar dela Euskal Herria ez dela Estatu baten mende dagoen lurralde zati bat... Bai, ondo leudeke horiek guztiak, baina herri hau zerbait baldin bada, nortasun propioa baldin badu, zerbaitegatik du. Ez Pirinioen bi aldeetan aspalditik ageri delako bakarrik. Hizkuntzak ere izango du garrantzirik. Amurizarekin batera: «...ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?».

Bada, urtebeteko hausnarketa prozesua zabaldu duenez Ibarretxek, nire proposamen xumea prestatzen ari den paktu berri horretarako: «Euskal administrazioaren hizkuntza ofiziala euskara izango da. Nolanahi ere, administrazioa saiatuko da Europako gainerako hizkuntzak erabili nahi dituzten heritarrak euren hizkuntzan atenditzen, eta ahalegin berezia egingo du gaztelania edo frantsesa erabili nahi badituzte».

Euskal Herritik Flandesera

Rubens etorri zitzaidan burura Ibarretxeri entzuten ari nintzela. Peter Paul Rubens. Egun gutxi batzuk berandua-go zabaldu zuten bere erakusketa Guggenheim Bilbao Museoa, Flandesko arte barrokoaren beste maisu batzuen lanekin batera. Kronikek diote Rubensek nederlandera, frantsesa, ingelesa, italiara eta gaztelania behar bezala menderatzen zituela, eta horregatik egin behar izan zituela behin baino gehiagotan diplomatiko lanak. Katolizismotik kalbinismora eta Kalbinen ideiak utzi eta berriro ere Erromako diziplinara itzultitako gizona izanik (1577-1640, koka gaitezen ongi), Rubensek Errenazimentu garaiko gizonaren traza guztiak zituen (ez da Leonardo izango, baina hortxe nonbait), baina, hara non, barrokoaren maisu handienetakoa dugu. XVII. mendeko artistarik garrantzitsuenetakoa. Gauza bat izaten baita prestakuntza eta norberak duen itxura, eta gero oso bestelakoa benetan lortzen duena.

Rubensen kontuekin jarraitu aurretik, Ibarretxeri entzunez zergatik etorri zitzaidan Rubens burura? Kasualitatez, bere erakusketari buruzko dokumentazioa mahai gainean nuelako Ibarretxeri entzuten nion bitartean, eta San Petersburgoko Ermitage museotik ekarritako lanak ikusi gabe baneuzkan ere, beti erakargarria gertatu zaidanez, nire inkontzienteak nolabaiteko bromaren bat egin nahi izan zidalako. Flandestik irten eta Europako gorte askotan —bai nagusietan behintzat— atea zabaltzea lortu zuen gizona izan zelako. Baita Espainiakoan ere, noski. Baina horrekin batera etorri zitzaidan burura Flandes izan dela Europako historian hainbat iraultzaren sorgune ere —Europako mapa politikoa aldatu duten iraultzak— eta Flandes izan zela Espainiako inperioa hausten hasi zen lehen lurraldeetakoa (guk geuk Noainen ia itxaropen guztiak galdu behar izan genituen bitartean). Eta, aitortu dezadan hau ere, Ibarretxek, harritu egin ninduelako: gauza bat izaten baita itxura, eta oso bestelakoa benetan egiten dena.

Baina Rubensek Ibarretxeren diskurtsoan sortu zidan kortozirkuitua alde batera utziz (zirkuitulaburra gomendatzen omen du Euskaltzaindiak, baina ordenadorea blokeatu egiten zait hitz hori idazterakoan, parentesiak jartzen ez badizkiot behintzat), eta Rubensen beraren lanera itzuliz, Guggenheim museoak otsailaren erdialdera arte eskaintzen digun erakusketa hau benetan gomendagarria dela esan beharra dago, eta ez Rubensen lanak beste inon ikus ez daitezkeelako (museo askotan ikusiko zenituzten bere lanak, nik azkenetakoa, benetan liluragarria, Cambridge-ko King's Collegeren kaperan: *Emege magoen adorazioa*. Joan ikustera ahal baduzue!). Hori baino gehiago, Rubensen lan gehienek espazioa oso-osorik betetzen dutelako. Benetako zirrara sortzen duten artelanak direlako. Eta jakinik, berarekin batera, bere dizipulu batzuen lanak ere badaudela ikusgai, bereziki Anton van Dyck-enak (beste batzuk ezezagunak ziren niretzat), ba zeresanik ez. Barrokoaren maisuen bidetik abiatu eta jarraitu nahi duenak, Rubensen lanez gain, Rembrandt-enak ere ikus ditzake, oso erakusketa berezi batean, baina horretarako Erromara joan beharra dago, Quirinale jauregira. Lupa bat eta guzti

ematen dute sarreran, pinturak, eta bereziki grabatuak, erabateko xehetasunez ikusi ahal izateko. Eguberri aldera edo bidaiaren bat egitekoak baldin bazarete esaten dut!

Eta Erromatik Euskal Herrira

Rembrandtena ikustean Erroma bera ere milaka euskal herritarrez josita baldin bazegoen ere (Aragoiko apaiz baten santifikazio zeremoniara bildutakoak), itzul gaitezen Euskal Herrira, ez nuke galdu nahi-eta Ibarretxeren diskurtsoaren haria, eta kultura munduaren inguruan egin zituen aipamen eskasak alde batera utziz (zinematografiari behar zaion errespetu osoz), beste proposamen bat ere egin nahi baitiot Ibarretxeri aldizkari honen bidez: oso serio hartu beharko luke Ibarretxek kulturaren mundua, eta kulturaren munduan ari diren gizon-emakumeak bereziki, hausnarketarako zabaldu duen prozesu honetan. Egun gutxi batzuk baizik ez daramatza bere proposamena batzuei eta besteei aurkezten, baina orain artean, komunikabideetan ia egunero agertzen diren aurpegiak besterik ez ditugu ikusi Ajuria Enean. Badakit erabateko diskrezioz beste hainbat kontaktu ere izaten duela presidenteak, baina nire iritzian, hauxe izan daiteke euskal kulturaren mundua ere debate honetan murgiltzekoa, eta murgilarazteko aukera.

Ondo dago alderdi politikoetako ordezkariekin hitz egitea, sindikatuekin, enpresaburuekin (bide batez, ba ote da Europan beste herrialderen bat enpresaburuek Gobernuari hortzak hain gogor erakutsi dizkietenik? Kezkagarria da egoera, benetako autoritatea duen inoren kontra ez baita agertzen sekula kapitala. Ibarretxeren tokian, Haziendako inspektoreak bidaliko nizkieke nik, ez enpresetara, euren etxeetara baizik, ELA sindikatuak urtero esaten duenez, enplegatuek baino askoz diru gutxiago aitortzen omen dute-eta euskal enpresaburuek). Baina horiekin guztiekin batera, eta nahiz eta askotan ez nabaritu, herri honetan kulturaren munduan mugitzen diren gizon-emakumeak iritzi sortzaileak dira. Ez beharbada egun ba-

tetik besterako «pelotazoak» ematen dituzten horietakoak. Baina bai gizartearen sektore askotara iristen den azpi-sare ideologiko ezkutu bat sortzen dutenak.

Eta Ibarretzek —Eusko Alderdi Jeltzaleak— debatea zabaldu duenez, ezin da hausnarketa sakonerako aukera alferrik galdu. Hausnarketa kulturala, lehenik eta behin, historiatic hasi eta hizkuntzaren arloraino gai guztiak jor-ratuko dituen, eta politikoa ondoren edo horrekin batera. Baina gehiegizko luxua izango litzateke Ibarretxerentzat kulturaren mundua sakon arakatu eta aztertuko ez balu, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mugez gaindi gainera. Tristea baita aurtengo udan Euskal Herrian izan diren ekitaldi kultural nagusietara joan, eta euskara hankapetik harago ikustea (Biarritzen, XX. mendeko arteari buruzko erakusketa bikainean esku-orriak espainieraz eta frantsesez bakarrik zeuden: Donostiako Zinemaldiko gala nagusietan *gabon* eta *eskerrik askotik* ez ziren pasatu). Eta tristea, baita ere, Euskal Herrian zabaldu den debate honi eutsiko ez balio euskal kulturaren munduak. Historiak beti aurrera egiten baitu. Gurekin, edo gu gabe. Ondo asko zekien hori Rubensek. ♪



Literaturgintzaren arazorik larriena

Izenburua apokaliptikoa bada ere, integratu (eta integris-
mo) gehiegi dagoen garaian osasuntsua izan daiteke ara-
zoei artez egitea. Zein da, egun, euskal literaturgintzaren
arazorik larriena? Aditu gehienak bat datoz esatean euskal
literaturgintza osasuntsu dagoela azken urteetan. Inoiz
baino idazle gehiagok argitaratzen du; argitaratzen diren
liburuetatik askotxo kalitatezkoak dira; genero ia guztiak
jorratzen dira —ezberdintasunak nabarmenak badira
ere—; aspaldian hasitakoak idazteari jarraitzen zaizkio eta
belaunaldi berriak sortzen ari dira apurka-apurka; izan
ere, gure historian lehenengoz belaunaldien arteko trans-
misioa gauzatzen ari da literaturgintzan.

Beraz, zein da arazo larriena? Bezero falta. Ezbairik
gabe. Asko idatzi eta ongi idatzi, baina norentzat idatzi?
Nork irakurri? Gaia ez da berria eta aspaldidanikoak dira
irakurzaletasuna bultzatzeko buruturiko ekimenak, pribatu
zein instituzionalak. Baina arazoa areagotu egiten da
garaiotan, ez datozelako bat gero eta sendoagoa den libu-
rugintzaren industria, eta industria horrek ezinbestekoa
duen merkatua. Hau da, lantegiaren produkzioa gorantz
doa, eta merkatuaren eskaera ez da proportzio berean han-
ditzen, Durangoko datuak gorabehera. Eta Durango, esan
dezagun, espejismoa da urtearen basamortuan barrena.

Irakurzaletasuna arazo

Irakurzaletasunaren kontua, bestalde, gori-gori dago ga-
rai honetan: irakasleek urterako programazioa egin berri
dute, eta argialetxeak industri-makinaria Durangora be-
gira koipezten ari dira.

Uda aurretik, Ana Urkizak prentsa-artikulu batean
kolokan jartzen zuen testuen egokitasuna. Euskal literatu-

raren *esportazioaz* ari zela-eta, eta euskarazko liburuak kanpora ateratzeko duten zailtasuna ikusirik, ondorengo proposamena egiten zuen: merkatuaren azterketa egin, merkatuak zer nahi duen ikusi eta hura eskaini, enpresa munduan egiten den ildoari jarraituz.

Pentsa dezagun orain kanpo merkaturako egiten zuen proposamen bera, barne merkatuan ere aplikatzen dugula, irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz. Kontsumo arineko liburuak soilik (edo bereziki) plazaratuko genituzke, bestelakoen kaltetan.

Ni neu ez nator bat ez produkzioa ezta argialetxeen politika merkatuari begira soilik (edo bereziki) antolatzearekin, baina badakit zer-nolako buruhaustea izaten dituzten urtero irakasleek, batez ere ikasturtea hasiberria den garai honetan, ikasleei irakurraraziko dizkieten liburuak aukeratzeko unean. Gustukoak izan behar dituzte, kalitatezkoak, gaurkotasunaren erakusgarri eta, ahalik, idazle errekonozitueneen lanak jaso. Zaila izaten da muga non jarriko den erabakitzea. Noraino begiratu ikasleen gustuari edo, ostera, noraino estutu haien nahia. Onuragarria edo kaltegarria den inposatzea, norberaren ustez ezinbestez irakurri behar diren liburuak ikasleen nahiekin bat ez datozenean.

Eztabaida zaharra da, zaharberritua egunotan. Arin irakurtzekoa den guztia txarra al da, halabeharrez? Kalitatezkoak astuna behar du izan beti? Begi bistakoa da liburu asko irakurtzeak direla eta kalitate handia dutela, hizkuntza guztietan. Baina egia da, bestalde, proposamen estetiko eta literario berriek nolabaiteko esfortzua eskatzen diotela irakurleari, eta zilegia da idazleak esfortzu hori eskatzea berritasuna bereganatu nahi duenari. Eta agian liburu hauek, ustez zailagoak diren hauek, irakurzaletasun sendoagoa ereingo dute irakurlearengan. Nork jakin.

Arazoaren ondorioak

Gutxi irakurtzeak ondorioak dakartza, lehenik eta behin irakaskuntzan. Irakasleek askotan ezin dute testurik ego-

kiena gomendatu (inposatu) azken hamabost urtean argitaratu diren liburu guztietatik dozena erdia baino ez dutelako irakurri (Durangon urte roplazaratzen den *best seller*-a salbu). Oraindik *Zeryatik panpox* eta *Hamaseigarrenean aida-nez* irakurrarazi egiten diete ikasleei (idazleen amorrurako, hauek ikusten baitute geroko lanak ez direla lehenak bezainbestemugitzen, hobeak izan arren), eta ez dakite beren ikasleen kezka islatzen dituzten liburu askotxo egon badagoela salgai, eta horietariko batzuk onak direla gainera.

Itzulpengintzan ere gutxi irakurtzearen ondorio latza ikusten dugu. Juan Garziak berriki argitaratu duen artikululu batean dioenez, eskarmentua garrantzi handikoa da itzultzailegaitzat. Itzultzaile aritutakoak behar direla dio, ez horrenbeste itzulpengintzan aritutakoak, bizipenetan eskarmentu handiagoa dutenak baizik. Horregatik hobesten du itzultzailegaiak itzulpen-eskoletara biltzea, ikasketara arautuen kaltetan, «ez hainbestean aurretik karrera bat egin izana abantaila, karrera egiteko bost urteak pasatu izana baizik».

Eta irakurzaletasunaren arazoarekin lot dezakegu itzultzaileen trebetasun eza. Garziak dioenez,

bost urteok, izan ere, pertsonalki apur bat heltzeko aukera emateaz gainera —eta, bide batez, zaletasunak finkatzeko edo gezurtatzeko, klasikoak irakurtzeko eta idazketa-aprobaren bat egiteko itzultzen hasi aurretik—, lagundu egiten zuten, halakorik guztiz bermatzen ez zuten arren, noski, behiala *kultura jenerala* esaten zitzaion hura osatuz joateko.

Ondorioa da, «nor fidatuko da zer itzultzen duen ez dakien itzultzaileaz?». Kultura orokor falta sumatzen du itzultzaile gero eta profesionalago baino gutxiago trebatuak diren itzultzaile berriengan. Eta kultura-iturri bat (bat, ez bakarra) liburuak dira.

Arazoaren ondoriorik larriena

Beraz, zer egin jendeak irakur dezan? Nola bultzatu irakurzaletasuna? Galdera hau plazaratzea ona da. Ona da

agintariak, editoreak, irakasleak eta kultur gaiekiko ardura duten agente sozialek ere galdera honi erantzunak ematen ahalegintzea.

Arazoa da, idazleari ere galdera bera egin eta honek erantzunak ematera behartzen denean. Areago, arazoa da idazlea soluziobideak bilatzeko tenorean jartzen denean eta, horren kariaz, bere obran ere nolabaiteko neurriak hartu behar dituela sinestarazten zaionean. Eta ez. Nire ustez idazleari galdetzen zaionean «*zer egin daiteke irakurzaletasuna bultzatzeko?*», erantzun egokia izan beharko litzateke: «*ez dakit, ez dit axola eta ez da nire ardura*». Ezin baitu permititu irakurzaletasunaren gorabeherak beraren produkzio literarioan eragin zuzen eta inposatzailea izan dezan, kontsumo-testuak egiteko alegia. Merkatuaren araberatik aldatuko du bere lana? Eta merkatuaren abiadura berean?

Ez da idazlearen ardura bere lana irakurria izan dadin. Bere ardura da beraren buruari fidela izatea, beraren proiektu literarioaz koherentea izatea eta literaturgintzarekin konpromisoa hartzea, hau da, ez ematea lan literarioz, berak bere baitan baldin badaki lan hori erredakzio-ariketa hutsa baino ez dela, inolako balio literarioz ez daukala alegia.

Literatura hizki handiz idatzi nahi duten idazleez ari naiz, jakina. Baina dibertsitate garai honetan denetarik dago, Literatura egin nahi duten idazleak, eta liburuak egiten dituztenak. Dena da beharrezkoa.

Literatura erotikoren gorakada

Viagra-en beharrik gabe, gorantz doaz erotismoaz diharduten liburu eta aldizkariak, bai eta gaiaren inguruan produkzio mardula garatzen ari diren idazleak ere. Inori etiketarik jarri nahi izan gabe, eta argi utzirik literatura erotikoa baino, idazle askoren kasuan esan beharko genukeela osagai erotikoa duen literatura egiten dutela, kontua da gero eta liburu eta autore gehiago plazaratu dela azken urteetan erotismoaren inguruan.

Juan Martin Elexpuru (eta Txalapartan berak zuzentzen duen *Literotura* atala), Carlos Santisteban, Vicent Gil de Paules, Xabier Etxaniz Rojo, Jasone Osoro, Aitor Arana, Juan Karlos Merino, Paddy Rekalde, Basauriko Euskarabilaren liburu kolektiboak, eta bi aldizkari sendo, *Ostia* eta *Putz*.

Zuetariko batzuek gogoratuko duzue nolako morboa sortu zen Joxean Sagastizabalek *Solasean* liburuarekin Café Iruña Saria irabazi zuenean. Elizgizon ugarik osaturiko epaimahai batek saria eman zionean, kazetarien galdera maltzurrek adierazi zuten ez-ohikotzat jotzen zela liburuaren gaia. Liburua erotikoa zen, bai, baina erotismo inozoa zuen, guztiz.

Urte gutxi batzuk geroago *Falo zantarra* liburuaren egileak nahiago izan zuen anonimatoan mantentzea bere izena, eta liburua promozionatzeko egin zitzaion elkarrizketan, aurpegia farola baten atzean ezkutatu zuen, liburu hark eragina-edo eduki baitzezakeen bere lanpostuan (garai hartan jendaurrean agertzen zen kazetari ezaguna).

Zorionez, egoera normalduz doa eta gero eta ugaria-goak dira sexualitatea (sexualitate mota ugariak bestalde) agerian jartzen duten idazleak, gizon zein emakume, euskal letrak aberastuz eta garai bateko monokromia —sotaren eraginez, beltz kolorekoa— ostadar bihurtuz.

Literatur aldizkarien funtzioa

Aurreko atalean literatur aldizkariak aipatu ditugula aprobetxatuz, *Putz* aldizkariaren egileek beren azken alearen aurkezpenean egin zuten hausnarketa aipatu nahi nuke orain. Kexu ziren, batetik, hedabideek emandako oihartzun eskasagatik, baina kexu ziren, batez ere, garai bateko literatur aldizkariak goratzen diren bitartean, *intelligentsia*-ren sehaska eta kabia zirelakoan, gaur egungo aldizkariak enoratu egiten direlako eta, areago, kolokan jartzen delako ea egiatan literatur aldizkaririk existitzen den ala ez ote diren, soilik, lau gaztetxoren irtenaldi zoro eta irreberenteak.

Eta arrazoi dira kexu izatean zeren ematen baitu, amnesia jeta, ez dela gogoratzen nolako efektu handia izan zuten garai bateko artikulu eta irudiak orduko gizartean. Txomin Peillen eta Jon Mirandek *Igela*-n idatzi zituzten artikulu korrosiboak, Susakideen biluzte osoaren argazkia aldizkarian argitaratuta, Susak Pio Barojari egindako trufazko erreferentziak Atxagari eskaini zion ale monografiakoan, *Oh Euzkadi*-ren antiklerikalismoa, Mikel Antza eta Josu Landaren eskutik (uste dut) antzestu zen Jesukristoren felazioa, Maria Magdalenak egina, edo *Korrok*, *Pamiela* eta *Ttu-ttua*-k zuten tonu lotsagabea.

Ostiela-n eta *Putz*-en antzera. Zakil tenteak, titi handiak, giro antiklerikala, masturbazioaren aldeko komunikatuak, euskal *establishment* literarioa kuestionatzen duten artikuluak... baina fotokopietan eta zuri-beltzez izan ordez, orain inprentan, couché paperaz eta koloretan.

Putz-ekoek, bestalde, beste gai bat jarri dute mahai gainean, oso interesgarria nire irudiko. Haiiek ukatu egiten dute literatur aldizkariak probalekuak direnik. Ukatu egiten dute tranpolin-funtzio soila, eta ernegatu egiten dira sumatzen dutenean mesprezuzko zenbait aurpegi testuak aldizkari gisa ateratzen dituztenean, liburu formatuan ateraz gero ikusiko ez zituztenak.

Aldizkariari berezko balioa eta funtzioa ezagutzen dizkiote. Defendatzen dute ez dela gazetetasun-pekatuaren emaitza eta, liburuaren funtzioa ukatu gabe, aldizkariari beste bertuteak ikusten dizkiote, hala nola, batere irakurzailea ez den merkatu batera eta adin segmento batera hurbiltzeko erraztasuna, idazle ezezagunei argitaratzeko aukera ematea, eta taldea sortzeko dinamika bultzatzea, liburuak nekez egin ditzakeen gauzak.

Putz-ekoen mezua argia da. Aurreiritzi ugari, «ezberdina» baztertzeko joera eta moralina gehiegizkoa dagoela diote. Eta, batez ere, memoria historiko eskasa.¶



Hizkuntz normalkuntzarako estrategiak

Gu re hizkuntz normalkuntzarako ahaleginetan ahalik eta emaitzarik emankorrenak lortu nahi baditugu estrategia egokia ezartzea ezinbestekoa zaigu, iragan apirilean Bartzelonan izandako *Congres Mundial sobre Políticas Lingüísticas*-ean Albert Bastardas-ek zioen bezala:


...we would need to be able to make a clear decision about what policies are required in which type of situation at which stage of development and in which historical contexts (http://cultura.gencat.es/llengcat/noves/hemeroteca/metodologia/a_bastardas1_9.htm).

Beraz, ezarri beharreko politikak hautatzerakoan, aurretik beharrezkoa zaigu, besteak beste, egoera-mota zein den, normalkuntzaren zein urratsetan gauden, eta ingurune historikoa nolakoa den ondo jakitea eta kontuan hartzea.

Eta han-hemen burututako ekimenen arabera euskalgintzak mimetismo hutsez —eta, ondorioz, era desegokian— jokatzeko zer-nolako joera izan duen ikusita, go-goeta honen oinarrian estrategia soziolinguistiko egokiaren garrantzia eta horrek eskatzen duen hausnarketa nahiz malgutasuna azpimarratu nahi dira.

Hizkuntzaren Gurpila

Ildo horretatik, aipaturiko kongresu horretan aurkeztu zen lan batean (http://www.linguapax.org/congres/Tallers/article2_cat.html), *Hizkuntzaren Gurpilaren (Roda de la llengua)* ideia erabili zen, egileek euren lanaren nondik norakoa zehatz-mehatz kokatzeko; hona hemen zertan datzan:



Hizkuntzaren Gurpil horrek ederki lagun dezake, bere baitako zazpi elementuen arabera, hizkuntz normalkuntzaren ahuleziak eta indarguneak antzematen; baita hizkuntz errealitatea eraldatzeko saioei ekin orduko, jarraitu beharreko estrategia finkatzen ere: Zein da gure abiapuntua? Zein urratsetan gaude? Zer ekimen motatan jarri behar ditugu bereziki gure indarra eta kemena? Azken finean, Albert Bastardasek jarritako itaunei erantzuteko balioko digu *Gurpil* horrek. Azter dezagun adibide pare bat eredu horren argira.

Lekuan lekuko estrategia egokiaren atzetik

Demagun euskararen ezaguera eta erabilera oso hedatuak dituen udalerrri bateko biztanleek euren hizkuntzarekiko atxikimendu eta engaiamendu handiak adierazten dituztela; eta giro horri erantzun nahirik, udalak herriko denda eta lantegietan euskararen erabilera normaltzeko plangintza abian jartzeko proposamena luzatzen duela. Halako baldintzetan, ekimen horri ekitea txalagarria ez

ezik, posiblea ere bada: Hizkuntzaren Gurpilaren arabera, *euskarazko produktu/zerbitzuen eskaera* handia asebetetze aldera *euskarazko produktu/zerbitzuen eskaintza* handiagoarekin erantzungo da, hartara, jendearen *euskarazko kontsumoa* ere areagotuko da. Abiapuntua errealista denez *Hizkuntzaren Gurpila* badabil; hots, euskalduntze-saio horrek arrakastatsua izateko aukera ederra du.

Goazen bigarren adibidearekin, eta koka gaitzen hiri koskor eta erdaldun batean, non euskaldunak kopuru itxuroso samarra osatzeraino ere egon badauden, baina sakabanatuta; hau da, elkarren arteko harremanik gabe. Bestalde, erdaldunek ez dute euskara berreskuratzeko en-gaiamendurik adierazten. Bestela esanda, ez dago euskal hiztunen komunitaterik, ezta euskararen aldeko giorrik ere. Ingurune erdaldun horretan, euskaldunek ez dute euren burua legitimatuta sentituko euskararen aldeko aldarrikapenik egiteko eta, beraz, *euskarazko produktu/zerbitzuen eskaera* handirik ez da egongo.

Gauzak horrela, udalak lehenengo kasuko neurri berbera bultzatzekotan —denda eta lantegietan euskararen erabilera normaltzeko proposamena—, atarramentu onik ez zuen aterako. Batetik, herritar askok, halako neurriak hartzeko premiarik sentitu ezean, *euskarazko produktu/zerbitzuen eskaintza* areagotzeko saioa artifizialtzat eta alferrikakotzat joko lukete. Bestetik, hizkuntz normalkuntzak sakrifizioak eta nekeak dakartzala kontuan hartuta, proposamen horrek zailtasun ugari aurkituko zituen asaldatutako dendari eta ugazaba askoren aldetik, besteak beste. Egoera horretan, horrela jokatzea *Hizkuntzaren Gurpilaren* logikari muzin egitea litzateke: eman nahi den pausorako ezinbestekoa den baldintzarik ez dago-eta.

Bigarren adibide horretan, hizkuntz-normalkuntza saioak abiapuntu sendoagoa eta bikoitza landu beharko luke aurretik. Batetik, dauden euskaldunekin hiztun komunitatea osatu, horren ondorioz hizkuntzaren erabilera eta prestigioa areagotzea lortu arte. Bestetik, hizkuntz pluraltasunaz eta gutxiengo euskaldunaren eskubideaz erdaldunak eta euskaldunak kontzientziatu. Soilik horrela ibiliko zen txukun *Hizkuntzaren Gurpila*.

Etorkin berriak eta hizkuntz estrategia

Hizpide bihurtu zaigu etorkin berrien auzia egungo gizartean, eta zurrumbilo horretan euskalgintza ez da salbuespena izan.

Beste herrietan ere, Quebecen kasu, garrantzi handia eman zaio etorkin berrien hizkuntz hautuari: frantsesaren aldeko hizkuntz integrazioari, inertziak ingeles boteretsuaren alde jo ez dezaten. Eta gurean ere, etorkin berrien aurrean nola jokatu behar den sakon hausnartu behar da; izan ere, eta arestian esan bezala, mimetikoki —ez era egokienean— jokatzeko arriskua dago.

Gogora dezagun euskalgintzaren baliabideak mugatuak direla eta, era berean, horiekin ahalik eta mozkin oparoena ateratzea dugula helburu; ez, jo eta su norabide garbirik gabe jardun eta gure indar apurrak alferrik xahutu. Badu zerikusirik etorkin berriekiko estrategiak indarrak alferrik erabiltzearekin? Baietz, uste dut; ikus dezagun nola.

Heri nahiko euskaldun batean, non euskararen normalkuntza bide onetik doan, etorkin berrien kopurua (biztanleriaren %1 edo %2koa, adibidez) erabakigarria izan daiteke gure hizkuntzaren aldeko martxa galgatzeko edo geldiarazteko. Kasu honetan aintzat hartzekoak izango dira etorkinen hizkuntz joerak eta, seguru asko, euskararen normalkuntzarako lehentasunen artean elementu hori ere sartu beharko dugu, normalkuntzaren beste pauso gehienak ondo bideratuta eta bermatuta baitaude.

Jo dezagun, berriz, ingurune erdaldun batera, non euskaldunen proportzioa ehuneko hamar ingurukoa baino ez den; halakoetan, etorkinen auzia euskalgintzaren lehentasunen artean sartu beharko ote da? Ezetz uste dut, mozkin oparoagoak lortzeko beste hamaika lan-esparru emankorrago topatuko dugulako. Adibidez, hezkuntzan azalez euskaldundu diren familia erdaldunetako neska-mutilak; hauek, errefortzu eta laguntza jarraiturik jaso ezean, erraz gal ditzakete kili-kolo dituzten euskarazko trebeziak, erdal komunitatearen indarpean. Gazte euskaldun berr i horiek lehenetsi beharko genituzke gure normaltze-saioetan, ez etorkin berriak.

Belaunaldi euskaldun *abandonatuarentzako* estrategiak

Estrategiak estrategia, Xamarrek (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-08-16) artikulu batetik jasotzen zuen ideiaz jardungo dugu ondoren. Deigarria egin zitzaidan iritzia hauxe zen, hitzez hitz:

«Bada, halere, gutxi aipatzen den belaunaldi bat, idilikotasun batetik errealitate gordinera etorri garenok, ikastoletako mundu fantasiatu batetik ghetoen mundura. Erdara ezinbestekoa eta euskara kondena antzekoa dena. Gizarteak sortu gaitu, babesten gaitu baina itxuraz espazio txikituetara ere baztertu nahi gaitu. Abandonuan sentitzen den belaunaldia gara». (Josu Lartategi, *Goizalde, Deia* 07-30).

Hori irakurrita, sentimendu biziak eta kontrajarriak piztu zitzaizkidan, hala haserrezkoak nola ulermenezkoak. Eta uste dut batzuek eta besteek badutela agertzeko zergatia.

Nola ote da posible pribilegiatua den belaunaldiak —ez soilik euskara jaso eta hizkuntza horretan nahikoa ondo trebatua izanaren aldetik— horrela hitz egitea? Izan ere, euskararen historian inoiz izan bada ondo prestaturiko gazteria, oraingoa da. Eta ikuspuntu horretatik ulertuta, itzulinguru eta zehar-esanik gabe, heldutasun falta larria eta oroimen historikorik eza litzateke arestian jasotakoa bezalako iritzia izatea.

Alabaina, gure gizartean dirauen erdararen aldeko inertziari erreparatuta, batek pentsa dezake *abandonuan sentitzen den belaunaldiko* hezkuntza sistema euskalduna itxurazko edo fikziozkoa dela. Pentsamendu hori, halere, e rraz uxa daiteke euskararen normalizazioa prozesu gisa ulertuz gero: hizkuntz normalkuntzak aurrerapauso handiak eman ditu hainbat esparrutan, eta oraindik euskaldundu ez diren eremuak lantzeke ditugunak dira, horietan ere egoera iraularazi arte; oraingoa ez dugu jo behar, ez, behin-betiko eta zinezko errealitatetzat. Kontua da, hizkuntz aldaketa horrek denbora luze eta ahalegin handiak eskatzen dituela, eta oraindik ezin izan dugula eus-

kararen berreskuratze prozesua amaitu; horri segida ematea da *belaunaldi abandonatuari* uzten diogun herentzia eta eginbeharra.

Egungo hizkuntz egoera horrela ulertzen ez duenak, amnesia historikoa eta ezjakintasun soziolinguistiko nabarmena adierazten ditu.


Euskalgintzaren beharrezko jarduna

Gabezia handiak diren memoria historikoaren falta eta soziolinguistikazko ezjakintasuna, norbanakoak ez ezik kolektiboak ere badira; guztien artean landu eta zuzendu beharrekoak, hain zuzen ere.

Horregatik, *belaunaldi abandonatu* horren uste okerrari aurre egin behar diogu, gazte horiek euskalduntze prozesua zuzen uler dezaten. Jakinarazi behar diegu ibilbide luze horretan, azken hamarkadetako pausoak garrantzitsuak direla, baina inolaz ere azkenekoak. Abiaturiko bidean *belaunaldi abandonatu* horrek ere badu erronka handiko zeregina.

Beraz, euskalgintzak erantzukizun bikoitza ere badu uste ustel horien aurrean: batetik, soziolinguistikazko formazioa gizartean hedatu, hizkuntza berreskuratze jardunaren mardultasuna eta korapilatsutasuna uler ditzaten. Bestetik, euskalgintzak gizartearen egungo egoera eta premiei erantzungo badie, mezu berriak hedatu beharko ditu. Soilik horrela izango dugu gizartea prest egungo errealitatea eraldatzen engaiatzeko.

Labur ditzagun, amaitzeko, idazlan honen muina eta mamia: egoera jakin baten aurrean hamaika irtenbide proposa daiteke sarri, baina estrategia egokia bakarra izaten da, eta ez nolana hikoia.^o



Azkenean, beti, edukien faltan eta itxaropenetan

Uztailaren 31n amaitu zen *Konekta Zaitetz* programaren lehen ekinaldia. Programa 2000 urteko abenduan hasi zen, hurrengo 25 hilabeteetan 200.000 ordenadoreen erosketara sustatu eta Internet-loturen kopurua bikoizteko asmatan. Lehen 20 hilabeteke balantze objektiboa zera da: 172.732 ordenadore erosi dira eta Internet-lotura bikoiztu baino gehiago. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoa da aurrena espainiar estatuaren lotura-zerrendan. Ekintza hau 31,2 milioi € kostatu zaio Eusko Jaurlaritzari dirulaguntzatan eta beste 14,1 milioi €, berriz, aurrezki kutxei.

Internet-erabiltzaileen ehunekoak autonomiaka. Lehen zortziak

	1997	1998	1999	2000	2001	2002*	2002**
Euskal Erkidegoa	%2,5	%4,5	%6,5	%14,0	%25,1	%27,7	%29,3
Katalunia	%4,8	%8,2	%11,5	%18,6	%26,6	%26,6	%26,7
Madril	%3,9	%5,7	%9,7	%16,3	%23,4	%24,0	%25,6
Errioxa	%4,0	%5,0	%7,2	%17,3	%24,3	%22,6	%24,9
Balearrak	%4,3	%5,2	%6,6	%13,7	%21,9	%21,5	%23,2
Kantabria	%1,2	%4,1	%6,1	%9,3	%19,1	%21,6	%22,8
Kanariak	%1,9	%4,7	%6,2	%11,7	%19,1	%21,7	%22,7
Asturias	%3,4	%3,9	%5,3	%10,7	%22,7	%23,3	%22,2
Nafarroa	%4,0	%5,5	%5,6	%13,8	%17,3	%16,1	%19,4

EGMren datuak

*2002ko otsaila-martxo

**2002ko maiatza

Ekimen honen arrakastak begi-bistakoa dirudien arren, ez da falta izan kontrakorik sumatu duenik eta egitasmoa epe aurretik amaitu beharra programak izan omen duen porrotari leporatu dionik. Egia guztiz bestelakoa da, ordea, *Konekta Zaitetz*-en lehen ekinaldia arrakas-

taren arrakastaz ito baita, alegia: aurrezki kutxek subentzioak moztea erabaki zuten 2001eko Gabonetan, gogotan zuten baino diru gehiago gastatzen ari zirelako, eta Jaur-laritzari, berriz, uste baino lehenago amaitu zaio aurrekontua, aurrezki kutxen partea ere bere gain hartzea erabaki zuelako. Programa eztabaidagarria izan daiteke baina bere gizarte-arrakasta ez.

Konekta Zaitetz-en bigarren ekinaldiak bi adar izango ditu. Bata, hamar langiletik beherako enpresa txikiei zuzendua eta bestea, adinez, hezkuntza urriz edo lanik ezaz Interneten sartzeko ordenadorea ezezagun egiten zaienei egokitua. Lehen adarrekoiei Internetdun ordenadoren erosketa eta webgunea erraztuko zaie batez ere eta bigarrenekoei, aldiz, telebistaren bitarteko sistema alternatiboren bat eskainiko. Besteak beste, atzeratu samar gera daitezkeen gizarte-eremuetan informazio-teknologia berrien erabilpena suspertzea da helburua. Eta, suspertzekoan, teknologia samurrik ez ezik, eduki aproposak ere behar izango dira. Internet «errazeen» edukia da giltza.

Informazio Gizartea Europan: 2002-2005

Etxean ekipamenduaz jabetzen edo ari garen bitartean, «La Sociedad de la Información en Europa: Presente y perspectivas» deritzan azterketa argitaratu berri du Telefonikak (Madrilen, 2002ko ekainean). Bi parte biltzen ditu ikerketa honek. Batetik, egungo egoera zertan den jasotzen duen sondeoa eta, bestetik, lehen munduko 650 inguru adituren artean (%1 eskas euskaldunak) etorkizun hurbilari (2002-2005) buruz egindako inkestaren emaitza.

Sektorearen irizpide ofiziala osatzen duten adituon ustez, teknologia berriekiko ekimena enpresek lideratuko dute. Nekez ulertuko da Interneten balio erantsiaz baliatuko ez den ekintza ekonomikorik, eta egokitze honek sekulako eragina izango du enpresen barne-antolaketan.

Administrazio Publikoek erabateko zeresana izango dute tokian tokiko Informazio Gizartearen sustapenean, Europako sozialdemokrazietan ez ezik baita Estatu Batuak

bezalako tradizio liberaletan ere. Zelako gobernu-ekimena halako gizarte-erantzuna izango omen da.

Teknologia berrien onuraz atzenen baliatuko direnak hiritarrak izango dira. Adituon iritziz, etxebaitango erabilerera geldoa izango da eta emeki sartuko, Internet astialdirako alternatiba bilakatzen den heinean.

Adituok ez dute bizimodu-aldaketa nabarmenik itxaroro. Telebista gutxixeago ikusiko da, saretikako informazio-eskabidea gehituz. Lan-ordutegia ez da orain bezain zehatza izango, lanordu gehiago egingo bada ere. Ez omen du ematen aberastasuna gero eta hobeto banatuko denik eta daitekeena giza-harremanen kalitatea murriztea.

Teknologiaz, berriz, ordenadore pertsonalak jarraituko du lehen sarbidea izaten eta berebiziko goraldia izango du hirugarren belaunaldiko telefono mugikorrek. Edukigintza-arloak behingoz arrakastarik izango badu, azpiegiturak hobetu beharko dira oro har eta banda zabala bereziki. Edukia da giltza.

Informazio Gizartearen «Ziutate Berria»

Ofizialtasunaren ortodoxiatik ihes egin nahirik eta San Agustinen «Civitate Dei» erreferentziatzat hartuz, Andoni Alonso eta Iñaki Arzo bikoteak *La Nueva Ciudad de Dios* izenburupeko saiakera argitaratu du (Ediciones Siruela, Madril, 2002). Emaitza laburtu beharraren beharrez, hona hainbat zutabe telegrama gisa:

- Egileon ustez Informazio Gizartea etorri da baina orain arteko azterketak kanpotik egin dira. Ordua da fenomeno barrutik ikertzeko. Ondorioz, genero beritzat jotzen duten «zibersaiakeraren» garaia da.

- Besterik uste arren, ziberkultura ez omen da nola-baiteko progresuaren abangoardia, iraganarekin topo egin nahi duen jirabira baizik. Alegia, ez dira informatika, Internet eta adimen artifiziala ziberkultura erakarri duten teknologia, alderantziz baizik: Mendebaldeko tradizioa

(hermetismoa) da teknologia berri horiek ezinbestez sortarazi dituen.

- «Civitate Dei» agustindarrak lehen erlijio-utopia eta ziutate espirituala iragarri zituen neurrian (Jerusalem zerutiarra vs Babilonia gaiztoa), egileok Babilonia erreala aldarrikatu nahi dute Jainko berrizat proposatzen zaigun errealtate birtualaren aurka.

- Egileon ustez, bestelako baliorik ezak utzi duen hutsunea betetzera dator teknologia. Paradisua promesten duen magia edo erlijio teknologikoa salatu nahi dute.

- Tekno-erlijio honek badu bere ziberrinperioa (Internet), mitoak (izate digitala), apostoluak (Nicholas Negroponte), aita santua (Bill Gates), komunitateak (saretar-teak), proselitismoa (nealfabetizazio digitala), testu sagaratuak (hizketa berezia), *lingua franca* (ingelesa), hiritarren nortasun agiria (e-maila), galtzada erro m a t a r r a k (banda zabala), santuak (guru ezagunak), herejeak (Linux), etab.

- Ondorioz, egileok Troiako Zaldiarena egin nahi lukete sistema barrutik erasotzeko: nagusitzen ari den kritikarik eza salatu, pentsamendu bakarra hautsi eta «Ziberratenas-ko» intelektual eta hiritar libreei dei egin buru-belarri altxa daitezen. Edukia da giltza.

Zazpigarren Artea gero eta indartsuago

Telebistaren sorrera eta zabalkundearekin batera ez zen falta izan zinemaren hondamendia iragarri zuen komunikazio-aditurik. Hipotesi hura logikaren jabe genuen: telebista gehiago eta merkeago eskaintzeko jaioa zen, jendea nekez aterako zen gehiago kalera, zinema-ekoizpena takilaren diru-sorrerarik gabe geratuko zen eta, finantziabiderik ezean, zinema-munduak ez zuen etorkizunik izango. Baina, logikaren logikaz, ezer ez da uste bezala gertatu.

Besterik uste izan arren, gaur egun telebista bera da zinema-industriaren sustatzailerik handienetakoa. Telebista-programazioa zinema-eskaintzaz baliatzen da, antena-eskubideak zinema-ekoizpenaren finantziazio-iturri

garrantzitsu dira, telebista-pase batek zinema-areto guztiek baino ikusle gehiago lortzen du, telebistari esker zinematografia-kultura sekula baino handiagoa da eta zinema-historia inoiz baino ezagunagoa. Eta, hau guztia gutxi bailitzan, inoiz baino jende gehiago doa zinemara.

SGAEk (Sociedad General de Autores de España) egin berri duen ikerketaren arabera, zinemaren osasuna gero eta hobea da espainiar merkatuan. Batetik, zinema-aretoen kopurua %53 gehitu da 1998tik 2001era bitarteko lau urteetan.

Zinema-aretoen kopurua



Aldi beretsuan, zinema-aretoetara doazen ikusleen kopurua %39 hazi da eta diru-sarrerak, berriz, %84 gehitu.

Ikusleak sarrera eta dirutan

Urteak	1996	2000	2001
Filmeen diru sarrerak	332 milioi €	512 milioi €	610 milioi €
Filmeen ikusleak	104.200.000	129.155.831	145.000.000

Gainera, espainiar zinema-kontsumoaren egoera dezentente ona da nonbait, Europako estatuen zerrendan bigarren agertzen baita biztanle eta urteko saltzen diren sarrearen arabera. Espainiar estatu barruan, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoa (3) eta Nafarroa (4) dira zinema-kontsumorik gehien dutenak, Madril (1) eta Kataluniaren (2) ondotik.

Zinemara joan ohi direnen sarritasuna Europan. Saldutako sarrerak biztanle eta urteko



Kontsumo-hazkuntza honek estrukturala ematen du gainera, azken urteotan merkatuan areagotu den multizinema-formula arrakastatsua suertatzen ari denez gero, sei pantailatik gorako zinema-aretoetan biltzen baita gehienbat ikusleagoa.

Pantailak zinemako	Ikusleak	Zinema komertzial kopurua
1 - 2	%15,3	418
3 - 5	%19,4	170
6 - 8	%26,7	132
9 - 10	%17,3	52
+ 10	%21,3	50

Telebista zinemaren kaltetan nagusituko zela segurtatu zen bezalaxe, esan ere esan izan da Informazio Gizarteak ez diola zinemari batere mesederik erakarriko, etxe baitan sareaz zorabiatu geratu ohi den internauta tipo bakarti samarra delakoan. Datuek, ordea, besterik aditzera ematen dute: internauten artean hamarretik bederatzi zinemara joan ohi dira eta %24,31 gutxienik astean behin gainera.

Euskal ikus-entzunezkoen Liburu Zuria

Zazpigarren Artearen loraldi honek nekez ezkutaraz ditzaake bi datu larri: europarrak garen aldetik, pantailetan azaltzen diren hamar filmetatik zortzi iparramerikarrak dira; euskaldunak garenez gero, berriz, euskal zinemagintzak azken hogei urteotako unerik urriena bizi du (aurten, lehen aldiz, ez bide da batere filmik errodatuko). Lehen arazoa ez dugu guk konponduko. Kontua zera da, ordea, bigarrena konpontzeko gauza izango ote gara?

Umorerik galduko ez badugu, ikus-entzunezkoen panorama honelatsu da: sektorerik izan bada baina inork ez daki zehatz-mehatz non hasten den eta non amaitzen. Segurutik arazoa ez da ekoiztetxerik eza, gehiegi direla baizik. Gehiegi, txikiegi eta elkarrekin konpondu ezinda. Sektorea ez da bere burua barrutik konpontzeko gauza baina Administrazio Publikoari kontuak eskatzen dizkio sektorea kanpotik ez ordenatzeagatik. Hori bai, lau urtetik behin edo, Administrazio Publikoak sektorearen azterketa egin ohi du, hurrengo azterketara arte besterik gabe ahazteko. Sektoreak diru gehiago eskatzen dio Kultura Sailari, honek esaten du bere diru guztiak ETBk daramatzala eta ETBk erantzuten du gizarteak audientziaren arabera neurtzen duela bere egitekoa. Eta, gauzak honela, azken moda zera da: konponbidea industrietatik etorriko dela, Industria Sailak Kulturakoak baino diru gehiago duelakoan. Gobernu ezberdinetakoak ote?


Auskalo konponbiderik izango ote den baina udazken honetan hainbat gauza berri gertatu dira. Batetik, IBAIA ekoiztetxe elkarteak zatitu eta EPE (Euskal Produktore Elkarteak) sortu da Angel Amigoren inguruan. Bestetik, Lehendakariak berak agindu du Eusko Legebiltzarrean «transferentzia gauzatzen ez den bitartean, zinemagintzari laguntzeko programa berezi bat jarriko duela abian Kultura Sailean legegintzaldi honetan zehar». Eta, horrez gainera, lehen aldiz Industria Sailak parte hartuko du, Kultura Saila eta ETBekin batera, Eusko Jaurlaritzak egingo duen Liburu Zurian.

Geroak esango du zer aterako den baina, bitartean, inork ez luke ahaztu behar Europako Batasunaren arabe-

ra, enpresa-egiturak sustatzea Industriari dagokiola, edukiak suspertzea Kulturari eta (gure kasuan) abantaila fiskalak Diputazioei. Horrez gainera ezinbestekoa izango da sektoreak bere burua behingoz birmoldatzea, digitaltzea eta edukiez arduratzea.

Aldi berean ez litzateke kaltegarri izango gure historiari hurbila gogoraraztea, denok faltan sentitzen baititugu lehen Eusko Jaurlaritzak duela ia hogeitun urte indarrean jami zituen tresna «xume» bezain praktikoak: antena-eskubideak, produkziarako dirulaguntzak, Euskal Mediaren ekarria eta Institutuaren promesa.

Ez al genituen bada euskal telekomunikabideak euskal edukiak lantzeko nahi?¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com